2. Josu Alberdi *Italiako lurrikaretan bertan nengoen txatean ezagutu nuen*

XXI. Zampirain anaiak bertsopaper lehiaketa

- Herria: Errenteria
Antolatzailea: Lau Haizetara. Xenpelar bertso eskola
Mailak: Bakarra
Sartuak: 1. Mikel Arrillaga *Potosiko minak*
2. Aitor Albistur *Itsasoa laino dago*

**BAT-BATEKO
BERTSO HAUTATUAK**

OIARTZUN (2009-01-06)

*Bertsolariak: A. Egaña, M. Lujanbio, A. Arzallus,
A. Lizarralde, X. Silveira, J. Maia,
X. Paya eta I. Elortza.*

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Etxeratek antolaturiko elkartasun jaialdia. Ohi bezala bete egin zen Elorsoro kiroldegia bertsolariak entzuteko eta presoei eta haien senideei elkartasuna adierazteko.

A. Egaña

Gaia: Gaur zortzi urte jaio zen alaba. Kartzelan jaio zen alaba, biok zineten preso, eta bertan jaio zen. Jada libre zaudete biok, edo hirurok, eta gaur zortzi urte dituela, hala galdetu dizu: “Aita, zergatik jarri zenidaten Haizea izena?”.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

Zure aitatxok erreferentzi
batzuk baditu munduan:
Che Guevararen hitzetan zegon
denek dakiten moduan
ta gero Txikik “Haizea...” zion
bere herio orduan.
Zuri izena ematerako
hoietxek neuzkan goguan.

Hainbeste urtez euki ninduten
preso Españan barrena
zeu're kartzelan jaio zinela
horra gauza nabarmena.
Eta propio hautatu nizun
zuri Haizea izena
haizea baita gauza bakarra
preso har ez litekeena.

Zuk badakizu zure izenak
badula hainbat histori.
Zortzi urtetxo baino ez dezu
oso laister hogeita bi.
Gaur aske zera berriro preso
ez zaite inoiz erori
ta inguruan zabaldu zure
askatasun haize hori.

M. Lujanbio-A. Arzallus-I. Elortza

Gaia: Mikel Laboaren *Herria eta hizkuntza* kantuaren hasiera
entzun da megafoniatik.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Iragan egun batez*

I. Elortza: Altaboz hoietatik
entzun dugu hotsa
belarri barruraino
sartzen da zorrotza.
Aurten ere negua
gogorra ta hotza.
Herria da gorputza
hizkuntza bihotza
eta arima berriz
Mikelen ahotsa.

M. Lujanbio: Heriok biziari
hartu dio txanda
nunbait bazen Mikelen
kantuen demanda.
Lurtar guzientzako
galera izan da
ahots bat joan baita
lur hontatik landa
eta gure bizitzen
zati bat joan da.

A. Arzallus: Umetan ezagutu
nuen nik izena
ahots goxo sotila
ez zena ozena.
Baina gerora sortuz
joaten da problema
transmititzen du mina
transmititzen pena.
Betirako ez dela
horixe txarrena.

I. Elortza: Mikelek egin zuen
sekulako lana
melodiaz kantatuz
besteren esana.
Xalbadorren bertsoak
ere geuregana.
Baina zergatik egin
behar dugu drama?
Bien omenez edan
daigun ardo bana.

M. Lujanbio: Ardo bana edanda
topa egin berez
mundu hontan betiko
ere ez gaudenez.
Oteiza ta Xalbador
joan ziren aurrenez
Gero Mikel Laboa
joan da eurak lez.
Eurak joan ziren baina
eurek emana ez.

A. Arzallus: Ta oraindik bizi dira
ahotsez ta kantuz
eta guk gogoratzen
ditugu espantuz.
Baina orain begira
bi izenak lotuz
Baionako rugbiko
matchei begiratzuz:
frantsesez mintzo dira
Hegoak kantatuz.

I. Elortza: Orduan onena da
hara joatea
ta haiek gogatzeko
kapaz izatea
besteen lanari eman
geuk errematea.
Bizitza ez da hiltzen
herritar maitea
geuri tokatzen zaigu
segida ematea.

M. Lujanbio: Ta beraiei segiko
diegu jakina
sekula ahaztu ez dedin
euren imajina
euren ondarea ta
kanturako grina.
Barkatu bersio hau
gure ahalegina
desafinauta baina
bihotzez egina.

A. Arzallus: Baina segiko degu
hiruok tabernan
euskaraz hitz eginez
solasean teman
eta mesedez kantu
bat jarri aukeran.
Agur Mikel maitea
joan zaite hegan
ta Xalbador zenari
eskuminak eman.

ASTEASU (2009-01-10)

Bertsolariak: Mañukorta eta A. Larrañaga.

Sarasola sagardotegian urtero eramaten dituzte bi bertsolari hauek txotx denboraldia “bedeinkatzera”. Aimar Irigoien harri-jasotzaileak egin zuen lehen tragoa, eta Josu eta Lide trikitilariak alaitu zuten giroa, eta batzuek dantza saio ederrak egin zituzten. Erabat bete zen Sarasola sagardotegia denboraldi hasierako festa honetan. Gaueko bederatzietan hasi zen afaria eta hamaika eta erdiak aldera hasi ziren bertsolariak kantuan, librean. Saioa hasteko eta entzuleak agurtzeko bosna bertso kantatu ondoren botatako batzuk jaso ditugu hemen.

Mañukorta-A. Larrañaga

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Ari naizela ari naizela*

A. Larrañaga: Gauza gehiago esplikatzeko
hain gaude komenintzian
Mañukorta're argitua da
oso denbora gutxian
dantza kontua aipatutzen zun
honek lehengo irrintzian...
Lotuan igual hasiko zera
argiak itzaldutzian.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

Mañukorta: Ein gabe nola egon
zalia izanda!
Hemen bukatu ez dedin
erromeri txanda
ondo arrimatuaz
dinbi eta danba
kontu polit gozuak
alkarri esanda.

A. Larrañaga: Segi beharra dago
asmatu ta tira...
Mañukorta orandik
ez da erretira
hau jubilatuz zala
urteak badira
orandik segitzen du
gaztiei begira.

Mañukorta: Herriz herri sarritan
badegu aukera
pausu bi aurrera ta
hiru bat atzera
oraindik sasoiz nago
gutxi gorabehera
gutxien-gutxienez
gerritikan behera.

A. Larrañaga: Mañukortak badauka
ederraren sona
horregaitik ligatzen
beti degu ona
bat bada honi sarri
hurbiltzen zaiona
gaur nun bizi ote da
Joxepa Ramona?

Mañukorta: Garbi esango dizut
nere iritzian
zu ere etorri zera
izate bitxian
zurekin jartzen omen
da malaletxian
ta ez ikustegatik
utzi det etxian.

A. Larrañaga: Nun-nahi dezu aukera
hemengo ta hango
Ramona polita da
gerri eta zango
haurdun gelditu zala
enterauta nago
Mañukorta zurea
ez da ba izango?

Mañukorta: Horrela ibiltzen naiz
txirri eta txarra
edozetako ere
badaukat indarra
gorputza baldarra ta
burutik azkarra
nerea baldin bada
ez da raza txarra.

A. Larrañaga: Honi're jolastea
gustatutzen zaio
aukerik baldin badu
bat baino bi nahio
orandik egiten du
bakina bat saio
beste Mañukorta bat
ez dedila jaio!

Mañukorta: Orain'e abiua
albotikan pasa
asko maitatutzen det
trago ta jolasa
Euskal Herri danean
harturik konpasa
ia zabaldutzen dan
Mañuren arraza.

A. Larrañaga: Zerbait nahi zendukeela
badaukat susmua
zer pentsatutzen nagon
esatera nua:
zuk hola segitzeko
daukazu asmua
zure inguruan dago
protagonismua.

Mañukorta: Umorez ibiltzen naiz
ni bete-betian
hitzikan egin gabe
inoren kaltian
jolasaldi batzuek
tartian-tartian
honelaxe nahi nuke
beste hogeitertian.

A. Larrañaga: Nik ere opa dizut
jarraitu horrela
nahiz lehenostoa zana
ta orain orbela.
Zer pentsatutzen nagon
esango det bela:
gauza polita dezu
maite zaituztela.

GETARIA (2009-01-18)

*Bertsolariak: A. Arzallus, S. Colina, I. Elortza,
X. Paya, I. Ibarra eta M. Artetxe.*

Gai-emailea: Unai Elizasu.

San Anton jaietan antolaturiko jaialdi hau igande arratsaldean egin zen. Jendez lepo zegoen karpa, denera seiehun bat lagun, eta bertso saio umoretsua egin zuten.

I. Elortza

Gaia: Zuen aitona zaharrarekin paseatuz joan zara Arratoiraino. Gora igo eta talaian zaudetela han hasi da aitona balea ikusi duela esanez.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Aita izena kanta beharrak*

Bera nekeak jota zegoen
atera dut derrigorrez.
Etxetik irten talaiaraino
ez gara iritsi errez.
Balea ikusi duela esan dit
ta hartu dut erdi barrez
baina isilik hor gelditu naiz
ni *Lucky Strike* bat errez
ni ez naiz inor esateko zer
ikusi duen ta zer ez. (bis)

Hamaika lagun ikusi ditu
itsaso horretan itota
ta gaur beste behin ilobarekin
begirada hara bota.
Bale haundi bat omen du aurrean
hori da bere borroka
hor utziko dut bere arpoiaz
gustora tiroak joka
laister talaira ailegatzea
kosta egingo zaio-ta. (bis)

Ta hor ari da ezker-eskubi
bateko eta besteko
“ Ia ba gazte!” oihukatzen dit
ni ere lanean hasteko.
Zutitu eta makurtu egin naiz
neure arpoia hartzeko
ta esan diot “Bota aitona
ta utzi dezagun seko!
Balea eraman behar diogu
amonari bazkaltzeko”. (bis)

MARKINA-XEMEIN (BARINAGA) (2009-01-18)

*Bertsolariak: S. Lizaso, A. Agirre, U. Iturriaga
eta A. Estiballes*

Gai-emailea: Joxe Felix Zamakona.

Barinaga auzoko San Anton jaietan ohiko bihurtu den jaialdia, aurten hamahirugarrena. Elizan izan zen, igande arratsaldean; entzule mordoxka elkartu zen, baina ez zen bete.

S. Lizaso

Gaia: Denontzat ezaguna den kantu batek honela dio: “Euskal Herria askatu arte / ez dot moztuko bizarra”.¹

Neurria: Hamarreko handia


Doinua: *Mutil koxkor bat itsuaurreko I*

Urteak dira lotu ginela
bizi ezinan katera
politikoak nahiz ta aldatu
lau urtetik lau urtera.
Askatasuna eskatzen degu
baina guk lortu? Bai zera!
Ta Joxe Felix gai hori jarriz
zer arraiotan ai zera?
Eleiza ere kontra daukagu
hortik kontuak atera. (bis)

(1) Kantuz eman zion gaia Joxe Felix Zamakona apaizak Lizasori

Herri txikia baina hala're
askatasunez bizi nahi.
Okerrena da gu ez garela
guztiok elkartzeko gai
baina noizbaiten lortuko degu
horregatikan gaude zai.
Garaia da-ta bildu gaitzen
benga arreba ta anai!
Nundik gatozen guk ez dakigu
nora joan nahi degun bai. (bis)

Hainbat urtean bizi geranak
geroko itzaropenean
askatasunan grina daukagu
bakoitzaren barrenean.
Oraindik ere ez gera erori
betiko etsipenean
gure burutan ta bihotzetan
ametsa ari da lanean
eta ametsa politena da
egi bihurtzen danean. (bis)



Bertso Eguna

(Donostia, 2009-01-25)

Iturria: Alberto Elozegi

DONOSTIA (2009-01-24)

*Bertsolariak: S. Lizaso, U. Iturriaga, A. Egaña,
M. Lujanbio, S. Colina eta J. Maia.*

Gai-emailea: Saroi Jauregi.

Kursaala erabat bete zuten bertsozaleek Bertso Eguneko ekitaldi nagusia ikusteko, denera mila eta zazpiehun bat lagun. *Joan-etorrian* zuen goiburua aurtengoak, eta etenik gabea izan zen bertsolari eta bertsozaleen arteko joan-etorria. Zaleek telefonoz, SMSz eta posta elektronikoz proposaturiko gaiekin eta ariketekin egituratu zuen antolakuntzak jaialdia. Goizetik hasi zen bertso festa; Boulebarrean eta Alde Zaharrean ibili ziren bertsolariak, denboraleari aurre eginez, eta gauean segitu zuen festak Kursalen bertan.

A. Egaña- U. Iturriaga

Gaia: Fokoek ausaz bi entzule argituko dituzte, eta horiei buruz kantatu beharko duzue. Lehenbiziko hori da, Unai, zure abiapuntua; eta bigarren hori zurea, Andoni.

Neurria: zortziko handia

Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

U. Iturriaga: Nire gizonak eukiko ditu
berrogeita bost bat urte
gaurko sarrera lortuko zuen
irradi programa truke.
Baina zuretzat beste pertsona
egoki bat duzu zuk pe.
Nire galdera da Andoni: elkar
ezagutzen ote dute?

- A. Egaña: Uste det nere andreak urtez
hogeita danak dauzkala.
Pentsatu zazu disimulatzen
egin duten eginahala
sei esertoki bien artean
lige bat dira aibala!
Eta fokoak apurtu die
distantzi prudentziala.
- U. Iturriaga: Eta alkarri begira daude
biok horrela-horrela
fikzioan bai baina jaurti du
gure gizonak kordela.
Gaur informalez jantzita dator
erdi esporrez bezela
neskak pentsatu dezala astez
trajea janzten duela.
- A. Egaña: Gizonezkoa ta emakumea
ta jakin-mina nahi ase
bien artean sortu liteke
mila istorio klase.
Aizu informal oker ez banaiz
idazle da andre hauxe
jertse *cuelloa* goraino dauka
Cervantesek bezelaxe.
- U. Iturriaga: Eta bestea Foru Aldundiko
langile fijoak omen
baina itxurak egiten ditu
asteburutan bederen.
Bixarra ere hazia dauka
pixka bat han eta hemen
baina ez dakit interesante
edo pixkat narratsa den.

- A. Egaña: Ai emakume! Akaso grina
despistatu egin zaizu.
Disimuloan hurbildu zaitez
aulkirikan aulki. Aizu!
Gero liatzen diren ez diren
gugatik berdin-berdintsu
geu ere noizbait izandu ginen
Bartolo eta Maritxu.
- U. Iturriaga: Bai iturrira joan ginen baina
nire ardoak tururu!
Hementxe gaude oraindik baina
zertan ez dakit seguru.
Derrigorrean hartu zaitugu
aizu gizona helburu.
Eskerrik asko! Andonik ta nik
afari bat zor dizugu.
- A. Egaña: Ta andrearentzat beste afari bat
nere kontu azkenean.
Barka! Hankarik sartu badugu
itsu-itsuko lanean.
Hori askotan gertatzen zaigu
bertsolari jardunean:
edozer gauza esaten degu
ezer ez dakigunean.

DONOSTIA (2009-01-24)

*Bertsolariak: J. Soto, B. Ugartetxea, I. Zubeldia,
On. Enbeita, A. Arzallus eta X. Amuriza.*

Aurkezlea: Naroa Sasieta.

Bertso egunean egiten den afariaren osteko saioa. Kursoaleko jate-txean izan zen. Bi bertsoaldi egin zituzten gai librean, eta Amets Arzallusek eta Xabier Amurizak aurrez jarritakoak kantatu zituzten, Ortzi Oihartzabal (bibolina) eta Josu Zabala (eskusoinua) musikarien laguntzarekin.

On. Enbeita-I. Zubeldia

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen jaunak*

I. Zubeldia: Gabon danori! Zer moduz gaude?
Hauxe da giro bortitza!
Nola bertsoak sendatzen duen
bertsozalearen gaitza.
Aspaldi hontan mikrofonotik
gertu xamarren gabiltza...
Aspaldi ez zaitut ikusi eta
zer moduz zaude Onintza?

On. Enbeita: Gabon danori! Hasi ezker
gitxiago ez naz izango.
Gaur hemen txarto nagoela be
ez dot hain errez esango.
Galdera egin dozu ta erantzun
behar hemengo ta hango:
zure ondoan etxeko legez
ta bestela oso ondo.

I. Zubeldia: Nere ondoan ondo zaudela
hain da notizi baikorra.
Era hontako afari baten
degu gauza derriorra.
Kupel artean eginda gatoz
tragoan saio gogorra
ta eskilara igo orduko
pasatu zaigu moskorra.

On. Enbeita: Ez dute asko irauten beraz
itxuraz zure mozkorrek.
Nola ikaratu leike mutil bat
horko hiru eskilarek?
Eta zer esan justo ipini
dituzten hiru kupelek?
Kupel horiek edan ditzake
goierritar bakar batek.

I. Zubeldia: Tragoren batzuk egin ditugu
nola hala komeni dan.
Pausoa pixkat baldartu zaigu
ta bi begiak dizdiran.
Hirurehun litro jarri dituzte
danak elkarren segidan
nik eran detan proportzioan
lehen bukatuko ziran!

On. Enbeita: Proportzioak atera eta
berba egin duzu errez
zure ustetan eran ta eran
lasai ibili zarenez.
Hirurehun litro egon direla
bota diguzu. Mesedez!
Hori zuk igual sinistu duzu
baina bizkaitar batek ez.

I. Zubeldia: Pasatu degu kupel arteko
langea eta hesata
Bizkain ez dago sagardo onik
ez zaiz abitu presaka!
Ni hemen nator galtza zaharrekin
ta gerrikoa lasata
ta zu gaur ere polita zatoz
pelukeritik pasata.

On. Enbeita: Erosi ditut aste honetan
ikusten da praka batzuk
ta ispiluan gaur ere ordu
batzuk errez pasa ditut.
Baina pelukeriko kontua
nondik atara duzu zuk?
Orraztu barik be bardin-bardin
liluratu behar zaitut.

I. Zubeldia: Pelukerian nola ez nuan
sekula santa ikasi
nunbait nik bota dizudan horrek
orain egin dizu grazi.
Lehen kalparra bikaina nuen
orain soila daukat kasi
orrazi danak saltzeko dauzkat
nahi bazenitu erosi.

- On. Enbeita: Orrazi asko saltzeko eta munduan zabiltz ederto diru apur bat behar al duzu Iker batekoz besteko? Orraziekin atera eta ez ei da aberasteko igual dirua beharko duzu isunen bat ordaintzeko.
- I. Zubeldia: Disimuloan pasa nahi nuen eta azkenean tori! Hara ze gauza etorri zaion ondoan deten damari! Notiziren bat entzunda zaude badaukat kezka ugari! Isun bat pozik jarriko nion hori esan dizunari!
- On. Enbeita: Ez zaizu antza hainbeste gustau nik hemen esandakoa isunarena aipatu eta zu jarri zara bapoa! Hau ez da izan txori haundia ta ez da izan guapoa. Ehiztari ona zara ta harrapau eizu txori txibatoa!
- I. Zubeldia: Basahuntz haundi bat bota nuela hori da garbi dagona tiro batekin hondatu leike ehiztaria ta gizona. Bi mila euro daukat gaur multa eta hori ez da broma! Apunteria bakarrikan ez kartera behar det ona!

On. Enbeita: Beraz argi da danon aurrean
ze diru premian zauden
bi mila euro batzeko behar da
lanean hainbeste kemen.
Basahuntz haundi bat bota zendula
eta harro zaude hemen?
Edozein gauza eingo zenuke
adarrak izatearren!

I. Zubeldia: Zu txokolate zalea zera
jo didate kornetea
ta hori esan duen gizona
ez da gizon arlotea.
Tripea daukat ia gehiena
gantz pilarekin betea
baina barruan gordeta dago
txokolate tabletea.

On. Enbeita: Nahiko golosa izan naiz beti
txokolate kontuetan
hiru tableta almohadapean
beste bi armairuetan.
Zure eskeintza ai Zubeldia
eskertzen dizut benetan!
Baina justo gaur dieta hasi dut
gaueko hamabietan.

I. Zubeldia: Dieta gora dieta behera
ta janik ezin baimendu
letxuga-hosto eta kipula
bada nahikoa ukendu.
Hala ta guztiz kilo horiek
ezin ba gainetik kendu
bentaja earra izango zendun
lehenago hasi bazendu!

On. Enbeita: Hori entzunda ere ezin naiz
jarri umore txarreko.
Badira mila momentu eder
dieta berria hasteko
baina itxaroten egon naiz Iker
nire kilotan ederto
zuk harrapatu ei duzun basahuntz
haundi hori be jateko.

I. Zubeldia: Basa ahuntzaren istorioa
ez al degu tragikoa?
Adar ta guzti etxean daukat
ze trofeo magikoa!
Oholtza gaineko bikote hau're
ez da oso logikoa:
hau txokolate zalea degu
ta ni diabetikoa.

On. Enbeita: Ez daukat jada gauza haundirik
Iker zuri esateko.
Anbizioa izan dut beti
txokolatea jateko.
Esaten dugun guztia bada
hemen elkarbanatzeko
ahalegintxo bat egin dezagun
sagardotan elkartzeko.

LEITZA (2009-01-25)

*Bertsolariak: A. Egaña, J. Soto, D. Riaño,
S. Colina, M. Lujanbio eta S. Lizaso.*

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Duela zenbait urte arte Inauterietan ohikoa zen saioa berreskuratu dute aurten. Zineman izan zen, igande arratsaldean. Aretoa bete egin zen eta entzule batzuk zutik egon ziren. Gai-emailea ez zen bertsolariekin batera oholztan egon, gortina atzean ezkutaturik baizik. Eta handik eman zituen gaiak, Jainkoaren ahotsa bailitzan. Saioaren hasieran, Leitzako bertso eskolako lau haur igo ziren, akolito jantzian, eta agur bana kantatu zuten. Sarrerarik ez zuten kobratu, eta saioaren erdi alde-
ra poltsa pasatu zuten.

A. Egaña-S. Colina

Gaia: Zu, Sustrai, Leitzako seme bat izango zara: Abel Barriola; eta zu, Andoni, Abelen lehen eta oraingoz bakarra den txapela. Aspaldian ez duzue elkar ikusi, baina gaur Abelek kajoitik atera zaitu, eta hizketan hasi zarete.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

- S. Colina: Ai ene txapel! Ai ene txapel!
Nahiz ez zaizun falta hautsik
eskutan hartu zaitut ta kolpez
kajoia dago huts-hutsik.
Begitan dizdiz egin didazu
maite zaitut nago pozik
ta ez bakarra zaitudalako
lehena zarelako baizik.
- A. Egaña: Kosta zitzaidan dexente kosta
buru horta iristia!
Hasera hartan zirrargarri
eta eder zen guztia
baina kajoian bakar-bakarrik
hau bizimodu tristia!
Jakin nahi nuke noiz helduko den
nere anaia bixkia.
- S. Colina: Oinatz indartsu ari da eta
Irujo ez dabil plako
Aimarrek berriz egun haunditan
jokatu ohi du galako
baina pila bat ahalegintzen naiz
ta gehio saia beharko
anai bixkia izan dezazun
hurrengo ekainerako.
- A. Egaña: Gorputza dezu tamainakoa
hizketa goxo-leuna
urtean zehar onenen pare
urte askoan jarduna.
Behin finalera iritsi ezkerro
izan zaite txapelduna!
Horretarako egin behar dezu
Egañak egiten duna.

- S. Colina: Fenomenotan fenomenona
izan liteke Egaña
bere mailarik ez dut akaso
ezin ninteke engaina.
Ados Egañak edukiko du
txapel zerrenda bikaina
baina Egañak ez ditu maite
nik maite zaitudan aina.
- A. Egaña: Preparatzea gauza polita
ta premizkoa bizitzan
baina hala're hementxe zaude
txapel bakarran kerizan.
Beste txapel bat lortu behar dezu
jokatu piztien gisan
Kain puntu bat daukazu faltan
Abelegia ez izan.
- S. Colina: Aizu kapela zertan zabilta?
Hori ez nuen espero
zure ahotsa entzun dut eta
hain goxo eta hain bero!
Aurten txapeldun nauzu seguro
milagroa bertan bego!
Jainkoak ere hitz egiten du
zu eskutan hartu ezker².
- A. Egaña: Bueno ba Abel beste txapel bat
neri hurreratzen saia
azken urteetan gertu-gertutik
hartu diezu usaia.
Ekaina laister iritsiko da
gaur da deskansu garaia.
Eser gaitezen bete dezagun
gure Jainkoaren nahia.

(2) Egañak hirugarren bertsoa bukatu eta Sustrai laugarrena botatzen hastera zihoala, gai-emaileak- entzun egiten zuen soilik, ikusi ez- Soto eta Lizaso deitu zituen kantura, eta hori baliatu zuten Colinak eta Egañak azken bi bertsoetan.

J. Soto-S. Lizaso

Gaia: Nik jakin nahi izaten dut jendearen kezkak zein diren, eta orain zuen kezkak entzun nahi ditut, batik bat Julio gaztearen kezkak, gazte baten kezkak, eta Xebastian... Xebastianen kezkak.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Nere gogoa hegan dijoa*

- J. Soto: Bizitza aldi berean dugu
 arina eta astuna.
 Gaur egunean zeinen zaila den
 bilatzea neskalguna!
 Prezioz ere gora joan da
 etxearen erresuma.
 Ez dakit oso garbi dagoen
 gazteon etorkizuna.
- S. Lizaso: Helduok ere geure lekutik
 behar kontuak atera
 ilusioa galtzea beti
 hori norbere kaltera.
 Jangoikoari kezkak agertu
 hau dut oraingo aukera:
 bertsolaria izango al naizen
 hemendik hogeitun urtera.
- J. Soto: Izango zara izango zara
 ez uste bestelakorik.
 Gaur egunean errepideak
 daude kontrolez beterik
 zuen garaian ez zen faltatzen
 Cardhu eta JBrik
 ta orain gazteak ez dugu edaten
 juergan ura besterik.

S. Lizaso: Urtearekin ez da izaten
sasoï betean hainbat sen
ta holakotan hanka-sartzeak
izaten dira errezen.
Azken boladan kezka bat daukat
ta ez dit uzten bizitzen:
plazetatikan neu sobratzean
ia ohartuko naizen.

J. Soto: Pertsonak beti buruhaustea
izaten du hain gertuko
bertsozaleak ta entzuleak
guztiak horren lekuko.
“Jendea ohartu behar ote da
nik plazak utzi orduko?”
Zu lasai egon Julio joango da
ta ez da ezer pasatuko.

S. Lizaso: Zuk egindako proposamena
ez zan neretzat kaltean
horrela balitz nik a zer poza
nedukakeen bat-batean!
Baina Jainkoai nik galdera bat
egin beharko kolpean:
Juliok ametsik beteko al du
ni bizi naizen artean?

J. Soto: *Treintaiseisetik* aurrera horren
gaizki ibili zen ezkerra
zuen garaian nahiz ta Francisco
izan zenuten liderra
gaur egunean euskaldungoa
hain zitala hain okerra!
Guk gerra gabe pasa behar dugu
bigarreneko posgerra.

S. Lizaso: Gazteak eta helduak ezin
izan kezka beran jabe
kontraesanakin ohartuko zan
hemen bajina bat jende.
Batzuk ez dira nunbait ohartzen
daudela besteren mende
bizi guztian gerran dabilta
ta berak ohartu gabe!

J. Soto: Zaharrak dauka irakasteko
ta gaztea ikasteak
nahiz eta sarri beldurtzen duen
horiek ene usteak.
Zu lasai egon ez ditugu-ta
izango buruhaustek
esku beretik joaten bagara
zaharrak eta gazteak.



*Orixe saria
(Añorga, 2009-03-14)*

Iturria: Xabier Gaztelumendi

SARA (2009-01-31)

*Bertsolariak: M. Artetxe, A. Arzallus,
A. Egaña eta A. M. Peñagarikano.*

Gai-jartzailea: Sarako Bertsuzale Taldea.

Gai-emailea: *Kattin Bergara.*

Sarako Ikastolak eta Gaztetxeak antolatutiko bertso-afaria. Lur Berri gelan izan zen, ehun lagun inguru elkartu ziren afaritan eta giro bikaina egon zen saio guztian zehar.

A. Arzallus

Gaia: 1609an, Lapurdin, epaiketa erraldoiak egin zituzten Pierre de Lancre epailearen ardurapean. Euskaldun guztiak sorginak omen zirelako epaitu zituzten. Hemen, Saran, emazte eta adingabeko asko epaitu zituzten.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas*

Garai horretan bestaleku zen
leize-zuloen hegia
ta emakume formal txintxoek
nonbait sorgin aurpegia.
Espainiako epaile batek
luzatu zuen begia
denak epaitu ta kondenatu
ta ainitz hil alegia.
Ta historiak zer dela eta
ez du kontatzen egia?

Besta egitea itxura denez
ulertzen zuten aldrebes
edo euskaldunak ezabatzeko
norbaitek zenbat interes!
Eta sorginak bihurtu ziren
nahiz ez hala izan berez
ta laurehun urte pasatu eta
denbora joanaren legez
euskaldunak ez gara aldatu
ta justizia ere ez.

Duela laurehun urte isuri
zauriak odol gorria.
Gaur egunean Madrilen aise
betetzen dute orria.
Hemengo bidea zaila zen eta
egun ere bihurria
larehun urte lehen eta orain
berdin da Euskal Herria:
hura inkisizio zaharra zen ta
hau inkisizio berria.

MUTILOA (2009-02-20)

*Bertsolariak: S. Lizaso, I. Murua,
A. M. Peñagarikano eta A. Egaña.*

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Lierniko Mujika jatetxean urtero egiten den bertso afaria. Jende asko, beti bezala, eta itxura batean oso kontent geratu ziren saioarekin. Hamaika eta erdietan hasi ziren bertsolariak kantuan, eta tartean ordu erdiko atsedena hartuta, ordu biak aldera bukatu zuten.

A. Egaña-A.M. Peñagarikano

Gaia: Badakizue aurten intsumisioak hogeitun urte bete dituela. Zuek biok egin zenuten zerbitzu militarra, eta ondo pasatu omen zenuten. Defentsa Ministeriotik etorri zaizkizue gaur, zerbitzu militarren aldeko publizitatea egingo ote duzuen eskatzera. Eta doinua ere eman egingo dizuet: “Tarrapatatan”.

Neurria: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Begira nago jarria beraz*

A. Egaña: Tarrapatatan diana hotsa
 turuta baten gerizan
 eta gu hantxe goizeko seiak
 noiz iritsiko peskizan.
 Gosaria zen otordu ederra
 iristea komeni zan
 jan nuen errege gisan. (bis)
 Holako une zoriontsurik
 ez det pasatu bizitzan!
 Ez zegon gauza xamurra baina
 ni gizon han egin nintzan. (bis)

A.M. Peñagarikano: Ejerzitoa exkaxen dago
eta behar da hornitu
orain mezu bat eman nahi degu
eta danok konprenitu:
arren gaztea duda-mudetan
ez zaitezela gelditu!
Soldauskak zenbat meritu! (bis)
Ta badakizu eskasak ere
gizonak egiten ditu.
Benga gaztea anima zaite
zeure España serbitu! (bis)

A. Egaña: Soldaduzka zan zoragarria
egia garbi esanda
a ze zirrara sargentu batek
“¡Firmes!” eta “¡Ar!” esanda.
Horrexegatik egin behar det
soldaduzkan propaganda.
Tiroan dinbi ta danba! (bis)
Gero barruan nolako poza
banderai muxu emanda!
Soldauzka hori kendu zuten ta
dena pikutara joan da! (bis)

A.M. Peñagarikano: Lehenago zerbait gehiago ginen
soldadutza zela bide.
Han eta hemen egingo dira
hemen guztiak erkide.
Jantzi uniforme eta txapela
lortu zenbait eskubide
gauzak horrela baitire. (bis)
Andaluziko ta euskaldunak
hemen denak adiskide.
Gaur nazioak lema bakarra:
España grande ta libre. (bis)

A. Egaña: Bizitza zer den ikastekotan
gazte soldadu joan hai
nere bizitzan gozatu nuna
zuek'e gozatzea nahi.
Egun osoa zorion huts da
aste egun edota jai
izerdi gozoetan blai. (bis)
Hiztegiai're soldaduzka horrek
bentaja egin zion ai:
nik puteatzen han ikasi nun
eskakeatzen ere bai. (bis)

A.M. Peñagarikano: Ni're soldauska joan nintzaden
beste guztien antzera
ta oso pozik joaten nintzan
maniobrak egitera
egun batean Granadara ta
hurrena Bilbo aldera
zertako egin galdera? (bis)
Aizu gaztea! Horren pasota
ta inutila ez bazera
ez dezazula denborik galdu
ta zatoz gu serbitzera! (bis)

A. Egaña: Ni gizen-gizen joan nintzen hara
elur bola bat bezela
maniobratan kurtitu eta
egin ninduten gazela.
Hau soldaduzkan gerta liteke
serbizioan bestela.
Gazte ez izan txepela
apuntatu zaitez bela!
Kontuan hartuz gazte artean
bertsozale asko dela
nei soldaduzkan jarri zidaten
lehendabiziko txapela. (bis)

A. Egaña

Gaia: Lazkao Txikik, hemen, orain dela hogeit hamar urte bertso ederrak kantatu zituen ispiluari begira. Ba begira nola dagoen ispilu hura³.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas*

Hementxe zen bai artean ere
ni nintzen erdi mutiko
Lazkao Txikik ispiluari
nolako hiru bertso trinko!
Ispilu zaharra hautsi egin da
ezer ez baita betiko
baina hiru bertso haiek hain ziren
dotore eta begiko
hiru bertso haien kategoria
denborak ez du hautsiko.

Horrela hartu ispilua ta
hiru bertso erdi ozen
adjetibo bat ipintzekotan
agian *delicatessen*.
Bere burua irudikatuz
horren sakon horren zuzen
ispilu honek puskatzeko're
izan du behar hain bat sen
osotasuna baino gehiago
Lazkao Txiki printzak zen.

Ta ondorengo belaunaldiek
berriz osa dezakegu
Joxe Mielen bertso bidean
sarturikan baikaude gu.
Maisu gisara onartzen degu
bai udara ta bai negu
mikrofonoan trebea baitzen
harremanean eredu.
Ispilurikan ez degu behar
ispilua bera degu.

(3) Ispilu hautsi baten zatiak eman dizkio Elizasuk.

S.Lizaso-I.Murua-A. M. Peñagarikano-A.Egaña.

Gaia: Orain, atsedenaldira joan aurretik, publizitateari egin behar diogu tartea. ETBk azken urteetan zentsuratutako publizitate edo iragarkiak ikusi behar ditugu.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Txoriak eta txoriburuak*

S. Lizaso: *Insalus* hura nungoa degun
zein ez ote da jakinda?
Garai batean onuragarri
orain edatean min da
mineral eta indar guztiak
nunbait dauzka aldeginda
han alkatesa jarri zenetik
dena ozpindu egin da. (bis)

I. Murua: Han eta hemen zer esan pranko
entzule zuk alajaina!
Baina askotan esanagatik
jendeak entzun ezina.
Hartu ezazu euskal pastilla
eztarrian lizipaina
Muruan ahotsa entzungo dezu
Xebastianena aina. (bis)

A. M. Peñagarikano: Hauteskundeak gainean dira
jendeak daukan antsia!
Zapatero da otso gaiztoa
ardi larrua jantzia.
Eman botoa PNVri
horrek badu garrantzia
PNV da askatasuna
eta independentzia. (bis)

- A. Egaña: Zuk bertsolari eduki mahaia
Minor puruez beterik
ez degu esango ez dula egiten
biriketako kalterik.
Hala're erre neuririk gabe
ta erre zazu askerik
hiltzen bazera ez da izango
lan istripu bat besterik. (bis)
- S. Lizaso: Hor konpon ura! Baina *cavatik*
nik ezin dut egin barau
eta aukera daukatenean
tragoa egiten diot rau!
Ana honekin pasa izan ditut
nik neuk ez dakit zenbat gau
baina ondotik joaten denean
burukominez uzten nau. (bis)
- I. Murua: Gero alkoholemi kontrol hoietan
zer-nolako gurutzea!
Batek euskeraz besteak erderaz
konplikatatu ulertzea.
Ertzantzarako imposible da
euskaldunak topatzea
aurrerantzean aholkatzen da
Ertxantxa ahoskatzea. (bis)
- A. M. Peñagarikano: Larunbat eta igandeetan gaur
badago hainbat esames
eta gazteak dibertitzea
bere gogo eta amets.
Gure aholkua entzun ezazu
oraindik gazte zaudenez
eta kontuz ze hartu nahi dezun!
“Droga gabe atsedetik ez”. (bis)

- A. Egaña: Hau ETBren promo bat degu
zatoz lehenengo katera!
Programa ona besterik ez da
sartzen ETB1era.
ETB2a arratsaldeetan
la letxe eta la pera!
ETBn ez da zentsurarikan
inoiz ipintzen gainera.
Bueno geroni lotsatu eta
autozentsuratu gera.
- S. Lizaso: Inok ez pentsa hoinbeste kalte
egiten dunik edanak:
asko dirade istripu ondoren
ospitalera eramanak
ospitalera joandakoan
akabo arazo danak
puntuak bertan lortzen baitira
bidean galtzen diranak. (bis)
- I. Murura: Txapelketa da badakizue
noski aurtengo urtean.
Politikoak sari ematera
tabladuraino joatean
astebete bat zozkatuko da
agroturismo batean
bertan txistua ahalik altuna
jotzen dutenen artean. (bis)
- A. M. Peñagarikano: Langile denek hil azkenean
jasotzen dute soldata
beren soldata jasotzen dute
baina ederki kostata.
Lan egin zazu baina segururu
lema horrek noiz du data?
Ez ezazula batere egin
askoz segurugo da-ta! (bis)

A. Egaña: Azkenengoa bota beharko
ta geuk kendu degu, pena!
Murua jaunak botatakoa
iragarpen nabarmena
txapelketako txistu hots eta
agroturismoarena
hain xuxen degu PNVko
afiliatu batena.



*Hitzetik Hartzera festa
(Bilbo, 2009-05-22)*

Iturria: Hitzetik Hartzera

BERRIZ (2009-03-08)

*Bertsolariak: A. Agirre, On. Enbeita,
M. Arzallus, M. Amuriza,
I. Ibarra eta E. Lagoma.*

Gai-emailea: Maite Berriozabal.

Berrizko kultur etxea bete egin zen igande arratsaldean bertsolariak entzuteko.

A. Agirre

Gaia: Gaur goiz itzartu zara, eta etxeko beharrak egiten hasi zara: etxea garbitu duzu birritan, eta etxeko denen arropak lisatzen ipini zara. Halako batean, irratia piztu duzu, eta hala dio: “Gaur martxoaren 8a da, Emakumearen Eguna”.

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Ai zer plazera bost urten buruan*

Etxeko lanak egitea da
maiz langintza derrigorra
baina hau ote emakumeon
eguneroko zigorra?
Sekula ez det inoiz aditu
“Ze ama on ta jatorra!”
nere hiztegian ez da azaltzen
jaiegun edo oporra.
Plantxa itzali arropa bota
eta dena *a la porra*
gaurtik aurrera hasiko baita
nere greba orokorra.

Nere senarrak ere uste du
dela etxeko alkate
ni manikia izan ninteke
ta bera eskaparate⁴.
Orain artean dena egiteko
banun mila borondate
baina ostikoz jo behar ditut
mahai gain, leiho ta ate.
Dena utzita aldarrikatzen
saiatu nadin jo ta ke
nahiz ta senarrak ez dun egingo
hautsak irensten dun arte.

“Ama bazkaia ze txarra dagon!”
seme txikiak kritika
senarrak ere lorerikan ez
ez da horren hipokrita.
Baina guztia utziz banoa
kale aldera korrika
trago bat lasai hartu behar det
hor lagunekin jarrita.
Zergatik egon besteei begira
lur jota eta etsita?
Berdintasuna lortu behar baita
baina gugandik hasita.

E. Lagoma-On. Enbeita

Gaia: Zuen gizonak edo senarrek kamioilari moduan egiten dute lan, eta denboraldi luzeak ematen dituzte etxetik kanpo. Hori dela eta, kanpora doazen bakoitzean Erikaren etxean batzen zarete biok, eurak bueltan etorri arte. Gaur goizean, ohe berean esnatu zarete.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

(4) Aurreko bertsoaldian manikiak izan ziren Erika Lagoma eta Maddalen Arzallus.

On. Enbeita: Ai ama! Ene ama
zetan hasi garen!
Paperak galtzen goaz
ganera nabarmen
baina behingoatik
probatu dot hemen
bizarbako mosuak
ze gozoak diren! (bis)

E. Lagoma: Zerua ireki omen
zaizu ba gaur bertan
ta nik senarra ikusi
nahi nuke ja bueltan
benetan harrituta
nago-ta penetan
nik maite zaitut baina
ez modu honetan. (bis)

On. Enbeita: Gaba batean gara
biok hemen urtu
ez nekien zer egin
itxi edo gurtu.
Ez deusut gura hemen
ezer erregutu
baina ez dakit berandu
ez zaren damutu. (bis)

E. Lagoma: Ez naiz damutzen baina
ez dauka segida
behin gertatu den arren
ahaztu nahi dut tira!
Nahiago dut lagunen
egizko dizdira:
maitale denak ti-ta
desagertzen dira. (bis)

On. Enbeita: Tragika jarri zara
holan bapatean
atzoko pasinoa
pasau jakunean.
Ni desagertu neike
goizero aidean
baina bueltatuko naz
zeuk nahi dozunean. (bis)

E. Lagoma: Nere ondoan nahi zaitut
ta beti laguna
harrigarri izan da
geronen jarduna.
Baina nik galdera bat
dut ta da eguna:
Onintza zer da nigan
maitatzen duzuna? (bis)

On. Enbeita: Ni ez nago seguru
zer dan maitatzea
baina gaur maitatu dot
zugaz esnatzea
senarraren lekuan
kolpetik jartzea
ta maitatu dot zure
bozina jotzea. (bis)

E. Lagoma: Bozina jotzeko gaur
izan dut aukera
nahiz ta maitatzen dudan
gaur zure hizkera.
Senarra maite duzu
hori da afera
eta ez dut izan nahi
bigarren platera. (bis)

IGORRE (2009-03-19)

*Bertsolariak: I. Elortza, J. Maia, A. Mendiluze,
A. Egaña, A. Arzallus eta U. Iturriaga.*

Gai-emailea: Saioa Amuriza.

Sanjosetako jaialdia, aspaldidanik egiten dena Arratian. Arratsaldean izan zen, entzule asko elkartu zen Igorreko Kultur Etxeko Lasarte aretoan bertsolariak entzutera, eta gogotik txalotu zuten haien lana.

J. Maia-A. Egaña

Gaia: Zu, Jon, lotan zaude, ametsetan. Urrunetik habanera doinuak entzuten dira, baina amets horrek amaiera txarra dauka. Zure ametsen amaiera, zati txarra, Andoni Egaña da.

Neurria: Hamaseiko berdina zortzi puntuz
Doinua: *Baserrian jaiotzen/ Habanera*

Oharra: Habanera erdika aritu ziren.

J. Maia: Azken agurra dirudi
aurrean jendetza itzela
atmosfera kargatua
BECen bageunde bezela
kontentu ta irripartsu
esaterako honela
baina han nun ikusten den
atzetik bat datorrela.

A.Egaña: Ni naiz bere amesgaizto
gaiztoa eta krudela
Jon Maiari zorionik
ez diona opa bela.
Jon ez zak kanta holatsu
kantatu ezak bestela
Igorrek jantzi behar dik
Euskal Herriko txapela.

J. Maia: Orain hondartza batean
Karibekoen neurriko
palmera azpiko grisa
beti izan dut begiko.
Neska batengana noa
sendo ta pauso haundiko
eta atzean tipo bat
“Kendu paretik txikito!”.

A. Egaña: Neskarentzat ez haiz ezer
eta mutilantzat mito
Jon hobe dek suizidatu
Karibeko uretan ito
neskak aldegin egin dik
ez haiz negarrez hasiko
baina bizitza honetan
ez duk gehiago ikusiko.

J. Maia: Egun luze bat izan da.
Ene ze atarramendu!
Banoa etxera bidean
burua ezin mantendu.
Nere Zumaia maitea
pausoa azkar zuzendu
han nengola uste nuen
kartelan Zarautz jartzen du.

A. Egaña: Ta frenadaz pasa gera
hori burutik nork kendu?
Jon Maia behar zenuke
horrenbeste pulamendu
zentzuna eta kordea
pertsonek denek zimendu
baina ez zinake Jon Maia
horietatikan bazendu.

J. Maia: Athleticaren finala
ta hau da Mestalla bera
atzean bederatzia
eta soinean bandera.
Korner bat atera dute
banoa rematatzera
ta defentsa burusoil bat
han nun sartu dan tartera!

A. Egaña: Buruzko errematea
dirigitu du postera.
Baloiak zutoina jo du
barrura doa ostera.
Jadanik “Gol! Gol! Gol!” berbak
entzun ditzake. Ospera!
Despertadoreak jo du
ta esnatu egin zera.

ELIZONDO (2009-03-21)

Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Txapeldunaren agurra

X. Silveira

Neurria: Hamaseiko berdina 8 puntuz

Doinua: *Gure herri ttiki hau da*

Itxura denez gainditu
dugu gaurko azterketa.
Julio kabroiak urduri
euki nau ea zer gerta.
Baina txapel honek dauzka
helburutzat lau pareta:
Ittur, Santx, Porttu ta Mattin
zuentzat bihotz hau beteta
zuentzat nere txapela
zuentzat nere txapelketa
zuentzat gaurko bertsoen
eta txaloen fereka
maite zaituztegulako
pila, pila, pila eta
maite zaituztegulako
ilargiraino eta buelta. (bis)

ATAUN (2009-03-28)

Bertsolariak: M. Arrillaga, M. Artetxe, U. Egaña, B. Gaztelumendi, A. Barandiaran eta E. Zelaia.

Gai-emaileak: Iker Iriarte eta Egoitz Aizpuru.

Ataungo Korrika Batzordeak antolaturiko jaialdia. Antzokian izan zen, gaueko hamarretan. Bertsoaldi batzuetan musikaren laguntza izan zuten. Gai-jartzaileek hainbat gai inprobisatu zituzten publikoak aukeratutako hitzekin.

M. Arrillaga-U. Egaña

Gaia: Ez duzue sexu esperientziarik eduki, daukazuen adin honetan.
Mikel arduratuta dago, eta Urkori berdina zaio.⁵

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Oihan beltzean zoinen eder den*

M. Arrillaga: Gure Aloña⁶ hasi zaigunez
erasorako planean
ni kezkatuta nagola esanez
hasi behar naiz lanean
ta zuk ere ez disimulatu
jokatu modu xumean
bertsolaria ere aspertzen da
beti bakarka lanean. (bis)

(5) Entzuleek “adina” eta “sexua” hitzak hautatu zituzten, eta hitz horiekin sortu zuten gai-jartzaileek gai hau.

(6) Hitzak hautatu zituen entzulea.

- U. Egaña: Bertsoa aitzaki hartuta aspaldi
lasai antxean gabiltza
esan liteke daramagula
solteroaren bizitza.
Zu estu zabiltz eta kolpetik
ez dizut kenduko hitza
ni ere estu egongo nintzan
zu izan baldin banintza.
- M. Arrillaga: Bai estu nago ez det ukatzen
ez naiz joango urrutira
neska kontutan ez det atera
behar dan beste distira
larunbatero saiatzen naiz ni
ez naiz egoten begira
baina azkenean guapoagoekin
gustorago joaten dira. (bis)
- U. Egaña: Proposamen bat daukat zuretzat
berri-berria eskutan:
ligatu nahian baldin bazabiltz
aukera dezun ordutan
disimulatzen saiatu zaitez
gutxienikan batzutan
eta ligatzen saiatu zaite
argirik ez den lekutan. (bis)
- M. Arrillaga: Zuk ere ez dezu ligatzen Urko
egunero-egunero
baina patxadaz ikusten zaitut
zu zara zu majadero!
Argiarenaz hitza hartzen dizut
eta jarri nauzu bero
ta arrakasta izango al dut
horra bajatu ezker? (bis)
- U. Egaña: Baina ikusi zaituzte eta
ez dizute kaso ein behar
zuk nahi badezu ein propaganda
egin ezaiezu diar
nere partetik nik ez dut zertan
egon larri ta in negar
dakidalako nik ligatuko
dudala gaur edo bihar. (bis)

BERGARA (2009-04-03)

*Bertsolariak: A. Arzallus, U. Iturriaga,
M. Arzallus, J.M. Irazu eta M. Lujanbio.*

Gai-emailea: Enaitz Alustiza.

Erramu zapatuaren bezperako jaialdia, gauean izan zen, herriko pilotalekuan. Saio polita atera zen, eta gozatu ederra hartu zuten saioa entzutera inguratu ziren bertsozaleek.

A. Arzallus-U. Iturriaga

Gaia: Azkenaldian ingelesezko esaldi bat behin baino gehiagotan entzuten dugu: *Think global act local*. Horrek esan nahi du mundu ikuspegiarekin pentsatzeko eta gero gure inguruan aplikatzeko. Amets, zelan egiten da mundu ikuspegiz pentsatze hori? Unai, zelan aplikatzen da gure inguruan?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zazpi ahizparen gai den oihala*

A. Arzallus: Begira zazu goseak hiltzen
 nola dagoen Afrika
 Amerikatik hasi omen da
 husten munduko patrika...
 Halaxe bizi behar genuke
 urrutira so jarrita
 ikuspegia mundura baina
 telebista itzalita.

- U. Iturriaga: Itzali eta ez iragarki
politén amuan jausi
ze badirudi egin leikela
gastatu ta irabazi.
Oreka baten hemen ta Afrikan
nahi baldin badugu bizi
Eroskira gutxiagotan joan ta
baserritarrei erosi.
- A. Arzallus: Begira zazu Palestinako
haurtxoen negar zotina
edota turko ume txikien
bizi nahia ta ezina.
Izan gertuan nahiz urrutian
Unai mina beti mina
eta agian gure etxean
dago arazo berdina.
- U. Iturriaga: Nahiz ta hemen gosea ez dugun
aspaldi eguneko lege
nirfa borroka nahiko badago
erantzun eta botere.
Kanpoko urrutiko errukiz
ez bizi baina alafede
heldu artean konpondu ezkeru
umeentzat ere mesede.
- A. Arzallus: Ta pelikula bati begira
nengoen lehengo batean
El Gran Dictador Hitler zebilen
munduan jolas batean.
Mundua txiki-txikia zela
oharturik bapatean
mundu osoa kabi liteke
gure eskuen artean.
- U. Iturriaga: Ordu asko joaten zaizkigu
lehengo garaiez hizketan
ta horra Hitler ikono bat da
ikono ikonoetan.
Baina egunero irakurtzen da
prentsako orrialdeetan
diktadore haundi asko dago
gure etxe txikietan.

- A. Arzallus: Bagdaden noiznahi esaten dute
lau bonba eta gehiago
eta agian besteren batzuk
Afganistanen nahiago.
Baina pentsatu zer den mundua
pentsatu zer den Durango
zuen herrian ere bonbaren
arrasto txiki bat dago.
- U. Iturriaga: Hirurogeita hamabi urte
aurtengo honetan joan dira
zoritxarrez bonbaketen gaia
egungoa da argi da.
Afganistan ta Irak urrun daude
adibide dira. Tira!
Hara doazen mina ugari
Gasteizen egiten dira.
- A. Arzallus: Nahiz ta aitortu kexu naizela
mundu osoko aferaz
hemen edo han pertsonen kontra
erabiltzen den maneraz
mundu osoko ikuspegiak
engainatzen gaitu erraz
think global egin behar da baina
ahal baldin bada euskeraz.
- U. Iturriaga: Gureari eutsi nahi diogu
ez beste inori kendu
euren parean lehiatzeko gai
baina tresnarik bagendu.
Eguneroko lana ez dute
telebistan nabarmendu
Bergaran badago elkarte bat
ta egunero jarduten du.⁷

(7) Jardun izena du Bergarako euskara elkarteak.

M. Lujanbio

Gaia: 90eko hamarkadako eskolarteko txapelketen liburuak begiratzen aritu naiz, eta ohartu naiz sarritan agertzen zarela, sarritan irabazi zenuela txapela, eta sariak ematen bertsolari nagusiak aritzen direla, Joxe Lizaso, besteak beste. Hementxe ageri da Joxe, zuetako bati saria ematen⁸.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Sentimentua sartu zitzaidan*

Nabarmendu nahi ta sonatu nahi
gauza normalak bizitzan
bertsolariek ordea jakin
ze kontuetan zebiltzan
eta ez dira lotsatu inoiz
izan haundinahien gisan
beren gogo ta helburua
baitzegon bertsolaritzan
beren lekua partekatzeko
beldurrik ez dute izan. (bis)

Sarriegi da mutil gaztea
jarri zaitezte begira:
denon gixara izango zuen
bertsotarako desira
eskuk patrikan lepoa gora
ta zirrararen dizdira
ondo irten ta bere bidea
egingo zuen sarira
eta Lizasok eman saria
horiek bi sari dira. (bis)

Ta gero Joxek botako zitun
bertsoak bi edo hiru
mikrofonotik urruti ere
gu ahotsaren testigu.
Joxe izena gaur eztarritik
latz kostata doakigu.
Bera joan zan baina bidea
segitzen bai baitakigu
eten ez zuten kateari eusten
orain guri dagokigu. (bis)

(8) Liburua zabaldua eman dio eskura, eta hura eskuetan duela kantatu du Lujanbiok.

GASTEIZ (2009-04-04)

Arabako txapeldunaren agurra

O. Perea

Neurria: Hamaseiko berdina 8 puntuz

Doinua: *Baserrian jaio nintzan / Habanera*

Nahiz ta ez naizen kristaua
hau behar dut bataiatu.
Zenbat Iñaki gaude hemen?
Zuen eskua altxatu.
Mendiguren bat zor dizut
iaztik ez zait ahaztu
ta Olalde ongi etorri!
eta Víñaspre aupatu.
Baina hau ez dut botako
hau behar dut etxeratu
etxean daukadan haren
ondoan nahi dut iltzatu
nere lagunik onena
gure etxeko teilatu
zu gabe nere bizona
ezin dut imajinatu.

ZEGAMA (2009-04-05)

*Bertsolariak: J.M. Irazu, A. Egaña,
A. Mendiluze, A. Agirre, I. Zubeldia eta
A. Arzallus.*

Gai-emailea: Egoitz Aizpuru.

Zegaman aspaldidanik egiten den jaialdia, azken urteetan Erlezainen Egunaren bueltan antolatzen dute. Igande arratsaldean izan zen, eta jende asko elkartu zen herriko pilotalekuan bertsolariak entzuztera.

A. Mendiluze

Gaia: Politikak asko markatzen ditu jendearen harremanak, eta Euskal Herrian igual berezia izango da egoera hori. Eta harreman horiek, elkar ikusi ezinak, herri txikietan oso nabarmenak izaten dira. Benetan merezi du politika lehen mailan eta harremanak bigarren mailan jartzea?

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Gaztalondo handian*

Politikak odola
jartzen du borboraka
eta gero atzetik
dakarren soka!
Ustez arrazoi izan
ta goitik igota
besteak ba al zuen
ez zaigu inporta.
Ideien borroka
ideien porrota
zertan elkar joka
jardun ez dago-ta
alde ez dagoena
ez dago kontra. (bis)

Norbere buruari
zenbat amodio!
Besterentzat ez degu
beti desio.
Iritzien kontura
hamaika sesio!
Geurea bilakatzen
zaigu obsesio.
Broman nahiz serio
hizketa medio
saiatu. Dedio!
Edo ez du balio?
Baten hitzai besteak
hitza zor dio. (bis)

Herritarrekin xextra
nik ez det atsegin
bestela konpontzeko
zenbat ahalegin!
Ahal badegu beltz zena
jar dezagun urdin
eta saiatu noizbait
zuri izan dedin.
Denei hainbeste min
zergatik eragin?
Berdin nahiz desberdin
saia gaitzen fin
borroka egin ordez
herri bat egin. (bis)

J.M. Irazu-A. Egaña

Gaia: Bi aita, baina adin desberdinetako semea daukazue. Gaur gauean ere lo gutxi egin duzue. Jexux Marik semea negarrez izan du eta hura kontsolatu ezinik pasatu du gau guztia; Andoni ere esnatuta egonda, semea parrandatik noiz etorriko.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

J.M. Irazu: Aita izatea ez da xamurra
 Andoni ematen det hitza.
 Gastroenteritis harrapatuta
 urratua tripa mintza
 negar ta negar lo hartu ezinik
 nola sendatuko gaitza?
 Neronek ere nahiago nuen
 parrandara juan banitza!

A. Egaña: Ba nere etxean aspaldi hontan
 gu ere igualtsu gabiltz
 ze berarentzat alperrik dira
 hainbeste ordu eta hitz.
 Atzo gauean neroni ere
 lotik ibili naiz murriz.
 Nahiago nuen lauetan ordez
 seietan bueltatu banintz!

J.M. Irazu: Ordun zu ere batere garaiz
 ez zinan juan etxera.
 Semia berriz ez da ausartzen
 seiak baino lehen sartzera.
 Zu beldurtuta kezkatu xamar
 aita gehienen antzera
 pentsatu zazu zu zerala ta
 ordun lasaituko zera!

- A. Egaña: Nola nabilen jakiten det nik
ta horrenbestean tira!
Baina gaur gauez bi ordu hoiek
ze pena ta ze desira!
Lau ta erdiak bost eta erdiak
gelan relojuan di-da
beste baten zai gauden uneetan
orduak luzeak dira.
- J.M. Irazu: Besteren zai ta orduak luze
ezin besterik espero.
Nere semeak zortzi hilabete
ta birus baten bezero
tripa ondoezik eta ni ere
ez nun besterik espero
zure semeak tripako mina
izango du baina gero.
- A. Egaña: Seirak bost gutxin nik pilpil neukan
sabel aldeko kaldera...
Komedoretik orduntxe juan naiz
gure logela aldera
eta andreak zera esan dit
“ Ez hadi kezkatu keba!
Gaur Julen ez dek atera eta
motel sartu hai ohera!”.

A. Agirre

Gaia: Urte asko pasatu dira azken orgasmo hura izan zenuenetik.

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Ai zer plazera bost urten buruan*

Hamasei urte bete berriak
ta mutil batekin ihes
esperientzia eza gidari
ta barne izua juez.
Kotxe batean ze deseroso
nahiz haundia gendun aurrez
berak agindu ta nik jarraitu
banuen nahikoa babes.
Baina geroztik sexuak ez dit
sortu hainbeste interes.
Hiztegietan zer den badakit
baina nere soinean ez.

Prekuziorik hartu ez eta
aritu ginen zirt ta zart...
Oroitzapenak berritu zaizkit
umeari begira bart.
Geroztik mutil haren ondoan
ni gaizki nabil erabat
erru guztia nerea omen
ta ez nindun hartu aintzat.
Baina orandik ohekide det
nahiz ta ez juzgatu ontzat.
Hanka zabalik hartzen det baina
bihotza itxita daukat.

Baina umorez segi nahi nuke
gaur Zegamako partean
bertsotan nabil nere gisara
txaloen eskaparatean
Amaia, Amaia baita barrutik
ez berarentzat kaltean
orduko hura utzi nezake
txokoan edo apartean.
Gaur orgasmo bat senti nezake
bertsoz eta bapatean
barruan zerbait sentitzen baitet
bi txapeldunen artean.

ZUMAIA (2009-04-17)

*Bertsolariak: B. Gaztelumendi, A. Arzallus,
M. Arzallus, A. Estiballes, S. Lizaso eta
A. Egaña.*

Gai-emailea: Jon Maia.

San Telmo jaien hasieran urtero egiten den saioa. Aita Mari zine-
man, sarrera 8 euro. Aretoa erabat beterik eta giro ezin hobea. Horrek
asko erraztu zuen entzule eta bertsolarien arteko komunikazioa eta
saio ona atera zen.

*B. Gaztelumendi-A. Arzallus-M. Arzallus-
A. Estiballes-S. Lizaso-A. Egaña*

Gaia: Euskal Herriak garai desberdinak ezagutu ditu, eta beti egon da
bertsolaria hor, beti izan da bertsolaria garai bakoitzean eta garai
bakoitzari kantatzeko. Orain, badirudi Euskal Herria garai berri
batera sartzerako doala; politikoki nobedade handiak datoz, gizartea
ere aldatzen ari da. Zer funtzio dauka bertsolariak Euskal Herri
honetan? Zer da bertsolari izatea Euskal Herri honetan?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

- A. Estiballes: Jonek esan du badatorrela
aldaketa nabarmena.
Horrek ez digu ezer konpontzen
hori da hemen txarrena.
Bertsolariak funtzio bera
izan behar du hurrena:
beldurrik gabe beti esatea
berak pentsatzen duena. (bis)
- A. Egaña: Nahiz podererik zail dan aldatzen
gure hitzarekin jota
bohemiari eutsi beharko
ez baldin badu inporta.
Bertsolariak bere gain badu
hamaika funtzio mota...
Bide ertzean jarri ta handik
harri txintzar batzuk bota.(bis)
- S. Lizaso: Mundualdi hau aldatzen doa
uka ez leiken aitortza
nahiz ta mudantza batzuentzako
gerta litekeen mingotsa.
Bertsolariak zer toki daukan?
Horra sententzi zorrotza:
bertsolariak izan behar du
herri xehearen ahotsa. (bis)
- A. Arzallus: Ta batzutan da ipar haizea
beste batzutan kresala
mendirik ezin dut nik mugitu
ezta itsaso zabala
olaturik'e ez da sortuko
nik bertso bat bota ahala
baina tanta bat hor utziko dut
nahi duenak har dezala. (bis)
- B. Gaztelumendi: Nahiz gure tanta sarritan izan
beste batzuen islada
bertsolaria beste zerbaiten
ordezkaria al da ba?
Gure lana da gure usteak
ekartzea oholtzara
ta kantatua digeritzea
hori ja zuen lana da. (bis)

M. Arzallus: Bertso simple bat kantatzeko da
mila forma mila modu
batzutan dena nahastuko du
eta besteetan konpondu.
Bertsolaria bertsolari da
berdin da nun ta ze ordu.
Inork entzun nahi duen artean
funtzio bat izango du.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

A. Estiballes: Aldaketarik Gobernu honek
niretzako dakar nekez
baina zeozer aldatuko da
hauen bertsoak entzunez.
Andonik behintzat bidea bete
nahi zien harri txintzarrez...
Lehenengo aldiz ikusi dut nik
harriak botatzeko prest.

A. Egaña: Herri xeheak izan behar du
gure txingar gure brasa
herri xeheak ur irakina
eta ur horren arnasa.
Intelektualki komeni ordea
apartexioko traza
baño marian egote hori
beti ez da hain erraza.

S. Lizaso: Oraingo martxan herriarentzat
zer etorkizun goibela
modan baitaude paktoak eta
sinatutako papela.
Iruditzen zait bertsolaritza
oraindik premizko dela
erakusteko oraindik ere
hitzak balio duela.

A. Arzallus: Ta esperantza Ametsen tanta
ikusirikan mudantza
ta esperantzak esperoa du
beroa baina garratza
ta esperantzak arantza bat du
larrosa baten arantza...
Espabilatzen hasiko garen
hortan daukat esperantza.

B. Gaztelumendi: Beraz norbaiti aurreratzeko
behar diogu erregu
baino hogeita hamar urteetan
hemen hainbeste ernegu!
Orain hitz egin gero hitz egin
eta nora gera heldu?
Lehendikan ere gure herrian
gehiegi hitz egin degu.

M. Arzallus: Orain ez nabil oso seguru
burua daukat bueltaka
buruzagitza berria dator
zaharrak egin du hanka.
Bertsolaria izatea da
astakeria galanta
igual oraingo lehendakaria
bertsotan hasiko da-ta!

ABADIÑO (MATIENA) (2009-04-25)

*Bertsolariak: I. Elortza, S. Colina,
Mañukorta eta X. Paya.*

Gai-emailea: Maite Berriozabal.

San Prudentzio jaiak ospatzen dituzte Matiena auzoan, eta aspaldiko ohitura dute bertso saioa antolatzea. Kultur etxean izan zen, gaueko hamar eta erdietan.

S. Colina-X. Paya

Gaia: Cegasa enpresako beharginak zarete. Zuen lan egoera txarra dela eta, erabaki duzue ibilaldi bat egitea Oñatitik Gasteizera. Gasteizen bizi da Cegasako nagusia. Hartu dituzue behar dituzuen gauza guztiak eta ekin diozue bideari.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Nere gogoa hegan dijoa*

X. Paya: Gure jefea ondo bizi da
 goxo-goxo kuko-kuko
 ta guri esan digu “Lan egin
 eta isildu ta punto!”
 Ba ibilaldi bat egingo dogu
 eta berba hauek lekuko
 ta Duracellgo konejuak lez
 ez gaitu ezerk geldituko.

- S. Colina: Oñatitikan Gasteizeraino
badago nahiko asfalto
ta gu protestan joango gara
pausoz pauso saltoz salto
oinetakoak gastatzen dira
eta pentsatu beharko
diru gehiorik ez baitaukagu
zapata berritarako.
- X. Paya: Baina hala ere irten behar dugu
biok batera kalera
ea horrela piztu daikegun
nagusiaren kolera.
Pilak egin ta egin gabiltza
egun batetik bestera
ta Gasteizera joan behar dugu
berari pilak jartzera.
- S. Colina: Gasteizeraino joango gara
Oñatitikan irtenda
dagoeneko kontratu danak
dauzkagulako etenda
baina alperrik joango gara
bidez bide xendaz xenda
gure nagusi burgeskumea
autopistatik joaten da.
- X. Paya: Berez ez dakit nagusia den
edo eta banpiroa
edozein gauza izan ahal baita
despidoko motiboa.
Horrek ordea ikusiko du
proletarion giroa
ta ikasiko du positiboak
badula negatiboa.

S. Colina: Nahiago nuke gure nausiak
esango balu horrela
baina uste dut gure gainetik
lasai-lasai dabilela.
Etsipenean hauxe otu zait
Gasteizera goazela:
gure ibilbide luze-luze hau
zirkuitu labur bat dela.

X. Paya: Baina zirkuito honetan ere
aukerak badira hainbat
pilak egiten pasatu arren
gure bizitza erabat
hara joan ta entzun behar du
geure ugazaba jaunak
harentzat soilik daukagulako
aldarrikapen pila bat.

S. Colina: Aldarrikapen hoiek ordea
nun daukate erantzuna?
Pausorik pauso belzten ari da
gu bion etorkizuna.
Eskatzen dugu politikoen
esku-hartze ta jarduna.
Ea ba Patxik egiten duen
Juan Joxek egin ez duna!

BILBO (2009-05-09)

*Bertsolariak: A. Egaña, S. Lizaso,
S. Colina eta B. Gaztelumendi.*

Gai-emailea: Urtzi Urrutikoetxea.

Santutxuko Bertso Eskolak udaberrian urtero antolatzen dituen saioetako lehena. Karmelo plazan, eguerdiko ordu batean, entzule asko, berrehunen bat lagun. Saio txukuna atera zen. Aktualitatearekin loturiko hainbat gai jarri zituen Urtzik.

S. Lizaso-B. Gaztelumendi

Gaia: Zuek enpresa berean aritu zarete lanean orain dela gutxi arte, eta biok kalean geratu zarete, urte asko enpresan eman ostean. Langabezi saria daukazue urte birako. Zuk, Beñat, behingoz garaia heldu dela pentsatu, eta bidaiatzeko gogoia daukazu. Gero pentsatuko duzu lan berria aurkitu edo ez. Zuk, Sebastian, berehala lana aurkitu nahi duzu.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

B. Gaztelumendi: Hogei urteetan enpresa baten
ito beharrez egona
orain kanpora bidali naute
gertatua ez da broma!
Baina munduan ibili nahi det
pozik hara eta hona
gauza txarrenei bilatu behar
zaielako alde ona.

S. Lizaso: Hainbat urtean eta lanean
gorputzari zer pasada!
Langabezian ta harritzeko
zuk dadukazun patxada.
Soldata honekin hilabetea
itxuraz ezin pasa da
ta nik bidaia lan bila daukat
enpresatik enpresara.

B. Gaztelumendi: Beraz enpresa batean pasa
nahiko zenuke biharra.
Hogei urteetan kendu digute
barruan genun indarra
eta hala're berriz barruan
lanean hasteko harra
lana al da ba bizitza hontan
balio duen bakarra?

S. Lizaso: Lanaz aparte aurki daitezke
mila arrazoi sakonak
lanik gabeak baditu beti
berekin ezinegonak
eta lanetik lortu beharra
eguneroko txanponak.
Arrazoiaren faltarik ez zun
beharra deitu zionak!

B. Gaztelumendi: Baino beharra zerorrek sortu
ez al dezu alafede?
Gutxi izan ta gehio izatea
omen dezu gizalege.
Langabezian bizi nahi det nik
bi urtez baita mesede.
Guri lapurtu diguten aina
lapur dezagun guk ere!

S. Lizaso: Horretarako behar ordea
balore ta ausardia!
Nik lehen bezela jornalari bila
atera nahi izerdia.
Lehen asko eta gehiago behar
hori zure komeria
nik lehendik gutxi kobratzen nuen
orain gutxiren erdia.

B. Gaztelumendi: Ta horregatik berriz lanean
hasi nahi zenuke klaro
langabezitik lanera ahalik
eta azkarren igaro.
Krisi garaian esplotatzea
ere ordea modan dago.
Lehenago gutxi bizi zinen zu
eta orain gutxiago.

S. Lizaso: Nik lanerako ez daukat aizu
zuk diozun hainbat gogo!
Egin gabeen soldatarik ez
etorkizuna akabo!
Eta nik lana bilatu behar
berandu baino lehenago.
Lehen esplotatu eiten ninduten
oin ia lehertua nago!

S.- Colina-A. Egaña

Gaia: Sustrai Patxi Lopez izango da, eta Andoni Montilla. Mestallako palkoan batu zarete. Montillak Esquerra Republicanarekin dauka ituna eginda, eta aste honetan esan dutenez, gaztelaniako klaseak ordubete gutxiagoz emango dira aurrerantzean, katalana gehiago bultzatuko da. Patxik, berriz, PPrekin egin berri du tratua.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Espanian behera*

S. Colina: Partido berekoak
elkarren ezagun
Mestallako palkoan
bildu gara egun.
Nahiz ta gaur arte ginen
gu elkarren kuttun
jarraituko badugu
betirako lagun
hemen futbolai buruz
hitz egin dezagun. (bis)

A. Egaña: Jokalariak orain
zelairaino irten
emaitza aurretikan
zaila da jakiten.
Nere buruai ai naiz
orain eragiten...
Erakutsiko dizut
Patxi astakirten
bai futbolaz eta bai
paktuak egiten. (bis)

S. Colina: Beraz zelaian jarri
duzu zure mira
alde haundia dago
Veleztik Messira.
Futbola politika
ez ote da? Tira!
Euskadi rendituko
baitut Espainira
zuek segi zazute
Europai begira. (bis)

A. Egaña: Zuen zentral pare
ez da mundiala:
Amorebieta gazte
Ocio txakala
zelai erdia ere
beti nola hala
Toquero da bixkorra
baina ez da bala
fuerte duzuen da
eskuin hegala. (bis)

S. Colina: Bejondeizula lagun!
Zuzen ari zera
baina hola iritsi
leike urrunera
ta ez marko hau dugun
marko zurrunera.
Baloia bota ezker
eskuin hegala
batzuetan zelaitik
ateratzen gera. (bis)

A. Egaña: PPrekin eginak
paktu bat txepela
Euskal Herria galdu
liteke horrela.
Pentsatu aldaketa
etorriko dela
jokalariak ere
oso laister, bela
denak errioxarrak
Llorente bezela. (bis)

ERRENTERIA (2009-05-16)

Bertsolariak: J. Agirre eta J.L. Gorrotxategi.

Gai-emailea: Arkaitz Oairtzabal Xamoa.

Oreretako Zamalbide auzoko Auzolan Elkartean urtero egiten den bertso bazkaria. Joxe Lizasok askotan kantatu izan du bertan, eta Xamoak kontu hori aipatu zien.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Bertso polit bat kantatuko det*

J. Agirre: Joxe Lizaso etorri zan bai
 honuntz denbora luzean
 baita bertsotan saiatu ere
 saiatu behar zan klasean.
 Oraindik oino arnasa juan
 jarri zan bizi ezean.
 Zeruko Aitak gorde dezala
 orain bere babesean!

J.L. Gorrotxategi: Ezaguna zan herri osoan
 ta ezaguna zan plazan
 gerra ostean eraso batzuk
 ere zituen erasan
 baina nunahi ta beti portatu
 abertzale zintzo gisan
 makinatxo bat lan egin eta
 lanik eman gabe hil zan.

J. Agirre: Harek bazuan herri batean
errespetu ta itzala
horrez gainera lagun artean
ondradu ta zerbitzala.
Berriro ere egunen baten
alkarganatu gaitzala
ta bitartean gure bertsoak
zerutik entzun ditzala.

J.L. Gorrotxategi: Zezenan beldurrik ez zuen hark
bere sasoi onenean
Iberdueron'e atsedean gabe
hor ibili zan lanean
ta txoritxo bat balitz bezela
agurtu zan azkenean.
Sasoi guztiak soberan daude
ordua datorrenean.

J. Agirre: Arrazoi dezu garai horretan
ez dala izango bromik
horrek ez baitu errespetatzen
ez txarrik eta ez onik.
Mundu honetan ez da sortuko
andrerik eta gizonik
heriotzari datorrenean
kontra egingo dionik.

BILBO (2009-05-22)

Bertsolariak: J. Agirre, A. Illaro, Loidisaletxe, Sorozabal, O. Perea, J. Soto, U. Iturriaga, O. Aizpurua, L. Ibarluzea, A. Mendiluze, J. Uria, F. Goiburu, P. Iraola, E. Igartzabal, X. Zeberio, A. Sarriegi, I. Murua, I. Zubeldia, M. Mendizabal, A. Agirre, H. Casabal, I. Elortza, J. Martin, On. Enbeita, S. Lizaso, I. Lazkano, A.M. Peñagarikano eta A. Estiballes.

Aurkezlea: Amaia Uribe.

Gai-emaileak: Amaia Uribe, Joxerra Garzia⁹, Saroi Jauregi, Arantxa Hirigoien, Josu Goikoetxea eta Iñigo Aiestaran.

Hitzetik Hortzera programaren 20. urteurrena ospatzeko ekitaldia. Bilboko Kafe Antzokian izan zen, ostiral ilunabarrean. Amaia Uribe gidari zela, hainbat bertsolari eta gai-emaile igaro ziren oholtza gainetik, bideo eta argazki zenbait erakutsi ziren oholtzan zintzilikaturiko pantaila erraldoian, eta ETBren ordezkari Joxe Mari Oterminek eta Bertsozale Elkartearen presidente Iñaki Muruak hitzaldi bana eskaini zuten. Jaialdiaren ostean *luncha* eta parranda.

A. Illaro-J. Uria

Gaia: Orain ikusiko ditugun argazkietan ohartuko gara nola aldatu den bertsolaritza. Garai batean, eta luzaro gainera, gizonen afera zen, gizonek bakarrik parte hartzen baitzuten saltsa horretan. Baina zorionez, egun, gero eta emazte gehiago entzuten eta ikusten ditugu plazan kantari. ¹⁰

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz

Doinua: *Sorlekua utziz geroz*

J. Uria: Hogei urte bete eta
 Antzokian ospatzeko
 esan ziguten ia prest
 geunden hemen kantatzeko.
 Orain badakit deitu zigunak
 erdi serio antzeko
 zergatik esan zigun ahal bazen
 gonarik ez ekartzeko.

A. Illaro: Baina beitu argazkia
 ai ene zenbat kontraste!
 Entzule emakumerik
 dagoenik ez dut uste
 ta orain berriz hemen ditugu
 hainbat neska ez hain gazte
 ta eurek ere seme-alabak
 berdin maitatzen dituzte.

J. Uria: Garaiak aldatu dira
 badakizue, badakit
 neskak plazara irtenda
 ere izan zuten lanik
 eta ordutik ere denbora
 pasatu zaigu jadanik
 baina beldur naiz beraien saltsan
 ez ote gauden oraindik.

*(9) Joxerra Garzia ez zen ekitaldian izan. Bideoaren bidez entzun genituen haren hitzak.
(10)Txapel eta Zepai ageri ziren hiru argazki erakutsi zituzten atzeko pantailan.
“Bersolaris en su salsa” jartzen zuen argazkiaren goiburuan, eta bi bertsolariak ber-
tsotan ari ziren, aulkiari buelta emanda eta hankak zabalik, inguruan jende mordoa
zutela. Arratek eta Jonek ere aulkietan eserita kantatu zuten, argazkiko bertsolarien
jarrera berean, eta mikrofonorik gabe. Baina bina bertso bota ondoren, aulkiari buelta
eman eta ohiko jarreran eseri ziren, eta kasu honetan hankak gurutzaturik.*

A. Illaro: Jone lasaitu aspaldi
heldu zen-ta gure txanda!
Baina lasaituko gara
uste duguna esanda:
emakumeak gizonezko lez
mozorrotu ordeztan!
Euren lekua hartu nahi dugu
baina garena izanda.

J. Uria: Bai postura aldatzeko
nik ere neukan irrika.
Igual esango dudana
ez da izango polita:
nik eta ustez neskak nahiago
dugu horrela jarrita
begiak ondo zabalik baina
hanka artea itxita.

A. Illaro: Bukatzen joan beharko
dugu unean-unean
baina hau iltzatu nahi dut
entzuleen garunean:
berdintasuna izango dugu
bihar-etziko egunean
emakumeen gaia aipatu
beharrak ez dugunean.

DONOSTIA (2009-06-06)

*Bertsolariak: U. Alberdi, A. Arzallus, S. Colina,
A. Egaña, I. Murua eta X. Paya.*

Gai-emailea: Estitxu Eizagirre.

Argia astekariak antolatu zuen jaialdi hau, 90. urteurreneko ekitaldien barnean. Victoria Eugenia antzokian izan zen, iluntzeko zortzietan. Etxeko ahotsak izenburua eman zioten, Argiaren kolaboratzaile diren edo izan diren bertsolariek kantatu baitzuten. 1980. urtera arte eta azken urteotan argitara emandako hainbat bertso sorta kantatu zituen Eñaut Agirrek, Aitor Atxega eta Imanol Kamio musikarien laguntzarekin.

X. Paya-I. Murua

Gaia: Paya, zu, bidaia agentzia bateko nagusia zara. Murua bezeroa sartu da oraintxe zure agentzian. Murua da azkenaldian asko ugaritu den bezero mota horietako bat: beste urtetan adina bidaiatu nahi du, ahal den urrutiena, baina merke, ahalik eta merkeen.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen jauna*

- X. Paya: Egun on zuri! Hau da gizona
hau itxura dotorea!
Oporraldia heldu ta sortu
zaio honi umorea.
Zuretzat badut Brasilerako
biaje merke bat gordea
joana ziuerra eskeintzen dizut
etorria ez ordea.
- I. Murua: Irakasle naiz urte erdia
gutxienean daukat jai
ta horregatik Brasila edo
berdin zat joan noranahi.
Emaztea ta haurrak nerekin
beste pare bat lagun-gai.
Denak debalde. A ta ahaztu gabe
amaiarreba ere bai!
- X. Paya: Futbol talde bat sartu didazu
hegazkinean kolpera
maleta eta kontu hoiekin
ziur joango dela topera.
Brasilekoa ez zaizu bada
zuri gustatu sobera
ta ez al duzu nahi Mejikora joan
txerri-txuletak jatera?
- I. Murua: Txerri-txuletan ordez arkuma
kasi nahiago jatea
ta Mejiko ez Guantanamora
horixe det aldarrea.
Billeteak berak eman dizkigu
berak zabaldu atea.
Bakar-bakarrrik falta zaizu orain
zeu piloto juatea!

- X. Paya: Ni pilototzat hartu ezkerro
urrun daukagu Donosti!
Hobe zenuke lasai joatea
famiarekin noski.
Baina itxurari erreparatuz
ile urdindu baina ez gaizki
Benidorrera joan zaitezke
deskontutxo eta guzti.
- I. Murua: Hara're igual joango naiz bada
pasatzen badet kontrola
futbol taldea sartu dugu ta
sartuko dizugu gola.
Lehenengo hara ta ia suertean
aurkitzen degun tonbola
zuk ez dakizu amaiarreba
oain Benidorren dagola.

A. Arzallus

Gaia: Zure belaunaldia ekonomiaren aparretan hazitakoa da. Zuk apar horretatik ur gaziagoetara bidaiatu duzu, besteak beste Hego Ameriketara edo Palestinara. Orain, lan munduan sartzeko sasoian zaudenean, alde guztietan hitz bakarra entzuten da: krisia. Zer datorkio Ametsi burura krisia hitza entzuten duenean?

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*

“Auto bat nahi dut ezin erosi
hogeita hamar mila euro
etxe bat nahi dut ezin erosi
poltsa ez daukat hain bero
zazpi biaje egin nahi ditut
gutxienean urtero
izan nahi nuke astebururo
desfasatu parrandero...”
Krisian beti egongo gara
hola pentsatu ezkerro. (bis)

Pisu bat badut ez da haundia
paretak ez dauzka hain zahar
auto bat badut zaldi txikiko
ez da ibiltzen hain azkar
nere aitak badu baratzatxo bat
tomateak ematear...

Beraz krisirik ez da ibili
nere patriketan zehar
nik bizitzeko ez dudalako
askozaz gehiago behar. (bis)

Ta nola bizi kontsekuenteki
xumeki eta ondradu?

Nola gozatu haize epelaz
edo hogeita bost gradu?

Nola konpondu gure arazoak?

Bideren bat nola landu?

Munduko mahaian eseri eta
bakea nola bazkaldu?

Krisi sakon ta benetakoa
erantzunetan daukagu. (bis)



*Argiaren urteurrena
(Donostia, 2009-06-06)*

Iturria: Oihana Aranburu

HERNANI (2009-06-14)

*Bertsolariak: I. Zubeldia, M. Lujanbio, I. Elortza,
U. Alberdi, J. Agirre eta J. Soto.*

Gai-emailea: Aritz Zerain.

Sanantonio jaiak ospatzen dituzte Ereñotzun, eta aspaldidanik hitzordua izaten dute urtero bertsolariek hango plazan. Olak auzo elkar-teak antolatzen du saioa.

J. Agirre-I. Zubeldia 

Gaia: Krisiak Iker ere harrapatu du, eta langabezian gelditu da. Joxerekin adiskidantza baduenez, bere baserrian agertu da lanik ba ote duen galdezka. Joxek lana badu, baina zalantzak ere bai, eta egun pare batean proba egingo omen dio.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen jaunak*

I. Zubeldia: Krisi maltzur hau etorri dala
 jakina da honezkero.
 Ahal baldin bada izan nahi nuke
 zuen etxeko bezero
 baina agenda estua daukat
 kantuz nabil egunero
 ta ahal baldin bada hasi nahi nuke
 belarrak sartu ta gero.

J. Agirre: Ze demontretan hasiko zan hau
ia seguru nekian
orain artian defenditu da
lanik ein gabe tokian.
Orain krisisa etorri dala
ta estuasun larrian
baina nik ez dut morroi beharrik
lanik ez dagon garaian.

I. Zubeldia: Horrenbeste behi dauzka etxean
esatea komeni da
ta ikuiluan ez naiz hasiko
orain jira eta bira
zabaldu langak eta atea
bialdu danak mendira
ta elkarrekin joan gintezke
Ordiziako perira.

J. Agirre: Nere ustetan lana ikusi
nahi du honek ispiluan!
Buila galantak ateratze'itu
sekulako istiluan
gerri buelta ere ona dauka ta
lepua dauka *brilluan*
hau baino behin bat narratsagua
egongo da ikuiluan!

I. Zubeldia: Igual egia esango zendun
hortan ez daukat zalantzik
esan didazu nik badetela
behi dotore baten antzik
jana ematen motela zera
ta haiek ez dute gantzik
ni horrenbeste guarnau ezkerro
ez zan egongo narratsik.

- J. Agirre: Antzimate'izut kontuarekin
nola engainau nahi nauzun
lehenago ere pasea naiz ni
bakina bat estuasun.
Gainera ez dakit soldata ere
zenbatxo zuk nahiko dezun
pentsatutzen det galdetutzea
zenbat ordainduko'idazun.
- I. Zubeldia: Diru pixka bat izate hori
denok degunez gustoko
hala're lasai zifra haundikin
ez zaitut-eta itoko!
Zuk segi segan ta belarretan
ta ni kanturako pronto
aberastu ez zera eingo baina
asperrak ez zaitu joko.
- J. Agirre: Nahi bezelaxe pasatuko det
gazte maite zure broma
nere denboran ni ez naiz izan
lanik ein gabe egona.
Bertsotan sarri dabilen hura
netzat ez da morroi ona:
zurekin behera eroriko da
lehen balantxaka dagona.

MUTRIKU (2006-06-19)

*Bertsolariak: A. Agirreazaldegia, M. Arzallus,
E. Eizagirre, U. Muñoa eta U. Alberdi.*

Gai-emaileak: Egoitz Aizpuru eta Ixiar Eizagirre.

Generoaren gaiaren inguruan antolatutako saioa. Zabil kultur etxean izan zen, eta hogeita bost entzule elkartu ziren. Argiak itzali, kandelak piztu, eta musikaren laguntzaz, saio desberdina egin nahi izan zuten. Aurkezleek motxila pisutsu bat aurkeztu zuten hasieran, eta handik banan-banan ateratako objektuen bidez azaldu zituzten gaiak; eta motxila hustu ahala, generoaren “kezka motxila” arinduz joan zen.

U. Muñoa

Gaia: Kopa bat. Kopa beti ematen zaio lehenari, onenari. Txikitik gelako guapoena hintzen, egun koadrilako guapoena, seguruena, izaera gogorrekoa, fuertekoa, sekulako autoa erosi duk, ondo janzten haiz. Onena izan haiz. Futbolean ona, eskolan ona, lanean ere ondo ikusten haite. Hogeita bost urte onena izaten, eta pisua dauka onena izate horrek. Pertsona pertsonaia bihurtzen ari da azkenaldian; kosta egiten zaik onena izatea jende aurrean.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Agur sagar beltzeran*

Futbolan ona nintzen
onena gainera
paparra tente jarriz
noa neska artera...
Bizitzan egin dut nik
horrela aurrera
beti lehenengo mailan
gutxikin batera
eta hala're triste
posible ote da?

Ilea sobra daukat
ez nago gizona
neretzako mundua
ez da izan problema.
Hola nola jarraitu
munduan barrena?
Ez dut berriz izan nahi
inola onena
naizena naizelako
ez eiten detena.

Hogeita bost urteetan
sinple ta arraro
baina hau bukatu da
benetan akabo!
Buelta emango diot
gainera zeharo
beste bat izateko
puntu-puntun nago
nor izan behar nuke
eta ez gehiago.

A. Agirreazaldegi-E. Eizagirre

Gaia: Maskara bat, benetan garena ezkutatzeko balio duen beste azala. Denok omen daukagu maskara bat. Elkarrekin maiteminduta dauden bi neska zarete. Kasu honetan maskara ez erabiltzea erabaki duzue. Mutrikuko moilan zaudete, goxo-goxo, ilunabar batean, muxu bat hemendik, laztan bat handik, une ederra da zuentzako. Herriko emakume batzuk dabilta paseatzen inguruan, eta zuen ondotik igaro direnean igarri duzue zelan dabiltzan marmarrean, eta begirada arraroak egiten zuei.¹¹

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Delikatua baitut*

A. Agirreazaldegi: Esti gu ez gera ez
 horien eredu
 baina gizon askokin
 hoik zenbat ernegu!
 Gu biok goxo-goxo
 hain ondo gaude gu!
 Gainera mundu bera
 konpartitzen degu.

E. Eizagirre: Atso hoik dirala-ta
 lasai zaitetz tira!
 Biok baikabiltza
 gu bion neurrira.
 Hoiek haizearekin
 desagertu dira.
 Noiztik muxukatzen da
 besteei begira?

A. Agirreazaldegi: Atentzioa ondo
 jarri dezu garaiz
 ni beti ez naiz egoten
 ta aurpegi alaiz
 zeharka begiratzen
 ingurutara maiz
 ez dizut esan baina
 sarri lotsatzen naiz.

(11) Oholtzako eskaileran eserita kantatu zuten.

E. Eizagirre: Ba hoiek merkatura
bihar dira joango
ta asmatuko dituzte
hemengo ta hango
zu lotsatzen zerala-ta
zenbat kontrabando!
Publikatzen ez degu
lanikan izango!

A. Agirreazaldegia: Zu muxukatzea da
nere bizioa
horretan segitzeko
det anbizioa.
Beraz haundi dezagun
jolas akzioa
exagera dezagun
gure pasioa.

E Eizagirre: Berdin zait baju edo
berdin hasperena
besteen iritzia
ez da inportanteena.
Kalerako ez det falta
nik orain kemena
nik onartzea izan da
pausorik zailena.

A. Agirreazaldegia: Onartzeko bidean
zenbat enbarazu!
Biok egin ditugu
hainbat estropozu.
Behingoz nahi dezunakin
Estitxu zaude zu
onartu duzu orain
disfrutatu zazu.

E Eizagirre: Atso zaharrak dabilta
 aurre ta atzea
 baina aska zaidazu
 galtza ta jertxea
 ta ez dizut onartuko
 neri ukatzea
 a ze plazerra degun
 bestek lotsatzea!

A. Agirreazaldegi

Gaia: Zakarretatik atera dut paper bola hau. Harremanek askotan zakarretan amaitzen dute. Familian, koadrilan, bertso-giroan...dauzkagun harremanek hainbatetan, zaindu ez direlako, zakarretan amaitu ohi dute. Zer galdu den, zer egin den gaizki...berandu konturatu ohi gara. “Zaindu maite duzun hori” jartzen du esku artean duzun paperean.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Mundu honetan holako gauzak*

Hau idazteko txoko batean
goiz batez nintzen eseri
ta itsu xamar jarri nituen
nere barruko bi begi:
“Zeri jarraika zabiltz Ainhoa?
Noiz? Nola? Zergatik? Zeri?
Askorik maite ez zintuztenei
batzutan diezu segi”.
Neure burua maite dut baina
beti ez dut zaintzen gehiegi.

Behin bikote bat aurkitu eta
haseran xamurtasuna
gero problemak etortzen ziren
ta beti urruntasuna.
Beti gehiago nahi izatean
hortxe zegoen jarduna.
Ta galdetzen dut “Zer da benetan
norbaitentzat maitasuna?
Haiek zirena maite al zenitun
edo haietaz nahi zenduna?”.

Nire akatsak haien akatsak
ez lur edota ez zeru.
Hogeita hamar urte hauetan
makinatxo bat ernegu!
Ez etxean ta ezta eskolan
ez nuen izan eredu.
Baina oraindik ere Ainhoa
denboraz ondo gaude gu
paper zaharrak erreziklatzen
ikasi beharko degu.



*Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa
(Altsasu, 2009-06-20)*

Iturria: Ikastolen elkartea

HERNANI (2009-06-26)

*Bertsolariak: A. Arzallus, B. Gaztelumendi,
J. Soto eta M. Lujanbio.*

Gai-emailea: Gorka Tolosa.

Sanjoan jaiak zirela-eta Elur Txori Elkarteak antolaturiko jaialdia. Udaletxe plazan izan zen, arratsaldeko zazpi eta erdietan.

M. Lujanbio-B. Gaztelumendi

Gaia: Bi nerabe zarete, hamalau urte ingurukoak eta koadrila berekoak. Hor zaudete Tilosetako koskan eserita eta zuen gurasoak ikusi dituzue txarangarekin batera nola doazen saltoka, balantzaka, agian neurritik pixka bat pasatuta.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Adiskidia Andoaindikan*

M. Lujanbio: Esaten dute “Ordu bitako
etxeratu! Gogoratu!”
ta gero berak hor non dabiltzan
trago egin ta dantzatu.
Berena eta gurea hala're
ezin ei da konparatu
ze gu mozkortu egiten gera
eta beraiek txispatu.

B. Gaztelumendi: Baino ardoa bezela beren
masailak hain daude more.
Tamalez biok gaurko ez degu
indar askorikan gorde.
Hor ari dira salto ta dantza
eman ezinik amore
eta gu berriz ez gera kapaz
hemendik altxatzeko're!

M. Lujanbio: Aizu! Txaranga ez baita moda
hor juatea gauero
txarangarekin dabilta zaharrak
edo erdi zaharrak-edo.
Gure musika zarata dala
hoi esango dute gero!
Parregarrigo ez al da askoz
Paquito Chocolatero?

B. Gaztelumendi: Egia esan nere burua
honek ipintzen du grabe
chocolatero izenarekin
mikatza da hau hala're
ta gero berriz ze egingo degu
ze eingo degu alafede?
Nik ezin ditut aguantatu-ta
biharamunez badaude!

M. Lujanbio: Egingo dute hiru t'erditan
edo lautan erretira
bihar goizean aje latza ta
itxura ein behar guztira.
Ta txarangako tronbo-jole ta
bonbo-joleai begira
gu haur ginala zaharrak ziran ta
orain ere zaharrak dira.

B. Gaztelumendi: Egia da bai zahartzaroa
degula gauza krudela
txaranga baten atzetik ezin
liteke joan bestela
ta arrazoitu egingo dute
gaurko parranda horrela:
guk ez bezela aste guztia
lanean pasa dutela.

M. Lujanbio: Beraiek pasa dute lanean
gu lanerako prestatu
gabetan gabiltz aguanta nahian
goizetan nola freskatu?
Edade tonto xamarra da hau
horrek nola ez kezkatu!
Oaintxe ez dakit pipak jan edo
whiski doble bat eskatu!

B. Gaztelumendi: Atzo gauean nahikoa whisky
edan gendula tarteko
agian pipak eskatuz gero
gu biontzako hobeto.
Oraintxe badet nahikoa gogo
festa hauek bukatzeko
hola gutxio faltako baita
Sanpedroak iristeko.

TOLOSA (2009-06-23)

*Bertsolariak: A. Mendiluze, J. Sorozabal,
A. Agirre, B. Gorostidi, A. Barandiaran eta
M. Artola.*

Gai-emailea: Iker Iriarte.

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak eta Tolosako Udalak elkarlanean antolaturiko jaialdia. Zerkausiko plazan izan zen, arratseko zazpi eta erdietan, berrehunen bat entzule aurrean zirela.

B. Gorostidi-A. Barandiaran

Gaia: Zu, Aitzol, Tolosako Babarrun Elkarteko kidea zara. Gaur, Bixente etorri zaizu haserre Amezketatik, babarruna Tolosalde guztian egiten dela, baina fama Tolosak eramaten duela esanez.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Gaixo nengoen joan dan aspaldi*

A. Barandiaran: Amezketatik gure Bixente
gaur'e etorri da fin-fin
herri kontuak nahastu dizkit
ohiko graziarekin.
Hori merkatu kontua dala
Bixente behar dezu jakin
gauza berdina gertatzen baita
Idiazabalgo gaztakin.

B. Gorostidi: Babarrun, gazta eta denean
Tolosa da arlotea
tokatzen zaio ingurukoek
eginai beira egotea.
Babarrun dena amezketarra
eta ederki kostea
guk babarrunik egin ezean
akabo zuen ospea!

A. Barandiaran: Bixente hola ez zaite jarri!
Ez dakit ondo dakizun
merkatu eta erosleetan
ze arrakasta daukagun!
Hain iraultzaile baldin bazera
proba zazu eta entzun
jarri *Made in Amezketa* ta
ea zenbat saltzen dezun!

B. Gorostidi: Ideia hori izan daiteke
ideia ona egitan
baino holako saiakeretan
aritu gera gutxitan
eta lehengoan segi beharko
Aitzol tamalez praktikan:
guk baba batzuk eskutan eta
zuek euroak patrikan.

A. Barandiaran: Hara! Mutila temoso dago
auskalo ze helburuan!
Honek ez dakit zentzu pixka bat
non gordeta ote duan.
Merkatua da merkatua ta
mundua dago munduan
batzuk nekea gorputzean ta
beste batzuek buruan.

B. Gorostidi: Gu soroan ta zu bulegoan
beharko genuke saia
baino kontuak berdintzeko ere
iritsi zaigu garaia.
Alde batera uztekotan nik
zuen izenaren nahia
komeni zaigu orekatzea
irabazi portzentaia.

A. Barandiaran: Banekien bai amezketarrak
zirala oso astunak
eskua beti zikina dauka
bat'e bururik ez dunak.
Guk guretzako fama hartu ta
zuk zuretzat ondasunak!
Bihar goizean eskauko ditut
Rumaniko babarrunak.

B. Gorostidi: Rumania ta besteetatik
babarrun ekartzen segi!
Negozioa egin nahi dezu
eta hori da zilegi.
Astoarekin abituko naiz
Tolosalden periz peri
ta Elkarteko bileretara
gehiago ez deitu neri!

DIMA (2009-06-28)

*Bertsolariak: U. Alberdi, M. Arzallus, X. Paya,
J.M. Irazu eta A. Mendiluze.*

Gai-emailea: Zefe Ziarrusta.

Sanpedro jaiak zirela-eta antolaturiko jaialdia. Plazan izan zen, arratsaldeko sei eta erdietan.

U. Alberdi-X. Paya

Gaia: Lagunekin kanpin batera joan zarete. Gaua da, eta Xabi konturatu zara Uxuek ez duela lo zakua ekarri.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Eguna pasa nekean eta / Andre txarraren bentajak*

X. Paya: Lizarraraino etorri gara
koadrilarekin galako
eta ai ene geure Uxueri
hainbat gauza ahaztu jako!
Zu lasai egon neuk badaukadaz
esterila eta sako
eta argi izan: nirekin behintzat
ez dozu hotzik pasako. (bis)

U. Alberdi: Ez, ez zurekin nik ez dut behar
halako leku zabala.
Aspalditikan igerria dut
Xabi hain guapoa dala
oso azkarra eta jatorra
bertsolari mundiala
ta igual Xabik usteko zuen
nahi gabe ahaztu dudala. (bis)

X. Paya: Ni etorri naiz borondatean
lasai-lasai arrunt-arrunt
ta antza danez asmo onen bat
ere ekarri duzu zuk.
Bale ba! Pronto naukazu jada
pronto edo azalduta: zut.
Agian beharko ditugu ere
zaku txikiago batzuk. (bis)

U. Alberdi: Beraz gu laister hasiko gara
orruka eta marruan
nire azala zure azalean
zure larrua larruan.
Gustora asko erori zara
Uxueren amarruan!
Tienda campaña montatu dezu
kanpin dendaren barruan. (bis)

X. Paya: Dirudienez bat egiteko
gertu gaude ni eta zu
eta jadanik hasiko gara
zaku barruan jo ta su
baina eperik aipatu ez ta
beldurra sartu didazu
traturik ez daukagu Uxue
zurrunga egiten baduzu. (bis)

- U. Alberdi: Joe! Ai Xabi! Ez hori esan
orain nagola hain bero!
Cortapedosa zu izaterik
ez nuen asko espero!
Zurrunka txikiak gorabehera
ez zaitez jarri hain ero!
Igual zurrunka egingo det bai
larrutan egin ta gero. (bis)
- X. Paya: Bale! Orduan goza dezagun
goza dezagun *a sacco!*
Horretarako ez ditugu nahi
esterila eta sako
baina amets egin dezadan nik
gero goxo eta bapo
gero zurrunga egingo duzu
kanpin denda hontatik kanpo. (bis)
- U. Alberdi: Beraz erabili eta bota
hain merkea ez naiz *guapo!*
Gaizki hasi zara eta jarraitzen
jarraituko dugu plako
lehen zuk in dezu eta orain nik
egin behar dizut planto:
gaurkoz harira doa ta Xabi
zoaz *a tomar por sacco!*

A. Mendiluze

Gaia: Presoen argazkiak kentzeko ordena etorri da herrira.
Udaletxeko langilea zara, azken argazkia kentzen ari zara, eta
hor zaude berari begira.

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz
Doinua: *Txikitatikan edukia dut*

Legeak lege izaten dira
nahiz askotan ez atsegin
eta legeak betetzearren
saiatu behar ahalegin.
Neri agindu egin didate
eta bete behar det fin
beste hainbat irain gordin
entzuteak eman dit min.
Bai argazkiak kentzean ere
ni ez naiz horren desberdin
nik ere mina hartzen det baina
ezin det besterik egin. (bis)

Azkena ere kendu det-eta!
Bapo Aitor! Aitor bapo!
Hortik aurrera zuri zer entzun
ere ez zaizu faltako.
“Ezin det beste ezer egin nik”
ez nuen ondo botako.
Zergatik ta zertarako?
Bitan pentsatu beharko
beste biderik ez zegoela
lehen pentsatu dudalako
ta ez ote det hala pentsatu
erosoena delako? (bis)

Ze hitz ederrak demokrazia
tolerantzia, pakea...
Bainan askotan hoiien atzean
ezkututzen da katea:
batek agindu besteok bete
eta geuretzat kaltea.
Ordaina ez da merkea
zaila da lasai joatea.
Pentsatu eta hobe jartzea
eta agur esatea.
Behin behar bada gaur eskatzen dit
koherente izatea. (bis)

LASARTE-ORIA (2009-06-29)

*Bertsolariak: A. Egaña, P. Etxeberria,
B. Gaztelumendi, A. Lizarralde,
U. Alberdi eta U. Muñoa.*

Gai-emailea: Pablo Suberbiola.

San Pedro egunarekin urtero izaten den jaialdia. Manuel Lekuona kultur etxean izan zen, gaueko hamaiketan hasita. Aretoa jendez beterik eta saio polita, oro har.

B. Gaztelumendi-P. Etxeberria

Gaia: Zuek biok senar-emazteak zarete. Krisia iritsi da zuen etxera ere, kasu honetan krisi ekonomikoa. Uda gainean dugu, eta urrutira bidaiarik egiteko ez zaizue ailegatzen. Zuk, Beñat, nahiago zenuke, besterik ez bada ere, egun batzuk Orioko kanpinera-edo bidaia txiki bat egin. Zuk, berriz, Patxi, bidaia txikia egitekotan nahiago duzu etxean geratu.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen jaunak*

B. Gaztelumendi: Udan dirurik ez daukagu ta
hargatik gabiltza grabe
nik esaten det Oriorantza
joan gaitezkeela bazpa're.
Hemen koadrila latza daukazu
Lasarten alderik alde
ta ez didazu kasu egiten
etxean baldin bagaude.

P. Etxeberria: Senar-emaztek gu ez gerade
hamarna euroren jabe
eta hala're oportetara
joateko irrikaz zaude.
Krixixa heldu da aurten baina
hala're bildurrik gabe!
Nora arraio joan behar degu
etxean gaizki al zaude?

B. Gaztelumendi: Ez, ez etxean ederki gaude
baino ez da dirurik lepo
ta zuk taberna bateko eta
bertso eskola besteko.
Ez zait iruitzen gogo haundirik
dezunik kaso eiteko
eta edonon egongo naiz ni
etxean baino hobeto.

P. Etxeberria: Gaztia zera eta haizia
darabilkizu buruan
ez al zaude ba goxo ta ongi
zure senarren onduan?
Honek bazitun maitasun hitzak
ezkondu ginan orduan...
Zure senarra *millionario*
zala uste al zenduan?

B. Gaztelumendi: Ez banekien soinu handirik
ez zenula patriketan
baino hala're maitatu zaitut
nik horrenbeste urtetan.
Bai hitz politak galanki neuzkan
ezkontza egun horretan
eta hobeto emango dute
itsas ondoko brisetan.

P. Etxeberria: Zuk nahi zenuke kolore beltza
horko zenbaiten antzera
nahiz eta dendan zorra eduki
nola etorri etxera?
Kaso eidazu andre maitea
ta ondo izango zera
xoxen batzuek aurreratzean
orduan joango gera.

B. Gaztelumendi: Barkatu baino dendetan ez naiz
dionzun bezain trastea
eta oraindik zerbait badegu
urruti degu eskea.
Ahaztu itzazu jubilazio
bateko eta bestea
askoz hobeto ez al genuke
pazientzia aurrezte?

P. Etxeberria: Nere andrea berrogei kilo
ez da botata pisura
argala eta zikoitza dago
hauxen da nere tristura.
Xoxik ez degu bion arten ta
bakazioaz poztu da
klase hontara bizitz'ezkeroz
gure mundua ahaztu da.

USURBIL (2009-07-04)

*Bertsolariak: S. Colina, A. Egaña, M. Lujanbio,
J. Maia, A. Arzallus eta X. Sukia.*

Gai-emailea: Joxe Mari Izeta.

Santaisabel jaietan urtero egiten duten jaialdia. Gauean izan zen, herriko pilotalekuan. Entzule asko eta giro bikaina.

*S. Colina-A. Egaña-M. Lujanbio-
J. Maia-A. Arzallus-X. Sukia.*

Gaia: Krisia. Horretaz zerbait badakitenek esan berri dute gutxienez 2014 arte iraungo duela.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

S. Colina: Higiezinak ta akzioak
 jetsi dira tupustean
 aberatsenak ere dauzkagu
 soluzioen eskean.
 Nahiz ta urteak krisirantz joan
 bat bestearen ostean
 gu berdin-berdin bilduko gara
 bi mila ta hamabostean.

A. Egaña: Den-dena berdin danik ordea
ez du ba inork usteko?
Urtebeteko krisia zena
bihurtu zaigu bosteko.
Zerga gehienak tabakoari
Estadua babesteko.
Beste arrazoi bat badaukat orain
erretzeari uzteko.

M. Lujanbio: Etxebizitzen eta autoen
preziorik ez zen limatzen
gure kartera noranahiraino
joan zitekeen hari bat zen
ibili gera mugarik gabe
neurritz kanpo bidaiatzen
orain ikasi behar bizitzan
neurtzen eta errimatzen.

J. Maia: Adituaren adierazpena
diguzu adierazia
kapitalismo beltzak sartu du
zigortzen gaitun hazia.
Bi mila eta hamalauraino
luzatzen badu bizia
mundu ustel bat izango da hau
ez da izango krisia.

A. Arzallus: Gure ametsak dira Ibiza
Punta Cana edo Marte.
Hori dela-ta krisi haizeak
astindu gaitu gu fuerte.
Neri berdin zait beste hamalau
hogei edo ehun urte.
Iraun dezala guk baloreak
aldatzen ditugun arte!

X. Sukia: Langile denak soka lepoan
gaur inpernu lehen zeru
dirua ez da problema soila
gehio pentsa dezakegu.
Baloreetan nortasunaren
krisia ere badegu
demokrazia ez da existitzen
demokrisian gaude gu.

A. Arzallus-X. Sukia

Gaia: Bizilagunak zarete joan den hogeita hamar urtean. Zu, Xabier, sekula ez zara joan Ametsen etxera, sekula ez da gertatu. Amets, berriz, noiznahi azaltzen zaizu, gaur olio dela, bihar gatza, hurrena esnea... Eta etxera sartzen zaizunean, egonalditxo bat egiten du; gaur arratsaldeko hiruretan sartu da, zortziak dira, eta ez dela joaten; eta jada ez dakizu nola bidali ere.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Praixku Galtzarreta I*

X. Sukia: Egunero zabilta
etxean barrena
gatzarena ez bada
azukrearena.
Oain zerbeza eskatu
ein dezu onena
oaintxe zabaltzen dute
azpiko taberna.

A. Arzallus: Baina ez det gozaten
azpiko tabernan.
Hirutan etorrita
konpainia eman.
Aizu! Beatziak dira
gosia aukeran
ez dezu ba edukiko
zeozer *neveran*?

- X. Sukia: *Nevera hutsa dago
heldu da unia:
zuk jan dezunarekin
a ze hutsunia!
Beti eske ta eske
ez zera xumia.
Ez zera ba izango
apaizan semia?*
- A. Arzallus: *Ez ba ni ez naiz goiko
hortik eroria
nere aita beste bat zan
ze kategoria!
Izena Antonio zun
ama Bitoria
kontatuko al dizut
haren historia?*
- X. Sukia: *Ez, ez, ez, ez, kontatu
gehio hor ez mantendu!
Altxa sofatik eta
nigandik urrundu!
Etxen sartu ta ezin
gainetikan kendu!
Zuri zeoze esatiak
bildurra ematen du!*
- A. Arzallus: *Oraindik itxoin pixkat
kontu hoiek laga.
Ia hamarrak dira
jo telebistara.
Goenkale oraintxe
hasiko da hara!
Komentatuta askoz
politagua da.*

X. Sukia: Goenkalei begira
hau tipo mardula!
Ni loaliak hiltzen
ezin disimula.
Oain Goenkale ikusten
ein didazu burla
zerorrek egin behar
zendun pelikula!

A. Arzallus: Aizu baina esango det
zer zan nahi nun hura:
badakizu aspaldin
daukat kalentura
nahi det gatza, batxuia
tipula buruba
hoietatik zeozer
eukiko duzu ba?

X. Sukia: Badaukat tipula bai
gatza eta dana
gure aitonak baratzen
egiten du lana
denetarikan daukat
ta hortxe dedana
pazientzia da orain
bukatu zaidana!

A. Arzallus: Bueno ba bukatuko
degu orain bertan
sakarina ere behar det
zeren nago dietan
baina ez eman orain
bihar goizez bueltan
etorriko naiz eta
zazpi t'erdietan.

LESAKA (2009-07-07)

*Bertsolariak: A. Arzallus, A. Egaña, E. Lagoma,
M. Lujanbio, X. Silveira eta J. Soto.*

Gai- jartzailea: Helduen bertso-eskola.

Gai-emailea: Estitxu Arozena.

Sanferminetako jaialdia Arrano Elkarteak antolatu zuen Udalaren babesarekin. Plazan izan zen, arratsaldeko zazpitan.

J. Soto

Lehen puntua emanda

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Antton eta Maria*

E. Arozena: Nafar bertsolarien
 kabi da Lesaka

J. Soto: arrazoi duzu dauka
 harrobi galanta.
 Bertso goserik hemen
 nahiz ta ez den falta
 oso harro ez zazu
 holakorik kanta
 txapela aspaldian
 arriskuan da-ta! (bis)

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, bederatzi puntuz
Doinua: *Betroiarena*

E. Arozena: Noiz jantzi behar duzu
 Julio txapela?

J. Soto: Jazteko izan naiteke
 pixkat txepela
 baina Xabier Silveirak
 badauka nibela
 ta uste dut txapeldun
 justu izan zela.
 Hala're horrela
 ez nago goibela
 askok nahi bezela
 akabo bestela!
 Dakit txapela laister
 helduko dela. (bis)



Beterriko Bertsolari Txapelketa
(Zizurkil, 2009-03-20)
Agirre

Iturria: Amaia

IRUÑEA (2009-07-10)

*Bertsolariak: S. Colina, I. Elortza, A. Fuentes,
I. Olaetxea, X. Legarreta eta A. Agirre.*

Gai-emailea: Fernando Anbustegi.

Sanfermin jaien barruan, Nafarroako Bertsozale Elkarteak antolatuturiko jaialdia. Takonera parkean izan zen, eguerdiko ordu batean.

I. Elortza-X. Legarreta

Gaia: Zuek biok talde bereko txirrindulariak zarete, Igor Amstrong eta Xabier Contador. Bi oilar oilategi berean.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

I. Elortza: Lehengoan nik eginaz
 zaude bero-bero
 gure taldean lider
 zarella-ta edo.
 Baina Alberto Contador
 zaitugunez gero
 hasi zaitez kontaktzen
 “Hiru, bi, bat, zero!”.

X. Legarreta: Hiru, bi, bat, zero ta
erlojua atzera
indartsu omen zatoz
lehenagoko antzera
baina zurekin noa
lehenbailehen batzera
edo etorri al zara
tronua kentzera?

I. Elortza: Parka baina tronua
neroni dagokit
Europara etorri naiz
Ameriketatik.
Zu zertara zatozen
oso ondo ez dakit
hirugarren munduko
herri horretatik!

X. Legarreta: Hirugarren munduak
dit arnasa eten
Amerika bakarra
dela du ematen.
Aizu hemen ez geunden
zuri itxaroten
ta zuk ez al dakizu
etxean egoten?

I. Elortza: Kontxo! Hoixe bakarrik
guk falta genuen
beti egon naizenean
altutan altuen!
Zuri Contadorrena
kantatu dizut lehen
zuk ez dakizu *amstrong*-ek
zer esan nahi duen.

X. Legarreta: Etorri ta hala're
nahi duena bota!
Lehenengo egunean
egin dit pelota.
“Zer esan nahi ote du?”
dabil ate joka
ez dakit ta gainera
neri ez zait inporta.

I. Elortza: Zure lagunek eingo
zuten noski porra!
Gaurkoan daukagu guk
etapa gogorra
arm arma duzu eta
amstrong da zigorra
pentsa ezazu zein den
datorkizun porra!

X. Legarreta: Ziklistaren bizitza
buila ta zarata
zu behintzat hemen zabiltz
hona ta haraka...
Aurten ez zara joango
Tourra aterata
denak Amstrong-en kontra
joango gera-ta!

S. Colina

Gaia: Uztailaren 14a da, Sanferminetako azken eguna. Etxetik atera
zarenean, zure buruari “Gaurkoan bai!” erran diozu.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas*

Gaur uztailaren hamalaua da
ta Sanferminak akabo
baina aurretik dauzkat oraindik
dozena bat garagardo
neska eder bat seduzitzeko
egoki eta pikaro
baina horiek pasa dira ta
zereginikan ez dago.
Lehen *pobre de mi* sentitzen nintzen
orain *pobre de miago*.

Tabernetako barra ertzetan
ba ote da maitasunik?
Ba ote dago herri honetan
amestu ez dudan kumunik?
Baina aurtengoan ez neskalagun
eta ez gaba lizunik.
Alderdi on bat bada ordea
dena ez dago ilunik:
australiar bat harrapatu ta
ze kristo egin behar dut nik?

Kontuak kontu zereginik ez
dagonez etxerakoan
berriro ere ligatu gabe
oheratu naiz gaurkoan
ta Sanferminen oroitzapenak
igaro zaizkit atoan
mingaina lori pausoa oker
eta burua kanpoan
hurrengo urtean suerte hobea
izango dudalakoan.

LEZAMA (2009-07-12)

*Bertsolariak: On. Enbeita, X. Silveira,
J. Maia eta U. Iturriaga.*

Gai-emailea: Ortzi Garitano.

Goitioltza auzoko jaietan ohikoa den jaialdia. Arratsaldean izan zen, eta jende multzo polita elkartu zen bertsolariak entzutera. Belardi batean zegoen oholtza jarrita. Bero handia egiten zuen.

U. Iturriaga

Gaia: Generazio bateko kide, partaide, buru eta eredu izan da askorentzat, garai bateko patillak...

Hainbeste urtetan, zure panorama zerbaitetan aldatuko zen bertsolaritzan. Zertan?

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas*

Oso gazterik hasi ginen gu
gazteegi gaztetxotan
baina ze kristo! Aukera egoan ta
gu saiatu ginan hortan.
Jenteak deitu eta gu joan
sarri bertsoak kolokan
deiaren mozkorraldiagatik
neuronak be inoz lotan
ta ohartzen zara patillak eurak
ez dabela eiten bertsotan.

Halan be plazer bideak badauz
topetako mila modu
ta ezin ukatu bide honetan
asko disfrutatu dogu.
Nahiz eta beti zer gura neban
igual ez euki hain klaru
hogeta hamabost urtetxo eta
kriston motxila dakargu!
Gure kantukide askorentzat
beti hor egon gara gu.

Baina halan be ez naz hasiko
neure arduretatik ihes.
Inoz parean joten dogu bai
baina beste askotan ez
baina hoixe da bertsolaritza
ta zalea zeu zara juez.
Ortzi zurea zan laudorio
niri egindako oles
ala jubilau ein gura nozu
zaharregia banintza lez?

J. Maia- On. Enbeita

Gaia: Hogeita hamabost urte eman dituzue zoriontsu ezkondata
Goitioltzako baserri batean. Gaur, banantzea adostu duzue, baina
paperak egiterakoan banantzeko dirurik ez daukazuela ikusi
duzue.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

J. Maia: Legeak gauzak hola
 eskatzen ditu-ta
 banatu behar gera
 dena zure kulpa.
 Dirurik ez ordea
 ze pobrea uzta!
 Behintzat egin dezagun
 ohea bi puxka. (bis)

On. Enbeita: Zure proposamena
ezin hartu aintzat
ni ez nozu hartuko
gizona tontotzat.
Oge osoa neutzat
behar dot nik behintzat
eta egizu kortan
koarto bat zeuretzat. (bis)

J. Maia: Hemen ganadua zen
gizona baino lehen.
Ondo dakit nik zure
estiloa zein den!
Dirurik ez daukagu
badakizu zeren
dena soinekotxotan
gastatzen zenuen. (bis)

On. Enbeita: Harrotu egin jaku
ta gizona aitu:
igual mundua hemen
amaituko jaku.
Ez dakit hortaz zelan
zaren konturatu
ez badeustazu inoz
zuzen begiratu. (bis)

J. Maia: Gaztetxoko garaia
ja ez dago hurbil
baina ni mantendu naiz
apal eta umil:
hamabost urtetako
galtza berberaz hil
txiki geratu arren
berdinekin nabil. (bis)

On. Enbeita: Zeozer igarri dozu
hori da ezagun
baina horretan izan
naz ni zure lagun
beti praka bardinak
hain pobre hain ilun
txikitero triparik
bota ez dagizun. (bis)

J. Maia: Berriz atera dezu
ez dakit zenbat gai
nik beti nahiko nuke
bizi lasai-lasai
galtzak jaistea ere
harturikan usai
ni prest nengoen baina
zuk ez zenuen nahi. (bis)

On. Enbeita: Kantsau nintzen gaztetan
artotza ta trokaz
eta kantsau etxeko
betiko borrokaz.
Nik inoz ez dodala
nahi dinozu hortaz
pena emoten dozu
txanka ezpatokaz. (bis)

X. Silveira

Gaia: Xabier, garai berriak datoz bertsolaritzan. Bertsolarien janzkera aldatu nahi dute, besteak beste. Zu eta Fredi Paia bezalako bertsolariak jaka amerikarra jantzita irteten zineten oholtzara. Hori dela eta, bertsolarien diseinatzaile izendatu zaitu Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Hirurogeita beatzi urte*

Moda berriak jarri behar-eta
agindua helarazi
jantzi berriak janzteko lehenik
behar da zaharra erantzi.
Lehen ordena hau izango da:
ikusi eta ikasi
ekainetikan iraileraino
beltzez ezingo da jantzi.

Hamaika paper eta diseinu
doaz basuran barrena
oraintxe bertan kaka zaharra da
oraintxe itzela zena
eta Jon Maiak ibiltzen duen
uniformea onena:
ez PSOEko ez PNVko
politikoki zuzena.

Baina uste dut amerikanak
ideia ona zirela
gaurko bertsoak ere dirudi
trajeez janzten direla.
Jantzi ditzagun bertsoak eta
bertsolariek horrela
izanen dute kanpo polita
eta barrua ustela.

ALEGIA (2009-07-16)

*Bertsolariak: A. Agirre, A. Egaña,
A. Sarriegi eta A. Arzallus*

Gai-emailea: Felix Irazustabarrena.

Karmenak zirela-eta antolatutako jaialdia. Inaxio Begiristain Kultur Etxean izan zen, eta berrehun eta berrogeita hamarren bat lagun elkartu ziren bertsolariak entzutera. Saio polita egin zuten.

A. Agirre

Gaia: Zure ikasleetako batek hauxe esan dizu gaur: “ Amaia, nik handitan Michael Jackson izan nahi dut”.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*

Ai Peru maite! Ipini zera
nere aurrean parez pare.
Galdera zaila egin didazu
to erantzuna debalde:
zuk umetatik egin ezazu
beti zurearen alde
haren gisara egin nahi dezu
ospe ta famaren jabe
zuk nahi dezuna egizu baina
zerana izkutatu gabe.

“Nik Michael Jackson izan nahi nuke”
zure hitzezko jarduna
nei aurpegia ere aldatu zait
hain da gauza ezaguna!
Hori miresten dezu erabat
nahiz izan joan iluna
“Hil eta gero guztiak mito”
zera horren jakituna
zure bizitzai eman zaiozu
kolore aniztasuna.

Nola liteke izar haundi bat
puntu hortara iritsi?
Eta juxtu zuk hura izan nahi
ia ezin det sinetsi.
Nahiz ezin dedan zure gogo ta
ametsen aterik itxi
zarenai eutsi behar diozu
gaur bai bihar eta etzi
zure burua baino gehiago
ez zazu inor miretsi.

A. Agirre-A. Sarriegi

Gaia: Amaiak letra arloko ikasketak egin zituen eta Aitorrek zientzietakoak.
Ikuspuntu horretatik, nola ikusten duzue politika?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

A. Sarriegi: Nik politika antzematen det
geroz eta okerrago
eta Gasteiza begiratuta
ulertzen det gutxiago.
PPk ta PSOEk nola arraio
egin ote duten nago
bi laurden baino gutxigorekin
erdia baino gehiago?

- A. Agirre: Zientzia oso ziurra omen
zure ustez matematika
ta deszifratzen ezin asmatu
behin mugara iritsita:
batetik lau ta bestetik hiru
horra herriaren kinka...
baina nik zazpi ikusten ditut
letra txikitan jarrita.
- A. Sarriegi: Zazpi ikusi nahi dituenak
nahikoa du jakitea
baino hortatik aurrera doa
herri hontako pikea:
pentsatuz gero gatazkarekin
funtzio bat egitea
zoritxarrean infinituan
izango du limitea.
- A. Agirre: Injustizia da infinito
batzutan hutsa maiz zero
batuketetan aritzen dira
egunero-egunero.
Guri kenketa tokatzen zaigu
besterik ezin espero
gu zenbat geran ez du inporta
behin hitza kendu ezkerro.
- A. Sarriegi: Zenbakiek ta letrek guztiok
behar gaituzte zerbitza
bata zein beste bi kako hoiek
baitaukate hemen giltza.
Baino Amaia iritzi hortan
zu oker xamar zabilta
zenbakietan kontatzen baita
ukatzen diguten giltza.

A. Agirre

Matematika zifra kontua
desio dezu aukeran
nik letren alde egin det beti
nahiz ez ibili primeran.
Kantitatea premizko omen
halaxe goaz gainbeheran
baina guri hitzak esango digu
bageran edo ez geran.

A. Sarriegi:

Nik aitortzen det: garrantzitsua
da hitza eta sormena
alde bateko sufrimentua
beste aldetik kondena
baina funtzio nahasia da
gure gatazka honena
ta integratzea izan daiteke
soluziorik onena.



*Iparraldeko Bertsulari Gazteen Topaketa
(Bidarrai, 2009-04-04)*

Iturria: Karlos Aizpurua

ZORNOTZA (2009-07-20)

*Bertsolariak: A. M. Peñagarikano, F. Paia,
J. Uranga eta U. Alberdi.*

Gai-emailea: Unai Ormaetxea.

Zornotzako jaien barnean antolaturiko saio hau gauean izan zen, herriko plazan.

A.M. Peñagarikano

Gaia: Aitorpen bat egingo dizut: garai batean botatzen zenituen bertso luze potente haiek gustura entzuten nituen. Zure bizitzaren berri jakiteko hiru galdera egingo dizkizut. Lehenengoa: zer da 1991ko Peñaz? Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen Peña hartaz?

Neurria: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Maitasuna da bizi izateko*

Garai haietan famatua zan
bai Peña anoetarra
bertso afariak ta jaialdiak
genituen barra-barra
urte batean gainditu nuen
nik berrehun plazaren marra
beti nintzan titularra
orduak neukan indarra. (bis)
Erretiratu Jon Sarasua
berdin Euzkitze izarra
ni izango naiz haitako askotik
jarraitzen duen bakarra. (bis)

Zer da neska gazteekin *feelinga* sortzen zuen Peña soltero hartaz?

Neurria: Hamaseiko berdina 8 puntuz

Doinua: *Baserrian jaio nintzan / Habanera*

Bisitatu izan ditut
hainbat herri eta auzo
begia argia nuen
ez borroso ta ez lauso
neskatxa asko inguruan
ta gehien haiek neri so
orduan izan nintzakeen
makina bat konpromiso.
Aitortuko det: *playboya*
ni ez naiz behin'e izan oso
baina hori bai neskatzak
hartzen nituela goxo
ta "Aupa Peña!" esanez
egiten zidaten kaso...
Urrezko soltero nintzan
ta orain berriz guraso.

Zer da maiatzaren 13an Valentziara joan zen Peñaz?

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espainian behera*

Nere bihotza zegon
poza zeriola
bai baina Messi batek
gero sartu gola.
Beti Athleticzale
zuri-gorri odola
Valentzian galdu arren
ez damutu inola
guk ez genuen entzun
himno española. (bis)

J. Uranga-F. Paia

Gaia: Bertsoa jendearengana hurbiltzeko *Zaharrak berri tour* izeneko emanaldia eskaintzen ibili zineten hainbat lekutan, Silveirarekin batera. Emanaldia bukaerara heldu da, eta garaipen txiki hori ospatzeko eta parranda bat egiteko batu zarete. Silveira ez da agertu, baina planarekin aurrera jarraitu duzue; hasi zarete afaltzen, trago batzuk hartzen, eztarria berotzen...A! eta Silveira ez da agertu.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espanian behera*

J. Uranga: Hiruzpalau urtean
 pozik eta ondo
 ibili gera noski
 parranda ta trago.
 Silveira ez da etorri gaur
 egin digu tongo
 igual hilkutxa baten
 zuten eramango
 banekien martxa hau
 ez zula jasango. (bis)

F. Paia: Bi urte herriz herri
 normala akaso
 afari ta parranda
 kopa eta baso
 nik jada bururik be
 ezin dot ba jaso
 osasunik ez dogu
 egiten dot paso.
 Zu ez zara Peña ta
 ni ez naz Lizaso. (bis)

J. Uranga: Osasun aldetikan
hainbeste gabezi
nahiz ta bertso giroan
hazi eta hezi
nahiz ta bertsoa izan
polit ta berezi
zirkulo txar hontatik
banoa ihesi
inolaz ez du gure
bizitza merezi. (bis)

F. Paia: Patxarana larregi
zanetan agian
pozik ibiltzen ginan
taberna erdian
gero neska gazteen
joko mirarian
ehundaka herri pasau
gure izerdian...
Ume bat itzi deuste
etxeko atarian. (bis)

J. Uranga: Arrazoia zeneukan:
alukeri gutxi
ez zenuela egin.
Ba orain ez etsi
ta ume hori ez zazu
Fredri gutxietsi
hartu zazu besotan
eta gogor eutsi
bertsolari izaten
ez zaiozu utzi.

F. Paia: Baina non da gorengo
Jokin Uranga hura
berrehun kilo eukazana
tripatik burura?
Gitxi jan dozu eta
guztion modura
itzi eizu bertsoa
edan eizu ura
pertsone baino dozu
eskeleto itxura. (bis)

AIA (2009-07-24)

*Bertsolariak: S. Lizaso, J. M. Irazu, S. Colina,
M. Lujanbio eta A. M. Peñagarikano.*

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Bizirik daude festak Santio Errekan, eta baita bertso saioa ere. Gorabeheratsua izan zen aurtengoa, baina bertsoaldi ederrak utzi zituen. Bertsoetik bertsoarako tartean apenas jotzen zuten txalorik, eta batak besteari txanda eman ezinik bezala aritu ziren bertsolariak, bizi-bizi.

J. M. Irazu

Gaia: Ohartuko zineten gaur Andoni Egañaren lekuan Irazu etorri dela.
Mikro batetik kantatu behar duzu Andoniren ordeztortzearen poza, eta bestetik Andoniren ordeztortzearen pena.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Esplikatzeranoa kontuak*

Gaur Andoni zan etortzekoa
nolako gizon itzela!
Ta bere ordeztortze ni etortzeko
moduren bat omen zela.
Nolako poza! Tabladu hauxe
neretzat ez da kartzela
egun batean sinistuko det
txapeldunorde naizela.

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz
Doinua: *Sorlekua utziz geroz*

Baina ze kristo esaten
habil hi inuxentea?
Dena sinisten duena
ez baitek bete-betea.
Gaur tokatu zaik lau telefono
dei egin eta joatea
txapeldunaren ordezeko ez baizik
hirugarren suplentea.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Esplikatzeroa noa kontuak*

Harek bezela neurri luzetan
ahal dala nahi nuke kanta
harek bezela txispa atereaz
gai denei utziaz marka.
Berak bezela sortu ez arren
grazia ta zalaparta
etxea zeinen pozik noan ni
disimuloan pasata!

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz
Doinua: *Sorlekua utziz geroz*

Baina ze kristo habil hi
txapel eta berriketa?
Aukera baliatzeko
ez hadi alperrik neka.
Andonik lasai egin behar dik
Itali alderako buelta
hi ere lasai hurrengo urtean
bera etorriko dek-eta.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Esplikatzera noa kontuak*

Iruditu zait izan dedala
talentu eta defentsa
altura hontatik kantatzea're
poza ez denik ez pentsa!
Gau ederra ta izartsua da
saioa ez da juan beltza.
Koadro batean gorde behar det
gau eder honen ametsa.

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz
Doinua: *Sorlekua utziz geroz*

Baina izarra ez baizik
hire gaina dena laino
egun bateko ametsak
emate al du hortaraino?
Bi mikrotatik bakar batera
pasa behar huke joño!
Heure bidean jarraitu ezak
Egaña izateraino.

A. M. Peñagarikano-S. Lizaso

Gaia: Serio jardutea nahi dut, ahal baldin baduzue behintzat. Irudikatu
behar duzue gaur dela azken aldia elkarrekin kantatuko duzuen.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Nere gogoa hegan dijoa*

S. Lizaso: Tokatu zaigu hainbat urtean
elkarrekin kantatzea
tokatu zaigu hainbat urtean
biok elkar tentatzea
gaur da azkena gerta daiteke
ustegabeko trantzea:
hainbat urtean sobre ustea
gero faltan botatzea.

A. M. Peñagarikano: Urte askotan zu izan zaitut
bidelagun eta poza
zein ederra zen aldamenean
Sebastianen ahotsa
berdingabeko bere eraso
ta bere kolpe zorrotza!
Azken aldia gaur baldin bada
lehertu behar zait bihotza.

S. Lizaso: Elkar laguntza izana degu
iraupenaren zutabe
tarteka zakar jardunak gera
eta tarteka xuabe.
Ni banijoa, zu jarraitzeko
itxaropenez ez zaude
itsua ez baita zuzen ibiltzen
itsuaurrekorik gabe.

A. M. Peñagarikano: Zuretzat igual ez da izango
inon itsuaurrekorik.
Lizasongandik apartatzeko
ez det batere gogorik.
Gerora ere nik esango det
legortu ezinik malkorik:
bertsolaririk bat'e ez da izan
Lizaso bezelakorik.

S. Lizaso: Bion artean pasa ditugu
bajina bat plaza klase
bertsolaritzai eman diogu
irauteko zenbait haize.
Azken bertsoak ni Peña hemen
gehiegi gaur ez nau ase
azken saioa ere gezurretan
lehengo denak bezelaxe.

A. M. Peñagarikano: “Hi hasi hadi” esaten nion
ta egiten zidan kaso
ta orain berriz beste gazteei
eman behar zaie paso:
Maialen oso-osoa ona da
Sustrai ere ona oso
bai baina nere bihotz barnean
beti egongo da Lizaso.

ALTZO (2009-07-31)

*Bertsolariak: J. Soto, A. Arzallus, I. Elortza,
J. M. Irazu, A. Mendiluze, A. M. Peñagarikano.*

Gai-jartzailea: Bertsozale taldea.

Gai-emailea: Manuel Olano.

Beste behin ere Altzoko pilotalekua bete egin zen Saninazio jaietan ohikoa den jaialdi honetan; hirurehun lagunetik gora elkartu ziren, giro bikaina izan zuten bertsoan egiteko, eta entzuleak kontent geratu ziren.

I. Elortza

Gaia: Gizakion arteko harreman eta maitasun kontuetan mila teoria, ikuspegi eta praktika daude, noski. Dena den, asko kostatzen omen zaigu, zu eta ni izateari utzi eta gu izatera pasatzea.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Neronek neure esperientzia
kontatuko dizut hara:
hamar bat urte da neska batek
ein zidala besarkada
zortzi urtean hor ibili naiz
orain hona orain hara
eta oraintxe pare bat urte
jaio zen lehen alaba
bi ginenean bi izan ginen
ta orain hiru bat gara. (bis)

Ta egia esan bizitza hala
da errezago joaten
buruaz barik bihotzez jokatu
eta zer eman dezakeen
gehitu egiten baita mundua:
bat gehi bat inoiz ez da ken.
Mundu honetan jakin behar da
geure onena ematen
eta ahal bada aldi berean
bat baina bana izaten. (bis)

Azken batean kontatu dizut
bizi bat oso normala
haundi izateko jakin behar baita
baita izaten apala.
Nik ahalegina egin nahi nuke
beti bizitzeko hala
besteekiko errespetuan
norberak gura bezala
eta nahi nuke alabak ere
hoixe ikasi dezala. (bis)



*Egunkariaren aldeko elkarretaratzea
(Donostia, 2009-10-17)*

Iturria: Oihana Aranburu

FORUA (2009-08-02)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, X. Silveira, I. Elortza,
A. Egaña eta U. Iturriaga.*

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Jaiak zirela-eta antolaturiko jaialdia. Plazan izan zen, eta jende asko egon zen bertsolariak entzuten.

*M. Lujanbio-X. Silveira-I. Elortza-
A. Egaña-U. Iturriaga*

Gaia: Ez da lehen aldia Foruan jaialdi hau egiten dena, baina bai lehen aldietako bat, eta denok izan ditugu lehen aldiak, gauza askotakoak. Oroitzen duzuen lehen aldi hori kantatu behar duzue lehen bertsoan, eta bigarren bertsoan kantatu behar duzue ahaztu nahiko zenuketen lehen aldi hori.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen jaunak*

U. Iturriaga: Lehen aldiaz galdetu eta
 ia ez dakit zer esan.
 Egia dinot eta sinistu
 hamahiru urtegaz izan zan.
 Gaztea nintzen gazteegia
 ta zan Izurtzako plazan
 eta bertsoak bertso eskolan
 idatzita eroan genduzan.

- A. Egaña: Hogeita zazpi urte neuzkan nik
eritetxean aurkitu.
Lehen alaba erizain batek
goxatu eta garbitu
gero neri eman “Ai ze eder den!
Hatzak ere denak ditu”.
Maila hortako lehen aldirik
bizitzan ez det sentitu.
- I. Elortza: Neuk be gogora ekarriko dot
bertsozko lehen eginahala:
hemendik gertu Gernikan gendun
Bizkaiko haurren finala
zehaztasunik ez dot gogoan
beharbada ez da normala
baina horretzek esan gura dau
gozatu egin nebala.
- X. Silveira: Iragana da gaurko eguna
ezartzen duen eskola
iragana da etorkizuna
oztopatzeko eskola.
Nik hil artean oroituko dut
lehendabiziko kontrola
horrela ez dut inoiz ahaztuko
herri hau preso dagola.
- M. Lujanbio: Hamalau urte ta bertsolari
zaharrekin sagardo proba
nik ez nekien hura nola zen
ta beti euren ondora
euren atzetik kupelez kupel
eta tragotik tragora
lehen aldiz ordun pentsatu nuen
“Mozkorra hau izango da”.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Dama askoren engainagarri*

- U. Iturriaga: Mozkorraldiak izaten ditu
baina sarritan bi zati
ta pasau jakon lehengo urtean
ondo ezautu dodan bati
bidetik urten istripua euki
ta damutu zan galanki.
Ahazten saiatuko naz ni baina
gogoratu behar dot beti.
- A. Egaña: Hogeita hiru bat urte nituen
esango dut berehala
Unai lagunak gisa neronek
ere kristoren pedala
ehun ta hogeira nindoan eta
han traktore bat “Aibala!”.
Ospitalean bukatu nuen
alabarekin bezala.
- I. Elortza: Hau be final bat izan gendun ba
nagusien gradukoa.
Derrigorrean kantau behar zan
bertso bat sei puntukoa
bosgarrenean mutu geratu
grabea zan asuntoa.
Haixe izan zan lehen aldi bat
ahazteko modukoa.
- X. Silveira: Ahaztu nahiari ta damuari
ez diot ongi iritzi
askotan izan daitezkeelako
zorionaren minbizi.
Nik bizitako gauza guztiak
ez ditut alferrik bizi
ta ahaztu nahi dudan lehen aldirik
ez zait oraindik iritsi.

M. Lujanbio: Parranda baten zan hura ere
gazte ta ezin kabitu
tipo batekin hantxe nebilen
ia nork nor seduzitu.
Ahaztu nahi nuke garbi esana
ez niola entenditu
lehen aldia ez zala lehena izan
ez bainitzan atrebitu.



*Aihotz plazako saioak
(Gasteiz, 2009-08-06)*

Iturria: XDZ

GASTEIZ (2009-08-05)

*Bertsolariak: O. Perea, As. Otamendi,
A. Egaña eta U. Iturriaga.*

Gai-emailea: Lierni Altuna.

Ohikoak dira Gasteizko jaietan bertso saioak. Bertsozale asko inguratzen da eguerdi partean Aihotz plazara, eta oraingo honetan ere hirurehun bat lagun egon ziren eguzkipean bertsoak entzuten.

As. Otamendi-O. Perea

Gaia: Badaude gauza edo egoera batzuk normalean onak, positiboak, izaten direnak, baina batzuetan alde negatiboak ere izan ditzakete. Nik hiru emango dizkizuet, eta zuk, Asier, alde onak azpimarratu behako dituzu, eta zuk, Oihane, alde txarrak. Lehen hitza dirua da.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen jaunak*

As. Otamendi:

Diruarekin hamaika bihotz
poztuko ziren benetan
ta zenbat jentek egun osoa
pentsatuz pasa horretan?
Nola erosi zertxobait edo
nola joan oporretan?
Dirua denok maitatzen dugu
ez badaukagu zorretan.

O. Perea: Batzuek bizi dira faltan ta
 beste batzuek oparo
 “Diru gehiago! Diru gehiago”
 entzun izan da luzaro
 Txintxin soinuan barnekaldean
 droga antzeko bat dago
 gutxi euki edo asko eukita
 beti nahi dugu gehiago.

Bigarren hitza: bikotea.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

As. Otamendi: Nahiz ta munduan baden
 hamaika arraro
 bikotea ondoan
 gauza ona klaro
 bik asko egiten dute
 bizi lei oparo
 penak konpartitzeko
 hoberik ba al dago? (bis)

O. Perea: Bikotea izaten da
 famili zimendu
 ta gainera badauzka
 hamar mandamendu.
 Hasi ta gero nola
 luzaro mantendu?
 Asko maite duenak
 asko sufritzen du. (bis)

Hirugarren hitza: mozkorra

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

As. Otamendi: Tabernarantza nork ez du egin
noiz edota behin pausoa?
Trago bat hartu ta aldatzen da
igual mundu bat osoa
istant batean ahaztu diteke
lehenagoko arazoa
mozkorrekin mundu guztia
dugu *maravillosoa*.

O. Perea: Nahiz ta mozkorrak biharamunez
sortu kezka ta ardura
nahiz ta mozkorrak pozoin mordo bat
sartu ohi dugun barrura
nik ezer txarrik ote dun horrek
barrenean daukat duda.
Gaur mozkor on bat hartu nahi nuke
pesimismoan kontura.

BERASTEGI (2009-08-09)

*Bertsolariak: I. Gorostarzu, U. Gaztelumendi,
I. Zubeldia, A. Lizarralde,
U. Alberdi eta A. Barandiaran.*

Gai-emailea: Eneko Labaien.

Herriko festen barnean antolaturiko jaialdia. Herriko plaza erabat bete zen igande arratsaldean bertsolariak entzuteko. Saioaren erdi aldera euri zaparrada hasi zuen eta jendea baztertu egin zen, baina bertsolariek lanean segitu zuten. Jaialdi polita atera zen, oro har.

U. Alberdi-A. Barandiaran

Gaia: Uxue, bizilagun berria duzu: Aitzol. Aitzol, gaur goizean laugarren aldia da Uxue azukre eske datorkizula.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

A. Barandiaran: Berriz zabaldu eta
hau estuasuna!
Berriz ere aurrean
det bizilaguna.
Azukre eskean ez
etorri hurruna!
Gatza ez da ba izango
zuk behar dezuna?

- U. Alberdi: Ate atzean zaude
goizeko partean
ta nik kax-kax jotzen dut
daukadan artean
ja lau aldiz jarri naiz
Aitzolen atean
ea ulertzen dezun
halako batean!
- A. Barandiaran: Nere dote guztiak
ja hasi naiz galtzen
eta zalantza berriz
ari zait ugaltzen
“Zer nahi du? Zer nahi du ba?”
ari naiz pentsatzen.
Kafesneai ez zaio
hainbeste botatzen.
- U. Alberdi: Ni bigarrenera ta hau
hirugarrengora
hala tokatu ginen
ta Aitzol gogora
mutil goapoa zera
inondik inora
ta azukrea nahi nuke
ahotik ahora.
- A. Barandiaran: Eta aurrera eman
ditu bi pausoak
azukreik behar ez dun
neskatxa gaixoak.
Musu eske datorkit
kontu erosoak
gero mutilak gera
enpalagosoak!

U. Alberdi: Neskok ere nahi dugu
beti-betikoa
ta haseratik zaitut
oso begikoa.
Ez zara ba izango
ene mutikoa
maitasun kontuetan
diabetikoa?

A. Barandiaran: Pasatzen uzteak'e
ez du ezer txarrik
goizeko ordu hontan
badegu indarrik.
Parean azaldu zait
gaurkoan izarrik
goxatzeko ez duna
azukre beharrik.

U. Alberdi: Ataungo mutilak du
hainbeste entzute...
Zu zarelako nire
erotismo txute
nik gozatuko dut ta
goza zazu zuk'e
eztia emango dizut
azukrean truke.

A. Barandiaran: Poltsikoi beidatuta
hauxen da izua!
Azukrearen poltsak
galdu du pisua.
Unaik eman zidan bai
lehen abisua
merkego irtengo zait
Donostin pisua!

U. Gaztelumendi-I. Zubeldia

Gaia: Gaiak jartzen ari ginela zalantza izan genuen zuek biok ba ote dakizuen saio bat serio egiten. Saio serio bat egiten saiatu behar duzue.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Hamaika aldiz daukazu lehendik*

I. Zubeldia: Gai-jartzaileak hala eman du
 albotio albistea
 alde batera utzi ditzagun
 bromea eta txistea.
 Egia esan ez da hain zaila
 malkotara iristea.
 Bertsotarako ez ote dago
 gaur eguraldi tristea?

U. Gaztelumendi: Atzo ebia eta parrandan
 busti egin nintzan seko
 ta zertarako eta etxera
 bakar-bakarrik juateko!
 Ta Astarlozak lehengo astian
 eman omen zuen EPO.
 Motibo haundirik ez daukagu ez
 umoretik kantatzeko!

I. Zubeldia: Beraz tristetik jarraitu behar
 umoretio irtenda.
 Egunkaritan ikusi degu
 biok titular zerrenda:
 Realak ere ehun urte ditu
 jarri dute hainbat denda
 hemen Reala aipatuz gero
 jendea triste jartzen da.

U. Gaztelumendi: Realak nunbait egin behar du
segunda aldian buelta
ta orain berriz periodikutan
ipini dezu arreta.
Nik lanik ez ta ze triste nagon!
Horra nere gogoeta
periodiku bat erosteko ere
ez zait ailegatzen-eta!

I. Zubeldia: Herri guztitan bukatzen doa
erromeri ta orkesta
ta txunba-txunba dago nagusi
inguruetan gainezka
euskal presoan argazkiekin
sortu da nahikoa kezka.
Egia esan barre egiteko
motibo haundirik ez da.

U. Gaztelumendi: Oraindik ere luzea degu
euskal presoan itzala
eta festetan don egoera
ez degu ez mundiala.
Hemen serio kantatzen gabiltz
bai baino Iker aibala!
Oraindik inork ez du sinestu
mutil serioak gerala.

ZIZURKIL (2009-08-15)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Agirre, J. Agirre,
I. Zubeldia, A. Mendiluze eta J. M. Irazu.*

Gai-emailea: Igotz Alkorta.

Zizurkilgo jaietan ohikoa den jaialdia. Gauean izan zen, pilotalekuan. Entzule asko.

J. Agirre-A. Agirre

Gaia: Guk bakarren baten ametsa bete nahiko genuke gaur. Badakigu Amaiaren ametsa dela Joxeren magalean bertsotan egitea. Joxe, jar zaitez aulki horretan eserita, eta egin ezazue saiotxo bat.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Basatxoritxu moko luzia*

A. Agirre: Gabon Agirre gabon laguna
 ohikoa ez dan antzera
 zu azpian ta neska gainean
 ene hau da abelera!
 Gerriko minez beti kejati
 aurrera eta atzera
 hezurak guztiz hautsi ezean
 oaintxe mejorauko zera.

- J. Agirre: Itxura danez zu ote zera
mejoratzeko pentsua
hezurak gaizki eduki arren
ondo dadukat zentzua.
Azpitik eta gainetikan ni
bietatik naiz zintzua
ta gainera orain egingo nuke
zerbizio berdintsua.
- A. Agirre: Zahartu da baina adarra jotzen
oraindik gizon kabala
ez det izan nahi neska gaiztoa
alua edo petrala
baina zurekin segi dezaket
abitu zeran bezala
sinistu nahi det azpiko hori
kartera bakarrik dala.
- J. Agirre: Kartera ipur gainean daukat
nahi badezu sinistia
emango dizut gazte maitea
uste ez zan albistia.
Pentsatze'al zendun magalian nik
zuri ondo ez eustia?
Ta belaun baten gainean zaude
sobrean daukat bestia.
- A. Agirre: Aizazu Joxe jarri nahi nauzu
orain bertsoan trantzeko
baina bizkarrik ez det eman nahi
badet nahiko errespeto.
Bada garaia eskuina utzi
ta ezkerrera pasatzeko
belaun parean ez baitet aski
zuri itzala egiteko.¹²
- J. Agirre: Lehenago ere ume ederrak
zaindu izan ditut baina
gaurko honetan haundi xamarra
tokatu zait alajaina!
Ez zera baldar torpea eta
ez zera oso liraina
ipurdia ere eukiko dezu
leguna eta bikaina.

(12) Beste belaunaren gainean jarri zen Amaia hori kantatzearekin batera.

A. Agirre: Gezurrik ez du kantatu eta
 ez det beztuko kopeta
 baina ni Joxe hain nago lirain
 nere kiloez beteta.
 Zure hezurrak bihar goizean
 zenbat min ta zenbat buelta
 baserritarrei atze zabalak
 gustatzen zaizkie-eta.

J. Agirre: Ganaduetan atze zabalak
 beti izaten du afana
 zuk badakizu jenero hori
 neri gustatzen zaidana.
 Biyar hezurrak gogorak beraz
 hori didazu esana
 hortik aurrera daukatana da
 asko gogortzen ez dana.

M. Lujanbio- J. M. Irazu

Gaia: Maialenek eta Jexux Marik marka bat dute: telebista saio bat bertan behera uztea. 1994an, *Debaldeko festa* programara joan ziren Igor Elortzarekin eta Unai Iturriagarekin batera. Nonbait kritika gordin samarrak egin zituzten, orduko Zuzendaritzak saioa eten eta kendu egin baitzuen. Orain aldaketa etorri da, ordea, eta berriro jarri dute *Debaldeko festa* saioa, eta berriro ere gonbidatu zaituztete. Zuk, Jexux Mari, aurreko aldi bezala, libre jardutea erabaki duzu; nahi duzuna esango duzu. Maialenek, ordea, bere bertsoak telebistako agintariek entzun nahiko luketenera moldatuko ditu.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Mutil koxkor bat itsuaurreko I*

J. M. Irazu: Hamabost urte pasatu dira
gehienak gure kaltean.
Amatiño zan orduan nunbait
Zuzendaritzan tartean
ta Debaldeko festa galesti
bihurtu zen bapatean.
Ordun kalea geurea dela
jarri nuen paretean
gaur'e horixe idatziko det
Patxirengana juatean. (bis)

M. Lujanbio: Badakizute errebeldeak
ta gazte xamarrak gera
baina ez degu desaprobetxau
telebistako aukera.
Dena neurrian dena tamainan
goaz orain esatera.
Beraz kalea gurea dela
buelbaka-buelbaka zera:
azken batean Patxi Lopezek
esan duen gauza bera. (bis)

J. M. Irazu: Bai orain berak hartu du eta
guk behar al degu lotsa?
Telebistara joan ta egin
berez geranan aitortza.
Pluraltasunan kontzeptua da
haien eskutan motz-motza
eta gainera jarri dutenez
halako filtro zorrotza
bertsolariak izan behar du
falta direnen ahotsa. (bis)

M. Lujanbio: Berriro hemen guri begira
berriz kamara gehienak
bertsolariak kantatzen ditu
gaur eguneko problemak:
kezkutzen gaitu euskal aferak
kezkatu euskal eszenak
baina ez daudenak ez du esan nahi
nonbait preso dauzkatena
gure Irazuk esan nahi zuen
etorri ezin dutena. (bis)

J. M. Irazu: Subtituloa ondo egin dezu
pentsatu dezu aurrena
baino agian papeleta zail
bat etor leike hurrena.
Haien neurrira mintzatzen zera
horrek ematen dit pena
gordez ta gordez, gordez ta gordez
lehertu leike barrena
autozentsura izaten baita
zentsurarikan txarrena. (bis)

M. Lujanbio: Utzi itzulpenak ta esango det
zer dabilkidan buruan
zer kritikatu zertaz kejatu
badago gure munduan.
Ez zazu pentsa autozentsura
dabilkidanik ahuan
sarri alperrik da telebistan
irten ta lehertzera juan
hobe da esan euren hizkuntzan
baina ulertzeko moduan. (bis)

BILBO (2009-08-20)

*Bertsolariak: B. Ugartetxea, M. Artetxe,
B. Gaztelumendi eta O. Bartra.*

Gai-emailea: Joxerra Bilbao.

Bilboko Aste Nagusian, Santiago plazan izaten diren saioetako bat. Ordu batean izan zen eta entzule asko elkartu zen bertsolariak entzutera. Oihana Bartra berandu, saioa hasita zela, iritsi zen, Kaskagorriko konpartsakideekin batera atxilotuta eduki baitzuen Ertzaintzak. Saioa egin edo ez zalantzan egon ziren, baina azkenean egitea erabaki zuten. Lehenbiziko bertsoaldia librean egin zuten.

B. Ugartetxea-M. Artetxe-B. Gaztelumendi

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

B. Gaztelumendi: Gaur goizean zer gertatu zaigun
denok zerate lekuko
dirudienez beltzak agertu
eguna argitu orduko
Kaskagorrira agertu eta
ziren kaskagorrituko.
Aulki bat hutsik daukagu baina
gu ez gera isilduko.

- M. Artetxe: Azkenaldian hemen txakurrak
harrotu dira zeharo
ta Kaskagorri sartu zaizkigu
gaur kaskagorriak klaro
eta Oihana beste askorekin
ezin mugiturik dago.
Beraz gaur hemen bat falta zaigu
bueno beste bat gehiago.
- B. Ugartetxea: Nahiz eta hemen kantatze hutsak
edozeineri eman poz
gaurkoan dugun berri honekin
gu nahikoa goibel gatoz.
Probokazio hutsean dabil
zein ez da nerekin ados?
Egun ilun hau argitu daigun
bertsoz eta zuen txaloz.
- B. Gaztelumendi: Kartelak kendu ditzaten nunbait
egin diete erregu
dirudienez sortuko zien
eta nahikoa ernegu.
Nahiz une oro indar horrexen
mehatxupean gauden gu
gure herriaren apologia
egiten segiko degu.
- M. Artetxe: Jipoitu eta atxilotuak
zenbat neska ta mutiko!
Gure egoera honen aurrean
izan gaitezen kritiko
baina kritikak barruan izan
ta kanpoan segi tinko.
Hala nahi dute baina ez diegu
festa izorratzen utziko.

B. Ugartetxea: Beraien ustez nahiz ta baduten
makinatxo bat bertute
jai giro hontan dabilen orok
holakorik ez du uste.
Gaurkoan ere sortu digute
kalte eta buruhauste...
kartelak kentzen joan ta Oihana
karteletik kendu dute.

O. Bartra

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Sentimentua sartu zitzaidan*

Hona orduko kasi euki dodaz
hiru atake kardiako
kasko gorriak Kaskagorrira
hurreratu direlako.
Adierazpen askatasuna
kendu deuskue *de facto*
baina presoak kaleetatik
ez deuskuez atarako
gure bizitzen parte izanik
maitatzen ditugulako. (bis)



EHUko Udako Ikastaroa
(Donostia, 2009-08-29)

Iturria: Egoitz Zelaia

ARRASATE (2009-08-22)

*Bertsolariak: A. Arzallus, S. Colina,
A. Mendiluze eta A. Agirre.*

Gai-emailea: Jokin Labaien.

Ulibarri auzoan izan zen, gaueko hamar eta erdietan, berrehunen bat lagun entzuten zirela.

A. Mendiluze-A. Arzallus

Gaia: Aita-semeak zarete, Aitor aita eta Amets semea. Madrilera bidean zoazte, nahiko isilik, Ametsek Auzitegi Nazionalean deklaratu behar duelako. Berak lan egiten duen tabernan argazki batzuk omen daude.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Ludi bizitza abesti gozoz I*

A. Mendiluze: Argazki batzuk zeuden tabernan
eta ertzainak azaldu.
Ez dezu ezer egin zuk baina
horrek inportako al du?
Jakin badakit justizi hortan
inor ez dagola salbu.
Motibo askorik ez dago baina
esperantzarik ez galdu.

- A. Arzallus: Barra gainean hiru argazki
Lorea, Jon eta Unai
ta ni azpian trago serbitzen
nornahiri eta nolanahi
baina kartzela etor liteke
ta urte askokoa ere bai.
Aita ez dakit zergatik baina
trago hau ez dut pasa nahi.
- A. Mendiluze: Zuretzat ez da trago gozoa
neretzat ere tristea
tabernan lana egitearren
honetara iristea.
Madrila biok goaz kotxean
kontu hau eta bestea
ta ez nuke nahi gaur egindako
bide hori ikastea.
- A. Arzallus: Baina agian beste behin ere
pasako zara hemendik.
Argazkiak han egongo dira
ez duten arte etxerik.
Etorri ziren kentzera eta
ezetza eman nien nik
baina horiei nork esan die
ez dugunik nahi kentzerik?
- A. Mendiluze: Inork ez die esango eta
agian horrek harritu
baina ezin da etxean beti
horrela husten aritu.
“Agian kendu ezkerro hobe”
pentsatu eta larritu
agian lotsa izango nuke
kendu izan bazenitu.

- A. Arzallus: Libre utzita kendu nahi ditut
gaur bihar edota aurten
baina gaur nola Audientziara
beraiek ekarri nauten
nik galdera bat egingo dizut
ba al dakizu erantzuten?
Audientzia Nazional hontan
inork ba al daki entzuten?
- A. Mendiluze: Hauena ez al da belarririk ez
batek daukan aurpegia?
Belarririk ez eta ahoa
haundia haundiegia.
Baina zu izan zaitezke lasai
zarena zeu alegia
azaldu eta kontatu'iozu
benetan zeure egia.
- A. Arzallus: Esango diot “ Beti izan naiz
neure lagunen sostengu
ta lagun batzuk edukitzea
zer den jakingo bazendu!
Ta horregatik preso har nazazu
nahiz legeak ez gailendu”.
Ta argazkitan jartzen banaute
aita zuk ez zazu kendu.

HONDARRIBIA (2009-08-29)

*Bertsolariak: J. Maia, A.M. Peñagarikano,
M. Lujanbio eta A. Sarriegi.*

Gai-emailea: Egoitz Aizpuru.

Hondarribiko Santiago kalean izan zen jaialdi hau, laurhun bat entzule aurrean zirela. Giro polita izan zuten bertsotan egiteko, baina zenbait unetan zarata handiegia ere bai.

*J. Maia-A.M. Peñagarikano-
M. Lujanbio-A. Sarriegi*

Gaia: Nola bizi duzue zuek futbola?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

A. Sarriegi: Hainbeste jendek asteburuko
 partidua ohi du xede
 jokuan nola ibiltzen diren
 hainbat jokalariretrebe.
 Osasunaren zalea naiz ni
 sufritua alafede!
 Baina lo lasai egiten det nik
 galtzen duenean ere.

- J. Maia: Uda bukatu ta liga hasi
ez da gure borondatez
udak udara izan behar du
itsasoaren izatez.
Munduak mundu izateari
uzten dio une batez
eta baloi bat ikusten degu
gure planetaren partez.
- A.M. Peñagarikano: Batzuk jokoan ibiltzen dira
beste batzuk jolasean
Reala berriz Bigarren Mailan
dago denbora luzean.
Athleticzale beti izan naiz
zuek dakizuen klasean
ta gozatzen det Bartzelonaren
kontra jokatu ezean.
- M. Lujanbio: Realarekin sufritzen du ta
gozatu jende mordoak
irabazita ni poztu eiten naiz
ematen badit gogoak
tristetzeko ez, badaudelako
gauza serioagoak
ta zoritxarrez serioago
eta ugariagoak.
- A. Sarriegi: Egia da bai jarri ohi gaitu
sarri begiak itxita
pantaila bati begiraturik
beste kontuak utzita.
Azken batean zer da fubola
beste begiz ikusita?
Lau *millionario* praka motzetan
baloi zahar bati segika.

J. Maia: Emozioak hasi ohi dira
beroa pasa ondoren.
Hemen jendea ez dakit ondo
futbol gosez izango den.
Ia saltoa egiten degu
golen bat sartu baino lehen.
Pentsatu gure herri triste hau
zer poz premitan dagoen!

A.M. Peñagarikano: Gaur Numantziak eta Realak
ein omen dute enpate
Valentziara han joan nintzan
Euskal Herritik aparte.
Tomsonen kontra ostegunean
ni San Mamesen jo ta ke...
Nere emazteak arrazoi dauka
“Danak zoratu zerate!”.

M. Lujanbio: Egoten dira zenbait pertsona
aldarte oneko lasai
baina iristen da igandea ta
dana da futbol dena jai.
Orduan oihu orduan buila
“Oe! oe!” ta “Ai! ai! ai!”.
Gure etxeko zenbat sofatan
doktor Jekill ta mister Hide¹³.

(13) Hide: “Jai”, ingeleraz ahoskatuta.

ALKIZA (2009-09-04)

*Bertsolariak: S. Lizaso, A. Egaña, A.M.
Peñagarikano, M. Lujanbio, J.M. Irazu eta
I. Zubeldia*

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Urteroko hitzordua izaten dute bertsolariek Alkizako jaietan. Gauean izan zen, pilotalekuan, eta entzule asko inguratu zen bertsolariak entzutera.

M. Lujanbio

Gaia: Ez, ez, ez, ez. Ez, ez eta ez. Ez.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Sentimentua sartu zitzaidan*

Taberna baten izan liteke
barra ertzean ederki.
Bi lagun ari dira mintzatzen
goxo, emeki-emeki.
Gehiagorako gogoa ere
igual sartzen zaio bati
erasotzen du zapaltzen du ta
bestea dago dudati...
Tono askotan esanagatik
esanahi bera du beti. (bis)

Beste batzutan ideia bera
da bi lagunen burutan
izarapean bukatzen dute
gusto gozoko burrukan:
batek laztandu gero igurtzi
muxuka eta zurrupan
lepa ertzetik gorantza joan
ta hitz belarrian puntan.
Ezezko goxo-goxo batek hor
bai esan nahi du batzutan. (bis)

Baina normalki arriskutsugo
izaten dira tabernak
hango burrundak hango alkoholak
nahasten baikaitu denak.
Izarapeko jolas hoiek ez
hoiek ez dira problemak
monosilabo bi: bai eta ez
ta ze alde nabarmenak!
Bi hoiek ondo bereizten ditu
entzuten badakienak. (bis)



Bertsoaroa
(Iruñea, 2009-10-29)

Iturria: Nafarroako Bertsozale Elkartea

ELORRIO (2009-09-06)

*Bertsolariak: M. Amuriza, E. Lekue,
F. Paia eta A. Estiballes*

Gai-emailea: Maite Berriozabal.

Feria egunaren barruan Udalak antolatu zuen jaialdia. Plazan izan zen, arratsaldeko zazpi eta erdietan.

E. Lekue-M. Amuriza

Gaia: Goizean feria nagusia izan da Elorrion. Etxahun artzainak gazta postua jarri du. Jendeak probatu bai, baina ez du ezer erosten. Miren askotan pasa da gazta probatzera.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Elizan sartu ziradenian I*

E. Lekue: Goizean nonon aparkau eta
 justu-justuan iritsi
 eta ekarri dodaz gaztaiak
 baina saldu dodaz gitxi.
 Pasetan zaren bakotxean zuk
 tentazinoa ezin eutsi
 aprobatzea ondo dau baina
 besteentzako be itxi.

- M. Amuriza: Aprobau eta kritika ere
egin gura neuke hemen
ardiarena dala uste dot
dozenerdi jan ondoren
baina ondino ez nau seguru
nahiz aproba egin lehen
ondino ez dakit zure ardiak
ze arrazatakoak diren.
- E. Lekue: Bardin dotsu ze arrazakoak diren
ta ez hasi atxakitan
nire aurretik hiru bat orduz
pasatu zara sarritan
gaztai osoa jango zenduan
ez dakit zenbat zatitan
ta gaztai hori Miren saltzen da
hamabi euro t'erditan.
- M. Amuriza: Ondino ere azken zatia
buelbaka daukat ahoan
ta antza danez platerekoa
ezin da eroan doan.
Bi gaztarekin dudatan nago
baina Etxahun oraingoan
beste zati bat emoidazu ta
esango'tsut zein nahi dodan.
- E. Lekue: Hementxe zabiz ferigunean
aurrera eta atzera
hogeit bat zati jada jan dozuz
beste gitxiren antzera
gaztairik barik ta diru barik
ezin bueltatu etxera
gitxienean gonbidau naizu
zeuenera bazkaltzera.

M. Amuriza: Jaiegunetan gure jangela
beti egoten da beteta
baina halan be gaur hartu dogu
zugana etortzeko beta
gozoa egon da ta ez deusat jarri
prezioari arreta.
Bueno banoa koadrilakoak
aurrerantza doaz-eta.

A. Estiballes

Gaia: Kontrol neurriak gero eta handiagoak ei dira gizartean. Eraikin honetara sartu zarenetik gutxienez hamar kamara ikusi dituzula ohartu zara.

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Abokatuak deitu berri dit*

Mundua nola aldatu zaigun
hauxe da gero pasada!
Eta txarrerantz egiten doa
hemen ai azken bolada:
Alde Zaharrean zabiltzanean
tabernatik tabernara
igual paisanoz dijoan nonok
zasta! lehen begirada
gero kontrolak errepidean
eta kalean kamara
laister amaren barrutik ere
preso aterako gara. (bis)

Ez dakit gure mundu triste hau
edo neu nagoen zoroa
baina jenteak adierazten du
segurtasunan gogoa:
“Jarri nire kalean kamara
etxera lasai ez noa
polizia askorik ez dabil
hori da nire susmoa”...
Horrelako hitzak entzuteaz
ni aspertu naiz mordoa
kontrol gehiagokin be mundua
ez da seguruagoa. (bis)

Bilbon ere ointxe jarri dituzte
ehun ta hamar kamara piku
saihestu nahi omen dituzte-ta
ez dakit zenbat delitu.
Horretan dirua gastatu bai
gure poltsikoak siku.
Irtenbiderik egoera honi
ezin bazaio aurkitu
demokrazia deitzen dan honek
ez du hainbeste meritu
gu kontrolatzen gaituzten hoiek
zeinek kontrolatzen ditu? (bis)

LEZO (2009-09-15)

*Bertsolariak: S. Lizaso, E. Lagoma,
J.M. Irazu eta A. Egaña.*

Gai-emailea: Jon Zaldua.

Lezoko jaietan, baserritarren egunean, urtero ekartzen dituzte bertsolariak egun osorako. Bazkalondoa bi elkartetan kantatu ohi dute, eta ilunabarrean plazan elkartzen dira denak. Plazako saiotik hartu dugu ondoko bertsoaldia.

S.Lizaso-E. Lagoma

Gaia: Bikotea zarete. Elkarrekin hainbat urte pasatu eta gero, ezkontzea erabaki duzue. Ezkontza xumea egitekoak zineten, normal jantzita, gonbidaturik gabe... Etorri zara zu, Sebastian, udaletxe aurrera, zintzo-zintzo ordurako, eta halako batean hor agertu da Erika, *Rolls Roice* batean, zuriz jantzita; eta eliza atarian geratu da.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

S. Lizaso: Tratua ez dezu ondo bete
 mesede edo kaltera:
 txuriz jantzita auto haundi baten
 udaletxeko atera...
 Hara Erika nik oso zuzen
 egingo dizut galdera:
 bihotza ere aldatu al zaizu
 itxurarekin batera? (bis)

- E. Lagoma: Bihotza ez dit zuk bezainbeste
inorrek inoiz urtuko
printzesa bat naiz eta printzesak
behar du mila lekuko.
Egun haundia dugu guretzat
eta ez zazu egin uko.
Ezkondu ginen egun haundia
ez duzu inoiz ahaztuko! (bis)
- S. Lizaso: Nik memoria ona dadukat
beraz egon zaite lasai
baina ekarri dezun itxura
elkarbizitzaren etsai.
Beti aitortu izan dizut nik
printzesak hainbeste dohai
neretzat beti horrela zera
ta zuk denentzat izan nahi. (bis)
- E. Lagoma: Baino itxurak gure barrena
ez du sekula aldatzen
eta zergatik ezin dut esan
maite zaitudala ozen.
Rolls Roice haundi bat aukera dut
eta aukera ona zen
mini batean Xebaxtian maite
ez zeralako kabitzen. (bis)
- S. Lizaso: Ezkontza xume eta apala
horixe genduen amets
gure burutan ez zegolako
ez luxu ta ez interes.
Etxera noa bi eraztunak
hantxe ahaztu zaizkidanez
eta bidean pentsatuko dut
bueltan etorri edo ez. (bis)

E. Lagoma: Bueltan etortzen ez bazara're
 nik irrifartsu ahoa
 ez dut sinesten bota duzunik
 barrenetik hordagoa.
 Gozatu zazu gure hasiera
 ta bizitza oparoa
 bide ederrak beti behar du
 hasiera ederragoa. (bis)



*Hernandorena Sariketa
(Larresoro, 2009-04-06)*

Iturria: Bertsularien Lagunak Elkarte

LASARTE-ORIA (2009-09-27)

*Bertsolariak: T. Garmendia, I. Lazkano,
J. Agirre, J. Azpillaga, K. Lizaso, P. Etxeberria,
A. Egaña, J. M. Irazu eta U. Muñoa.*

Jaiotzez oriotarra da, baina aspaldiko urteetan Lasarte-Orian bizi da Patxi Etxeberria. Urte askotan ibili da plazaz plaza bertsoetan, eta herriak, herritarrek eta lagunek eskertu egin nahi izan diote egindako lana. Eguerdiko hamabietan izan zen, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Bertsolaririk gazteenek bertsoen bidez eman zituzten kanturako gaiak.

U. Muñoa

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Uso zuri bat inguratu zait I*

Azpillaga ta Txomin etorri
nator zalantza ta guzi
nesketan nabil lorarik lore
muxu, irri ta igurtzi
buruan dauzkat hainbat galdera
baina erantzunak gutxi
zer det hobea orain ezkondu
edo gerorako utzi?

J. Azpillaga-T. Garmendia

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Uso zuri bat inguratu zait I*

- J. Azpillaga: Usterik gabe galdera edarra
horrek badigu emana.
Goguan hartu beharko degu
lehengo bertsoan esana
andragei eta senargeiekin
ugari daukate plana
baina ezkondu beharrekoa da
hortarako dagoana.
- T. Garmendia: Muñoa gazte hau hor hasi zaigu
amoriozko langintzan
eta berorri gertatutzen da
ezkondutzeko peskizan.
Mutilzahartuta jarri nintzan ni
ezkonduaren bizitzan
zure aukera izandu banu
lehen ezkonduko nintzan!
- J. Azpillaga: Gure denboran hainbeste gauza
albora ginuzen bota
gaur ezkondu edo ez ezkontzea
bat'e ez zaie inporta.
Behar dana da neska-mutilak
alkarrekin ondo porta
ezkondu edo ez berdina da
sexoa libre dago-ta.
- T. Garmendia: Iruditzen zait gauza horretan
asko eztabaidatu leikela
ikusten ditut ezkondu asko
nahiko gaizki dabilzela
eta neronek aitortzen det nik
hain zoriontsu naizela.
Hor'e suerteak agindu behar du
loteri baten bezela.

J. Azpillaga: Nik ondo dakit gauza nolatan
izaten dan konpontzeko:
andre-gizonak izan behar dute
batak bestien antzeko
garaia ere ona behar du
oso pozik ezkontzeko
gizonarentzat andrea ona da
etxean ondo bizitzeko.

T. Garmendia: Etxean ondo ta beti pozik
alkarren aldamenean
estuasu ta lasaitasunez
hain borondate onean
ezkondu danak ez dira bizi
betiko zorionean
arantza ere sarritan baita
lorea aldamenean.

J. Azpillaga: Ezkondu eta banatutzea
ez da oraingo berria
baina hortatik sortu liteke
kalte ikaragarria.
Garai batetik ikusten dana
behera joan da baserria
eta ezkontza galtzen bazaigu
akabo Euskal Herria.

T. Garmendia: Baina munduko etekin dana
ez da ezkontza bakarra
beste gauza asko eta ohituretan
hartu liteke indarra
eta ezkondata zaudeten danai
dadukat esan beharra:
San Antonioz oroit zaitezte
ez da laguntzaile txarra.

- J. Azpillaga: Ezkontzarekin neurtutzen da behar bezela sendia.
Garai batean baserrietan zegon jendetza haundia ta orain berriz galtzen ari da sinismenaren mendia.
Gauzik onena ezkontzarentzat degu formalidadia.
- T. Garmendia: Mundu honetan gertatzen dira ez dakit zenbat zoramen bainan gertatzen dan guztiari kolpetik ez esan amen.
Ikusten det nik ezkontza hortan eginik hainbat aipamen.
Isiltzea're komeniko da danak aspertu baino lehen.
- J. Azpillaga: Beraz honekin eman beharra izango degu azkena.
Andre-gizonak konpondu ezin horrek ematen du pena oso bezturik ikusten det nik datorkigun ondorena.
Batak bestea maitatzea da gauzik beharrezkoena.
- T. Garmendia: Etxeberria ta bion artean izan da hainbeste txasko esan liteke bertso kontuan gu ginala maiorazko ta Berrobin San Agustinetan zu zinaden beharrezko eta herritar danen partetik bihotzez eskerrik asko.

IRURA (2009-09-27)

*Bertsolariak: A. Mendiluze, S. Lizaso,
J. Martin eta U. Alberdi.*

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Sanmiguel jaiak zirela-eta antolatutako jaialdia. Plazan izan zen, arratsaldeko zazpi eta erdietan. Jende multzo polita egon zen bertsolariak entzuten.

A. Mendiluze-J. Martin

Gaia: Zuek Irurako elkarte bateko bazkideak zineten, Gazte Alaiak elkartekoak, hain zuzen ere, baina kanporatuak izan zarete, eta ez gazteak ez zaretelako, alaiak ez zaretelako baizik; oso tristeak zarete biok, oso-oso tristeak. Orain zuen tristura azaldu behar duzue bertsotan, nor ote den pertsona tristeagoa.


Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Hamaika aldiz daukazu lehendik*

A. Mendiluze: Bizitza pozik bizi behar da
txorakeri latza hara!
Datorkizuna ezin sekula
joandakoekin konpara
eta datorren egun bakoitza
onartu behar al da ba
egun bakoitza bukaerarako
pauso berri baldin bada?

- J. Martin: Beti penetan beti penetan
burumakur gehianean
triste kaletik joaten gera
egunaren azkenean.
Jaiotzetiko bizimina dut
nere barren-barrenean
loreak ere ximeltzen ditut
beiratzen ditudanean.
- A. Mendiluze: Ta nola pentsa geu ote gauden
dohai ederrez beterik
inundik ere ez badaukagu
planta tristea besterik?
Neure itxuraz ere ez daukat
oso pozik egoterik
ispilukoak parre egiteak
negargura ematen dit.
- J. Martin: Gu hurbilduta festa batean
sekula ez dugu giro.
Nere buruai egunen baten
eman behar diot tiro
ta tristetzeko motiborikan
aurkitze ez dudan aldiro
barrua triste-edo jartzen zait
ez al da nahiko motibo?
- A. Mendiluze: Nahiz eta izan irripartto bat
sortzeko aina intentzio
barrutik ez du irten nahi eta
igual ez degu desio.
Gazte Alaiak elkarte hortan
horrekin zenbat sesio!
Handik irten ta egin gaituzte
parrokiako sozio.

J. Martin: Izan gintezke gu tristuraren
lehendakari ta errege
sarri malkoak egiten baitu
irriak aina mesede.
Gizarte hontan asko mintzatu
ohi dira pozaren alde
baina pertsonak jakin behar du
tristuraz gozatzen ere.



*Patxi Etxeberriari omenaldia
(Lasarte-Oria, 2009-09-27)*

Iturria: Alberto Elozegi

IURRETA (2009-10-03)

*Bertsolariak: A. Egaña, A. Arzallus, I. Elortza,
J. Maia, M. Amuriza eta M. Arzallus*

Gai-emailea: Maite Berriozabal.

Aspaldidanik antolatzen dute bertso jaialdia Sanmigel jaietan. Pilotalekuan izan zen, gaueko hamarretan, eta jende asko inguratu zen bertsoak entzutera.

M. Arzallus-M. Amuriza

Gaia: Miren, Maialenek, zuk dakizula, behintzat, ez du sekula bikotekiderik eduki, eta antza denez topatu du; egunotan ez du berari buruz berba eta berba baino egiten. Azkenean, jarri duzue hitzordua Maialenen bikotea ezagutzeko. Ordubete inguru daramazue zain, baina hemen ez da beste inor ageri.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Antton eta Maria*

M. Amuriza: Entzutekoa da honek
 dakarren nobela
 antza topatu eban
 mutil bat itzela
 guapoa berbalduna
 ba eukan nibela...
 Baina ez al dakizu
 -oraindik honela!-
 printzeak ipuinetan
 bakarrik daudela? (bis)

M. Arzallus: Bere bila ibili
nintzen gau ta egun
albotik pasa ditut
hamar mila lagun
zuk esan duzunari
nahi diot erantzun:
bera ez da etorri
nahi baduzu entzun
nola printzeak ere
beldurtzen dituzun. (bis)

M. Amuriza: Zurekin ez dago errez
zer dozun jakiten
baina istorioa
behar dogu eten.
Mutil-laguna topau
omen duzu aurten
baina ez da agertzen ta
hor zer heldu jaten:
auto-stop egiten
ezautu al zineten? (bis)

M. Arzallus: Egia esan Miren
zabiltz oso zuzen
bera deklaratu zen
gustora ta ozen
ausartu zen autoan
ni berekin hartzen
ni ere ausartu nintzen
han berekin sartzen
berak nahi zuen baina
zaharregia zen. (bis).

M. Amuriza: Adina begiratzuz
baina berdin-berdin
sartu zinen autoan
ta aurrera egin.
Pelikula ikusten dut
ondo joan dadin
bataren puroa ta
zu soineko horrekin
bata printze urdina
bestea Marylin. (bis)

M. Arzallus: Eta Marylin dabil
printzearen bila
ahal bada guapoa
zintzoa, umila...
Oraingoa suertatu
da oso abila
ez badu etorri nahi
izorra dadila!
Presentatuko dizut
hurrengo mutila. (bis)

J. Maia

Gaia: Andre banandua zara, eta hiru seme-alaba dauzkazu zure kargu.
Hasieran langabeziako diruaz moldatzen zinen, baina orain hori
ere ez duzu jasotzen. Gaur gauean kalera irten zara, prostituzioa
helburu-edo.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Bizitza bera krudela bada
hau gehiegi ez ote da?
Banandu nintzen ta lana galdu
guztia doa gainbehera.
Beti bizi naiz esperantzetan
baina beti da bezpera
orain gorputza baino ez daukat
kastigatua gainera.
Sentimentuak etxean utzi
eta banoa kalera. (bis)

Azkenaldian ez dakit nola
eraman nere desditxa
bidean zehar galduko nuen
zoriontasunen giltza.
Zer da kalera irten beharra?
Zer da bihotza hain pitza?
Baina ez dakit ama izanik
etxea nola zerbitza
ez nintzateke kalera joango
ama izango ez banintza. (bis)

Nere senarra bihotz-bihotzez
urte luzeetan dut maite
edaten hasi eta kolpeka
hor hasi zitzaidan arte.
Orain guztia itxia daukat
nola bihotz hala ate
bakar-bakarrik denen aurrean
horixe dut nere kalte
eta gainera herrian denek
“Puta” esango didate. (bis)

USURBIL (AGINAGA) (2009-10-10)

*Bertsolariak: A. Arzallus, A.M. Peñagarikano,
J. Oiartzabal eta S. Colina.*

Gai-emailea: Iñaki Agirresarobe.

Jaietan beti izaten dira bertsolariak Aginagan. Ludotekan izan zen, arratsaldeko zazpi eta erdietan; hirurogeita hamar bat entzule.

*A. Arzallus-A.M. Peñagarikano-
J. Oiartzabal-S. Colina.*

Gaia: Astelehena, urriaren 12a, jaieguna da askorentzat, baita Hego Euskal Herrian ere. Zer deritzozue?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Ari naizela ari naizela*

S. Colina: Hamabigarren eguna urriak
 du kolore gorriduna
 Espaini aldean izanagatik
 atsegina ta leguna
 beti gauza bat bakarra izan da
 guk ulertzen ez deguna:
 euskaldun batek nola ospatzen du
 guardia zibilen eguna?

J. Oiartzabal: Nahiz ta ulertzen egiten dedan
nola hala ahalegina
Euskal Herri ta espainiarrentzat
ez da egun bat berdina
jaieguna da guardia zibilen
eguna, gauza jakina
baina galdera ez zendun eingo
artzaia izan bazina.

A.M. Peñagarikano: Beraien alde edota kontra
nola dago euskalduna?
Irizten diot ongi dagola
lehen Sustraik esan duna
guk ez genuke ospatu behar
hoi da oroitzen deguna
ez eta ere abenduaren
konstituzio eguna.

A. Arzallus: Nik hiru karnet dauzkat patrikan
jaten bainaute bi herrik
baina ez dira bi nereak ta
besteak ez du indarrik
ta jai egunak jartzen dituzte
neretzat alper-alperrik
herririk gabe nik ez baitaukat
guardia zibilen beharrik.

S. Colina: Nahiz ta hurrengo astelehena den
herri zahar honen islada
guardia zibilaz dugun harreman
raro horri errepara:
ostiak eman egurra eman
guk kritika zaparrada
behingoagatik jai eman eta
gu berdin kejatzen gara.

J. Oiartzabal: Orain artean gure kontura
egin dute nahiko parrik
baina geurean egoskor segi
ai dira alper-alperrik.
Nahiz ta aitortu jai egiteak
berez ez dun gauza txarrik
ez dadukagu guk jai noiz egin
bestek agindu beharrik.

A.M. Peñagarikano: Zein izan degu holako egunak
festa ipini dituna?
Ta Pilarika Guardia Zibilak
noiztik izan du kuttuna?
Esan dezagun beti euskalduna
izan dala fededuna
eta sinestu astelehena da
Ama Birjina eguna.

A. Arzallus: Etxera bueltan joatean edo
ateratzean etxetik
sarri Patrolek paso emanaz
mugan espaloi ertzetik
ta astelehenak zeozer baldin
badu Ama Birjinetik
ea ba lasai pasatzen geran
Bidasoaren gainetik.

URRUÑA (2009-10-25)

*Bertsolariak: A. Arzallus, M. Arzallus,
M. Artetxe, O. Barroso eta S. Colina*

Gai emailea: Xumai Murua.

Kultur astearen kariatara apailaturiko bertso saioa. Itsas Mendi gelan izan zen, arratsaldeko bost eta erdietan, laurogeiren bat entzuleren aurrean.

M. Artetxe-S. Colina

Gaia: Senar-emazteak zarete. Sustrairi deusik esan gabe gau eskolan eman duzu izena Miren, zure euskara freskatzeko ideiarekin. Sustrai, ordea, zure joan-jinez beldurtzen hasia da.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

S. Colina: Nahiz ta aurrera egin nahi duzun
ikastaroz ikastaro
ene laztana azkenaldian
arras beldurtuta nago
klaseak utzi ondorenean
ze eztabaida ta ze trago!
AEKn beti ikasi izan da

- M. Artetxe: euskara baino gehiago. (bis)
Ikasi nahian ibiltzen naiz bai
aurrera eta atzera
garai batean ni izan nintzen
ikasle horren antzera
baina lasaitu senar maitea
lasai geldi zaitez zera
gero ostatura joaten baikara
orala praktikatzera. (bis)
- S. Colina: Barka zaidazu nahiz badakizun
haserre dela *colera*
eta euskaraz adiskidea
dela erderaz *colega*.
Zuk liburutik ikasi zazu
eta aprobatu EGA
euskara gaizki ikasten baita
mingainetik mingainera. (bis)
- M. Artetxe: Ta nola zaude beraz hain lasai
zu holakoak jakinik
kanpoan zenbat ikasi ohi den
ere ongi badakit nik
eta kexaka zatoz nigana
senar gaixoa oraindik
ez nuke hainbeste ikasi beharko
erakutsiko bazenit! (bis)
- S. Colina: Nahiz ta euskeraz neurez ditudan
nahiko hitz eta hiztegi
ta badakidan ze aditz eta
esaera diren zilegi
konsiderazio haunditan zauzkat
hala iduri zait neri
euskaraz soilik egiten diet
hurrei eta txakurreri. (bis)

M. Artetxe: Euskarak badu bere bidean
hainbat oztopo eta hesi
eta zu berriz hola zabilta
gure hizkuntzaz ihesi.
Gure harremanak era horretan
ez denez asko merezi
hartu txakur bat andretzat eta
txakurkume batzuk hezi. (bis)

S. Colina: Nere asmoa ez izan arren
txakurkumeak heztea
konprenitzen dut haserretu ta
kopeta hala belztea.
Ile horia denez bata ta
begi urdina bestea
agur laztana erabaki dut
suediarra ikastea. (bis)

M. Artetxe: Ergatiboa ikasi dut ta
orain esango dizut nik
ez dakidala nola nagoen
orain zurekin oraindik.
Beraz bukatu zaigu harremana
bai momentu honetatik
engainatua sentituz gero
gau eskolan hasteagatik. (bis)

AULESTI (2009-10-25)

*Bertsolariak: I. Zubeldia, U. Iturriaga,
M. Lujanbio, M. Amuriza,
I. Elortza eta I. Ibarra.*

Gai-emailea: Xabier Amuriza.

Lea-Artibai-Mutrikuko Hitza egunkariaren aldeko jaialdia egin zuten Aulestiko pilotalekuan, igande arratsalde. Laurehun entzuletik gora elkartu ziren, eta bertso-arratsalde ederraz gozatzeko modua izan zuten.

M. Lujanbio-I. Ibarra

Gaia: Iratxek ez du alde handirik ikusten Patxi Lopez lehendakari jarri denetik; Maialenek, berriz, bai.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

M. Lujanbio: Sozialistek izango dute
nahiko truko zenbait gako.
Gauzak bastante aldatu dira
ta noski okerrerako
eguraldia ere aldatu da
euzki bero egun asko
pentsa hori ere hegoaldetik
bialtzen digutelako.

I. Ibarra: Lehenago ere eukiten gendun
eguraldi aldaketa
udazkenean hori bastante
normala izaten da-eta.
Bertso mundua bardintsu dabil
jarri al dozu arreta?
Nik uste neban baina ez dabe
debekatu txapelketa.

M. Lujanbio: Baino seguru asko daudela
bertso amaierai begira
haiek entzun ta euren hortzetan
zital ta gaizto ditzira.
Lehenago ere hitza delitu
maiz bihurtu dute. Tira!
Orain argazki mutuak ere
delitu bihurtu dira.

I. Ibarra: Ai argazkien kontu horregaz
beti ekin eta ekin
egia da bai igual horretan
bagabiz pixkat desbardin
baina begitu tablau gainera
ta lehen bezala gordin
bertsolariak urtetan dabe
nahi daben kamisetekin.

M. Lujanbio: Bertsolariak kamisetekin
ta euren bertso aroaz
irteten dira euren kritikak
ta euren bandoak joaz.
Hala're Hitza egunkaria
baina atzerago zoaz
Hitza hori sortu zutenak laister
epaiketara dijoaz.

- I. Ibarra: Patxin aurretik dira baina horrek
kontu danok nabariak
nire ustetan orain be bardin
daukaguz gure argiak
ez dabez ahaztu gure herrirako
noizbehinkako opariak
ze oraindik be iristen dira
narratibako sariak.
- M. Lujanbio: Ta Patxik haiek irakurriaz
pare bat detaile merke
horiek beretzat hartu nahi ditu
hori're izan liteke.
Bien bitarte manifik mutu
ta isilik hainbat jente
nahi luketenak kaleak hustu
eta espetxeak bete.
- I. Ibarra: Egia da bai guk espetxeak
daukaguz nahiko beteta
ta luzaroan ez da helduko
igual hortan aldaketa.
Baina antzera jarraitzen dogu
guk lehen bezain lez erreta
ertzainek porrak lehengo moduan
astintzen deuskuez-eta.

I. Zubeldia

Gaia: *Antonio Bolas gezurrarekin jolas* izeneko liburua daukat esku artean; “Antonio Bolas, gezurrak egiaren kolorean esaten zituen gizon baten istorioak”. Antonio Bolas hori zegamarra zen, eta Iker Zubeldiak ondo daki haren berri.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Sentimentua sartu zitzaidan*

Behin Antoniok zer egin zuen
danak esaten hasita:
astoa hartu eta mendira
joan omen zan jauzika
eta mendia nola zegoen
perretxikuez josita
astoa bati lotu omen zion
hain haundia ikusita
ta asto gajoa ito egin zan
perretxikua hazita. (bis)

Peritik bueltan autobusean
konbersazio klasea
eguraldia gora ta behera
graduak eta haizea
guk esan gendun “Gaurkoa dago
beroa eta hezea”
ta berak zion lehengo udara
zala hotza ta luzea
behin Sanjoanetan elurrarekin
tapau ‘men zan elizea. (bis)

Antonio Bolas Kalekokoa
memorian hor dihardu
gazte gehienok oroitzapena
oraindik frexko daukagu
gizona nola izan zitekeen
gezurtero ta ondradu.
Antioniorekin oraindik ere
sarri oroitzen gera gu
gezurra soilik bola bat baita
minik ematen ez badu. (bis)

IRUN (2009-10-30)

*Bertsolariak: S. Lizaso, U. Alberdi,
A. Egaña eta M. Lujanbio.*

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Irungo Irunabar bertso-eskolak antolatutako bertso-saioa. Irungo Ficoban izan zen, gaueko hamarretan. Entzule asko, berrehundik gora, eta giro polita bertsotan egiteko. Txapelketa giroan murgildurik zegoen bertsoaren mundua, eta entrenatzeko ariketa politikak proposatu zizkien gai-emaileak.

S. Lizaso-U. Alberdi-A. Egaña-M. Lujanbio

Gaia: Kubatarrek diote hiru gauza direla bizitza honetan garrantzitsuak eurentzat: lehengoa sexua, eta beste biek ez dute garrantzirik. Euskaldunontzat berriz...

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

S. Lizaso: Asko ta asko erortzen gera
 kubatarraren jokoan
 eta askotan geure burua
 geuk jartzen degu zepoan
 inoiz edo behin egiak ere
 gorde geuretzat kolkoan
 eta inork'e ez du sinesten
 deskuido ez esandakoan. (bis)

U. Alberdi: Hartu dezagun hegazkina ta
egin Habanara salto
ni prestu nago sanbarako ta
prestu reagetonerako
haiei asko inporta zaie
egiten baitute pranko
ta guri gehio inporta zaigu
egiten ez degulako. (bis)

A. Egaña: Hori hala da dudarik gabe
euskaldunaren jitea
beti izan da nahiko indartsu
eta nahiko potentea
ondo egitea ez zaigu ajola
baizikan on egitea
bi gauza dira garrantzitsuak:
jatea ta edatea. (bis)

M. Lujanbio: Kuba bero da ta berotzea
hartzen dute euren kargu
guk gerrietan genetikoki
problematxo bat dakargu
eurak sexuaz ai dira beti
politikaz ai gera gu
ta euren blokeo politikoa
guk sexuakin daukagu. (bis)

S. Lizaso: Ez dut pentsatzen sexuarekin
konpontzen denikan dena
jan-edanakin bakarrik berriz
ez da asetzen barrena.
Beste gauza bat ahaztea da
hanka-sartze nabarmena:
lagunen lagun izatea da
gehien balio duena. (bis)

- U. Alberdi: Kuba aldean itxuraz altu
dute sexuan katxea
ondo mugitzen dute gerria
aurrea eta atzea.
Pentsa nolako grabea degun
hemen daukagun trantzea
bertsolaritza bada guretzat
mingaina erabiltzea. (bis)
- A. Egaña: Ez dakit baina Kuban ba omen da
hamaika sexu histori
horrelakorik hemen ez zaio
ia gertatzen krixtori!
Horko *Mi amol* eta *Cariño*
noizbehinka pieza erori
hemen aldrebes ulertu gendun
ehizaren kontzeptu hori. (bis)
- M. Lujanbio: Eta gu gure gatazkarekin
mendez mende urtez urte
serioa da bai baina eurek ere
arazoak badituzte.
Gerria dantzan ta izerditan
jarriko bagendu guk'e
igual, nork jakin, burua ere
askatuko litzaiguke. (bis)

M. Lujanbio-S. Lizaso

Gaia: Lorezainak zarete eta biribilgune edo errotonda berri batean ipini
behar dituzue loreak. Hemen inguruan dago biribilgune hori, garai
batean etxe batzuk zeunden lekuan.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

- S. Lizaso: Rotonda bati begira gaude
ai zer-nolako pare!
Aukera degu loreetatik
dena horren dotorea!
Erabakia zuzen hartzea
zail izaten da ordea.
Denen gustoa ez degu egingo
egin dezagun geurea. (bis)
- M. Lujanbio: Hemen ditugu aukeratzeko
aukera gutxitakoak
nahi ditugunak hobe da jarri
ez jefek utzitakoak
konbinatu ondo ein behar dutenak
ta ondo bustitakoak
ze hemen polizik egoten dira
kolore guztitakoak. (bis)
- S. Lizaso: Beraz zertxobait apartan bila
egin behar ahaleginak
bere itxura eduki dezan
rotondan dagon jardinak
ta koloreak ez izateko
datozenaren berdinak
alde batera utzi ditzagun
berdeak eta urdinak. (bis)
- M. Lujanbio: Berde ta urdinak ez dira ederrak
ta hoiek jarri bai zea!
Hara Behobi ta Irun artean
hau da bidegurutzea!
Puntu honek du oso histori
tristea eta luzea
ironikoa litzake hemen
alegriak ipintzea. (bis)

S. Lizaso: Nolabait ere hausi beharko
lehendik dauden topikoak
behin jarri eta puxka bateko
izatekotan nahikoak
jolasten hemen ez ibiltzeko
inoiz neurri gabekoak
ertzeko lorak jarri ditzagun
arantza ta guzikoak. (bis)

M. Lujanbio: Lehenago ere hemen badago
nahikoa sasitza txarrik!
Lehendik badago nahikoa ote
eta nahiko lur malkarrik!
Bai botanikan ta bestela're
ez dago esan beharrik
negun loratzen diranak dira
pensamentuak bakarrik. (bis)



*Gipuzkoako Bertso-eskolen Eguna
(Azkoitia, 2009-04-26)*

Iturria: Yurima Sagastuy

ERRENTERIA (2009-12-05)

*Bertsolariak: A. Mendiluze, A. Egaña,
J. Maia, M. Lujanbio, U. Iturriaga,
A. Arzallus eta Xamoa.*

Gai-emailea: Karlos Aizpurua.

Landare Elkartek antolatzen duen jaialdia. Niessen aretoan izan zen, iluntzeko zazpitan. Txapelketa Nagusiaren finalerako egun gutxi falta ziren, eta txapelketarekin loturiko hainbat gai jarri zizkien Karlosek.

A. Mendiluze-Xamoa

Gaia: Xamoak ez du finalean kantatuko, baina txapelketan parte hartu du, final-laurdenetan hain zuzen ere; eta oso ongi akordatzen da Aitor bertsozalarekin. Izan ere, Xamoak kantatu behar zuen ia guztietan Aitorrek martxa egiten zuen kanpora, ez dakit zertara. Gaur topo egin duzue Oreretako saioan.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

A. Mendiluze: Laudion zeunden estu ta larri
 praketan ezin kabitu
 ondo atera zintezkeenik
 ez zitzaidan iruditu
 ta horregatik irtetzen nintzen
 total zertako aditu?
 Batek sufritu behar baldin badu

Xamoa: besteak zertan sufritu?
Halere zure erabakia
iruditzen zait xelebrea
zuretzako bai baina neretzat
ez da izango mesede.
Nunbait sufritu egiten zenun
ta kanpora alafede!
Baino horrela ez zenun entzun
gozatu nuena ere.

A. Mendiluze: Zerbaitegatik atera nintzan
uler zaidazu gizona!
Zure zalea naiz betidanik
benetan da, ez da broma
baina somatu nezakeen han
kezka ta ezinegona
ta onena ere ez zen izango
dezakezun bezain ona.

Xamoa: Baino daukadan onena ematen
oraindik ez dut ikasi
eta zuk berriz lagundu ordez
kanpora bidean hasi.
Nere zalea omen zerala
oso garbi daukat kasi
nere amari ere ez diot
hainbeste sufriarazi.

A. Mendiluze: Ba bai zurekin pentsatu ohi det
“Emango dit! Emango dit!”
baina egun hartan ezin espero
zugandik lore askorik
ez neukan entzun eta geldirik
han egoteko gogorik
eta sekula ez dizut jotzen

Xamoa: konpromisozko txalorik.
Egia da bai aldea dago
beti txalotik txalora
hobeak jotzen ba omen dakizu
ba eman zaidazu denbora.
Laudiokoa hala izan zen
eta hala izango da:
zuk eta biok alde egin genun
txapelketatik kanpora.

A. Mendiluze: Neretzat a ze txaskoa eta
zuretzako a ze lorpen!
Jakin nahi nuke hemen daudenak
horri buruz zer dioten
beraiek ta ni gaude Xamoa
onenari itxaroten
ta gaur utziko al didazu hemen
saio osoan egoten?

Xamoa: Egia da bai jaso dudala
makina bat txalo merke
saio askotan ezin izan dut
nahi adina asebeta.
Orain baimena eskatzen dezu
Aitor nola izan liteke?
Nigatik balitz gaur bakarrik ez
beti hala litzateke.

MARKINA-XEMEIN (2009-12-08)

*Bertsolariak: A. Arzallus, I. Elortza,
M. Lujanbio, S. Colina, A. Mendiluze eta
U. Iturriaga.*

Gai-emailea: Andoni Egaña.

Abenduaren 8an urtero egiten den jaialdia. Markinako pilotalekuan izan zen, arratsaldeko bost eta erdietan; entzule asko, zazpiehun eta berrogeita hamar lagun inguru.

Ordu berean jokatu zuten Irujok eta Gozalezek lau eta erdiko pilota txapelketaren finala, eta saioaren hainbat unetan finalaren zuzeneko kontaketa egiten jarri zuen Andoni Egañak Amets Arzallus.

U. Iturriaga-M. Lujanbio

Gaia: Maialenek aspaldian bazuen kapritxo bat: maskota bat izatea, animalia bat; eta azkenean lortu du, Unai da maskota hori. Ez dut uste oso ondo konpontzen direnik, hasieran behintzat.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

- M. Lujanbio: Beiratu ta egiten zait
bihotza bi zati
hain eder du buru gain
eta sabel azpi!
Vietnamgo txerritxo
beltz-beltza izaki
baina katearekin
ibiltzen ez daki. (bis)
- U. Iturriaga: Honegaz errenditzen
badeukot nahiko lan
ondo tratatu gura
baina ez daki zelan.
Txerri izen ta txakur
lez nindun eraman
ta ez dakit oin “Koink!” edo
“Uau! Uau!” egin behar dan”. (bis)
- M. Lujanbio: Kate barruan ez da
egoki kabitzen
baina ni saiatzen naiz
arretaz aditzen
bera hots arraro batzuk
ari da erditzen
baina nik vietnamera
ez det entenditzen. (bis)
- U. Iturriaga: Harreman hau behar da
gaur kolpera eten
ez bada arazoa
ondo eroaten.
Euskaraz eta garbi
nabilzu esaten
nik patata azalik
ez dodala jaten. (bis)

M. Lujanbio: Beraz patata azala
apartean utzi
nik zure ohiturarik
ez baitet nahi hautsi.
Zakur-jana jarri ta
ez zegon itsusi
azkar asko nun jan dun
palillo ta guzi! (bis)

U. Iturriaga: Bai *palilloa* jan dot
ta orain tripan min
harremana gaiztotu
egin jaku arin
ta behingoan gatazka
hau konpondu dadin
ekarri beharko da
hona Brian Currin. (bis)

M. Lujanbio: Ezagutzen ditu bai
Currin ta enparau
liluratuta nauka
hau da maskota hau!
Lapurrak datoztela
gaua denean gau?
Nere txerri txikiak
defendatuko nau. (bis)

U. Iturriaga: Ai! Nik zu defendatu?
Gurago dot hilik!
Ez deukot pistolarik
ez deukot misilik
gauero joaten naz
atera isilik
badaezpada izten dot
sartzeko zabalik. (bis)

BARAKALDO (2009-12-13)

Txapeldunaren agurra

M. Lujanbio

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Eguzkiak urtzen du han goian*

Gogoratzen naiz lehengo amonen
zapi gaineko gobaraz
gogoratzen naiz lehengo amonaz
gaurko amaz ta alabaz.
Joxei ta zuei mila zorion
miresmenaren zirraraz
ta amaituko dut txapel zati bat
zuek guztiontzat lagaz.
Gure bidea ez da errexa
bete legez, juizioz, trabaz...
Euskal Herriko lau ertzetara
itzuliko gara gabaz
eta hemen bildu dan indarraz
grinaz eta poz taupadaz
herri hau sortzen segi dezagun
euskaratik ta euskaraz.

ZUMARRAGA (2009-12-19)

*Bertsolariak: I. Elortza, U. Alberdi, S. Lizaso,
I. Zubeldia eta B. Gaztelumendi.*

Gai-emailea: Uxue Fernandez.

Luzio Gabiriaren omenez abenduan urtero antolatzen duten jaialdia, aurten hogeita bigarrena. Zelai Arizti aretoan izan zen, gaueko hamarretan; berrehunen bat bertsozale elkartu ziren.

I. Elortza-I. Zubeldia

Gaia: Zu, Igor, Jose Ignacio Munilla zara, Gipuzkoako gotzain izendatu berria. Eta gaur, Iker konfesatzera etorri zaizu.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espainian behera*

I. Zubeldia: Munilla entzun beza
kontu hau berorrek
kamionka pekatu
badauka Ikerrek.
Abemariarekin
hasi det neronek
Pecato concebida
erantzun dit honek
erre ezin dan tokian
erre egiten det. (bis)

I. Elortza: Goierriko potro bat
badator ai ama!
Zer da hemen Gipuzkoan
tokatzen zaidana?
Ez da hain bekatua
erretzean plana
baina minimo bat da
eskatzen dudana:
ileak orraztuta
etorri nigana. (bis)

I. Zubeldia: Maite ditut parranda
eta kuadrila
larunbat iluntzeetan
a ze iskanbila!
Astelehenean berriz
raso inutila.
Argi gorrietara
joaten naiz Munilla
zuk aurrez probautako
beste hoiien bila. (bis)

I. Elortza: Nireak egin gura
dituela bere
oraindik igandeko
tragoaren mende.
Diferenteak gara
klase eta jende
zure argi gorriak
Iker alafede!
Horrek ez du merezi
konfesatzea ere! (bis)

I. Zubeldia: Orain haundi xamar bat
behar dizut bota
etxean gaude eta
ez dio inporta:
Opuseko apaiza
badaukazu soka
ta aldarrikapena
ze histori mota
aborto behar zuna
abortoan kontra. (bis)

I. Elortza: Hor zehar pasatu da
zure ostikada
harro-harro eginagatik
zuk zeure algara
handi xamarra bota
behar zuela hara!
Ta erdi lotsatua
hortxe zaude jada
otsoa zelakoan
ta arditxoa da. (bis)

I. Zubeldia: Traste honen barruan
sartu naiz nolana
pekatuen kargekin
ez nengoen lasai.
Hiru Abemaria
Aitagurea bai
hemen elkartzen dira
apaiz eta anai
hau zerua badegu
ez det zerurik nahi. (bis)

I. Elortza: Ustez bazeneukana
nahikoa malezi
nik pekatu bakar bat
ere ez dut bereizi.
Abertzale otzanek
zaituzte zu hezi.
Utz nazazu pakean
joan zaitez ihesi
zuk inpernurik ere
ez duzu merezi! (bis)

ORDIZIA (2009-12-26)

*Bertsolariak: M. Lujanbio, S. Colina,
A. Arzallus, A. Sarriegi, A. Egaña, U. Iturriaga,
J. Maia eta A. Mendiluze.*

Gai-emaileak: Saroi Jauregi eta Inaxio Usarralde.

Majori kiroldegian izan zen, arratsaldeko seietan. Jendetza elkartu zen azken txapelketa nagusiko finalistak entzutera, denera 1.400 lagunetik gora. Saio atsegina eta entzungarria izan zen.

A. Sarriegi

Gaia: Mezu bat jaso duzu mugikorrean, Aitor. Zer mezu den jakiteko bi aukera dauzkazu: Iñaxiok mezu bat dauka eta nik beste bat; zuk esan zeinena nahi duzun, aukeratu bietako bat (Saroirena aukeratu du). Honela dio: “Zorionak zure finaleko saioagatik. Belodromotik bueltan lau puntu kendu zizkizuna”.

Neurria: Hamaseiko berdina 8 puntuz

Doinua: *Gure herri ttiki hau da*

Belodromotik irten ta
zorionan salatari
kotxe barrurantz sartu
eta ni nintzen gidari.
Ahalegin egin genuen
ospakizun ta afari
gero Beasaina buelta
hiru-lau San Miguel sari
baina arrebak eskatu
zion bere anaiari
etxera eramateko
ta ertzainak hantxe adi
putz egin globoan eta
zero koma hoeta hamabi.
Neri grazi gutxi ein zidan
ta gutxiago amari! (bis)

Igande gauez izan zen
ta ordu biak aldera
Lazkauko rotondan bertan
han zeuden gora ta behera...
Gure amaren etxea
ondoan dago gainera
ta beste ehunen bat metro
daude bertatik basera.
Suerte txarra soilik ez zen
izan nere arabera
baina behingoz har dezadan
optimistaren papera:
meritu gehiagorekin
nator gaur hauen artera
lau puntu gutxigorekin
sartu nintzen finalera. (bis)

Nahiz eta zure parean
bi begiek egin dizdiz
nahiz eta esan zenidan
pasatu nintzela neurriz
nik oraindik jarraitzen det
bertso gosez ta egarriz
eta irria sortzen zait
oroimena bertan jarriz.
Multa txikia izan zen
garbi egitekotan hitz
egin nuenarentzako
gelditu zen nahiko murriz
baina pozik esango det
beste berrehun mila aldiz:
ni hemen ari naiz kantari
ta zu patruilatzen zabiltz. (bis)



*Txapelketa Nagusiko finala
(Barakaldo, 2009-12-13)*

Iturria: Alberto Elozegi

ZUMAIA (2009-12-26)

*Bertsolariak: U. Gijarro, A. Rezola,
E. Erremundegi, J. Labayen,
U. Gaztelumendi eta M. Velarde.*

Gai-emailea: Jokin Uranga.

Zumaiako Bertso Eskolak bertso astea antolatu ohi du Gabonetan, eta ekitaldietako bat bertsolari gazteen saioa izaten da. Zumaiako Aita Mari zineman izan zen, gaueko hamarretan, ehunen bat entzuleren aurrean.

E. Erremundegi

Gaia: Hi ere, gazte euskaldun asko bezala, aurten atxilotuta egon haiz.

Neurria: Hamabiko berdina 6 puntuz

Doinua: *Gure herri ttiki hau da*

Goizeko seitian etxeko
atea joka nuen entzun
fini zen isiltasuna
baina guztia zen ilun.
Eskuan arma zutela
sartu ziren hainbat lagun
eta ereman ninduten
nere etxetik hain urrun.
Ez dakit ohartu zizten
hau nola izaten dugun:
beti gauez heldu dira
amets egin ez dezagun. (bis)

Lau egun etxetik kanpo
nituen gaizki pasatu
nahiz eta ez ninduten jo
nahiz eta ongi tratatu.
Eneko, Ibai, Gillen ta Xan
zituzten kartzelan sartu
eta geroztik ez ditut
parez pare begiratu.
Amets egitea omen
nahi digute debekatu
baina ametsak ezin dira
presondegietan sartu. (bis)

Hori ekainean izan zen
batzuentzat aspaldi zen
baina zoritxarrez hemen
askotan zaigu gertatzen.
Polizia ikusten da
kaleetatik paseatzen
ez gaituzte utzi nahi
bakean lasai bizitzen.
Nahiz eta saiatzen diren
gure ametsak ezabatzen
guk dena egingo dugu
egi bihurtu daitezten. (bis)

IBARRA (2009-12-27)

*Bertsolariak: A. Agirre, A. Arzallus,
A. Mendiluze, I. Elortza,
A. Egaña eta X. Silveira.*

Gai-emailea: Asier Imaz.

Urtearen hondarrean jaialdia antolatu zuten Ibarrian. Igande arratsaldean izan zen, kiroldegian; hirurehun eta berrogeita hamarren bat entzule.

A. Egaña-X. Silveira

Gaia: Zuek elkarrekin hilabete asko pasatu dituzue Txapelketa Nagusia prestatzen. Txapelketa bukatu da, denok ikusi dugu zein polita izan den, zenbat jende elkartu den eta abar, baina zuek ez duzue espero zenuten emaitza lortu.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Elizan sartu ziradenian I / Salbatoreko ermitan*

A. Egaña: Lesakan edo Zarautzen bildu
 ta entrenatu batera
 txapelketa hau ez zaigu Silver
 espero gisa atera:
 ni betirako jetsi oholtzatik
 zuk salto bat goitik behera
 puesto onikan ez lortu arren
 biok nabarmendu gera.

X. Silveira: Esprin luze bat bezela izan zen
aurreko hilabetea
nik uste nuen Egaña zela
nere barne suen kea
baina ez da hain juxtu horrela
zer nahi duzu esatea?
Ez da polita salto egiteagatik
telebistan irtetea.

A. Egaña: Alde hortatik aizu Xabier
benetan konforme nago
telebistako hoiek guztia
apurtzen dute akabo!
Gestoarekin geratu ziren
lana ahaztuta zeharo
bertsotan ondo egin zenuen
saltoa baino lehenago.

X. Silveira: Beraz bertsoan ongi egin nuen
saltoka hasi baino lehen
zuk ere atzerantz salto eginez
izan zinen hirugarren
zu hirugarren frantses horrek bi
poto egin zitun arren
nereak zentzua izan zezan zuk
ere salto egin behar zenuen.

A. Egaña: Era hortako ideia bitxi
dexente dituzu zuk'e
nik saltorako sekula ez det
izan hainbeste birtute.
Hogeita hamahiru dauzkazu zuk ta
nik berroita zortzi urte
hola saltoka hasi ezkerro
hanka puskatuko nuke.

X. Silveira: Hanka uste du baina agian
hautsiko zun ipurdia
ez da izango hori gertatzen
zaion lehenengo aldia.
Nik oholtzatik esango dizut
saltatu nun ta egia
baina hautsi nahi nun gauz bakarra zen
baten baten aurpegia.

A. Egaña: Eta gerora zer datorkigun
txapelketako zepua
hurrena ondo jardungo dezu
jarriko nuke lepua!
Lau urte barru hartu nezake
zure *sparring* lekua
ta zure esku utzi nahi nuke
bi lagunon mendekua.

X. Silveira: Hor asmatu du erdi-erdian
nago pekatu egarriz
kritika latzak entzuten dira
denen jo puntuan jarritz.
Nik hiru poto egin nituen
eta sentitzen naiz *sheriff*
zuk hiru poto egindakoan
hitz egingo dugu berriz.

ELGOIBAR (2009-12-29)

*Bertsolariak: A. Egaña, U. Alberdi, M. Lujanbio,
M. Amuriza eta J. Agirre.*

Gai-emailea: Irati Agirreazaldegia.

Urtearen hondarrean antolatu ohi duten jaialdia. Azken urteetan zineman egin izan dute, baina aurten kiroldegira eraman behar izan zuten, antzokian ez baitziren sartzen bertsozale guztiak.

U. Alberdi-M. Lujanbio

Gaia: Uxue, hamasei urte dituzu eta ez zaude batere gustura zure itxurarekin.
Gaur goizean, jaiki zarenean, Maialen amarengana joan zara, eta operatu egin nahi duzula esan diozu.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Beti penetan beti penetan*

M. Lujanbio: Zure buruai begira beti
 ze animo desgastea!
 Zure iztarrak zure bularrak
 dena dela desastrea...
 Neska sasoiko ta fina zera
 ederra eta gaztea
 kentzea baino hobe ez al da
 begiratzen ikastea?

- U. Alberdi: Bai agian bai izan liteke
baina ama ze topiko...
Ispilu aurrean jartzen naiz eta
nik ezer ez det begiko:
izter haundiak bular haundiak
ezer ez bere neurriko
eta agian errezena da
pagatu, kendu ta kito!
- M. Lujanbio: Baina nongo modelo batengan
daukazu zuk begirada?
Bere ispilu izan nahi dezu
bere neurrien islada.
Nik ere badet nere gabezi
ta nere mixeri karga
hemen gustoko ez danakin'e
bizitzen jakin behar da.
- U. Alberdi: Baina halere ez nago pozik
ama inondik inora
nire helburua ez da iristea
eredura, modelora.
Baina halere ja nere kontra
hasi daiteke denbora
eta gustora bizi ahal badut
zertan bizi disgustora?
- M. Lujanbio: Operazio bat baldin bada
zuretzako paradisu
labana eta bisturiakin
ez baldin bazera izu
orain dezuna ez dezula nahi
argi baldin badakizu
gero konforme egoterikan
zeinek ziurtatzen dizu?

U. Alberdi: Egia esan hori ere ez da
izango gauza ziurra
koipea kendu eta gerora
aterako da zimurra.
Nahiz eta orain kendu nahi nukeen
sobratzen zaidan apurra
onartua ez izatea da
ama daukadan beldurra.

M. Lujanbio: Zure buruai zenbat burla ta
zenbat keja ta mesprezu...
Behera begira jartzen zera ta
dena tatxa dena kexu...
Besteek zutaz zer esango duten
beti kezketan zaude zu
besteek ere maiteko dute
zuk maite baldin badezu.

U. Alberdi: Ez nago oso seguru baina
oraingoz egongo naiz zai
nahiz ta oraingoz ni ez sentitu
eder, apain eta lasai
izan nahi nuke nere buruai
ondo begiratzeko gai
baina oraingoz fuera ispiluak
ta telebista ere bai.

DURANGO (2009-12-30)

*Bertsolariak: M. Amuriza, A. Egaña,
M. Lujanbio eta A. Arzallus.*

Gai-emailea: Igor Elortza.

Berbaro Elkarteak urtearen hondarrean antolatu ohi duen jaialdia. Plateruena kafe antzokian izan zen, gaueko hamarretan.

M. Lujanbio-A. Egaña

Gaia: Badabil iritzia, batzuek kezkaz, beste batzuek nekez eta hainbatek amorruz diote BECeke finala lar politikoa izan zela. Zuek zer diozue?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Erreguetan ari nintzela*

M. Lujanbio: Gogoratzen dut minbiziana
edota giltzurdinena
tratu txarrena, krisiarena
ta Aminaturen sena...
Politikakin gatazkarekin
lotu nahi dutenek dena
ez ote dute ikusten soilik
ikusi nahi ez dutena?

A. Egaña: Politikoa izan zela ta
hizketan hainbat axeri
han botatako iritzirikan
ezin dutenak liseri.
Izatekotan herrian dugu
hainbat pena ta miseri
han bertsorikan ez baitzen bota
gertatzen ez den ezeri.

M. Lujanbio: Gure eraikuntza lanean gabiltz
gure ekin gure fede
zerbaiten alde egiten degu
kritika edo mesede.
Aipatu ziren mila araudi
juizio, traba eta lege
baina neretzat politika da
giza harremana ere.

A. Egaña: Aritu ginen gertakizun ta
jardun gendun ideetan
nik neronena esan dezaket
jardun nintzen nireetan.
Kartzela joan ta biluztarazi
hainbat mila bideetan
eta gai hori ez al da sartzen
giza eskubideetan?

M. Lujanbio: Ez aipatzea kontu bat baita
eta zentsura bestea
aipatu ziren juizio, kartzela
espetxea, erbestea.
Kritikari ta gai-jartzaileei
haxe da nere eskea:
esan nahi dena esan dezagun
espazioa uztea.

A. Egaña: Kritikaritzat arituko zen
ez dakit zenbat alaja
baina herrian presoak dira
eta hamaika hilkaja.
Herri hau behingoz konpondu eta
guztiontzako bentaja
ordun gu ere jardungo gera
ji-ji-ji eta ja-ja-ja.



*Zapirain anaiak eta Ibon Zabala bertsopaper lehiaketa
(Errenteria, 2009-12-27)*

Iturria: Julian Albistur

BAT-BATEKO SARIKETAK

ABRA SARIA

GETXO (2009-02-21)

*Bertsolariak: A. Uribe, A. Solozabal,
M. Arzallus, A. Illaro,
U. Gaztelumendi eta E. Erremundegi.*

Algortako Kultur Etxean izan zen, arratsaldeko zazpietan. Hogei entzule inguru. Nahiko ondo joan zen saioa, denek utzi zuten ale politen bat edo beste.

E. Erremundegi-M. Arzallus

Gaia: Bikotea zarete. Bi urte daramatzazue elkarrekin, eta gaur Maddalenek bonboiak oparitu dizkizu, zuri, Ekhi. Ekhi diabetikoa da.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

E. Erremundegi: Bi urtez elkarrekin
pozik dugu jardun
“Maite zaitut” askotan
dizut zuri entzun
baina gauza bat bitxi
ikusten dut egun:
Maddalen ageri da
zenbat maite nauzun. (bis)

M. Arzallus: Denda barrura sartu
eta berehala
kaxa hau hartu nuen
ez al da normala?
Intentzio osoaz
egin nuen hala
badakidalako nik
jango ditudala. (bis)

E. Erremundegi: Nerekin beti duzu
izaten zuk zorra
“Maite zaitut! Kaxa bat
zuretzako horra!”.
Aizu diabetea da
biziki gogorra
ta ez zaidazu deitu
“Azukre koxkorra”. (bis)

M. Arzallus: Ba ez horrelakorik
ez dago zurekin
nahiz ta saiatzen naizen
ekin eta ekin.
Nik jakin nahi nuen
nahi baduzu jakin
ea altxatzen zaizun
azukrearekin. (bis)

E. Erremundegi: Nahiz ta lanean ematen
dugun guk eguna
ez da oso errexa
gu bien jarduna.
Nahiz ta gogo ona den
gaurkoan duguna
azukreak ezingo du
zuk ezin duzuna. (bis)

M. Arzallus: Bai gure harremanak
akatsak baditu
baina hoiek aipatzen
ez zazu segitu.
Nik bonboi kaxarekin
egin dut delitu
baina zuk ez didazu
ezer oparitu. (bis)

M. Arzallus

Gaia: Azaldu zein diren zure ligatzeko teknikak.

Neurria: Hamabiko berdina 6 puntuz

Doinua: *Gure herri ttiki hau da*

Azkenaldian festetan
egin dut nahiko *hazaña*
inguruan bai baitago
nor erori nor engaina.
Gaztetan ligatzen nintzen
aparta eta bikaina
erakusten dut daukadan
gorputz eder ta liraina
lehen tragoa eskeini
eta ahal bada txanpaina
gero parranda guztia
berak ordaintzen du baina. (bis)

Mutil bat hurbildu ezker
ezin ninteke kontrola
borborka jartzen baitzaizkit
zerbeza eta odola.

Parean nik nor daukadan
ez zait gehiegi axola
ta orain kontatuko dut
nola egiten dudan nola:
etxeko miseriarik
ez da kontatzen inola
ta lehenik esan behar da
etxea hutsik dagola. (bis)

Gau batez erortzen dira
hamar bat mutil guztira
eta bat pasa ondoren
hurrengorako segida.
Bai, bai lehenago banuen
argia eta distira
baina nere argi dena
guztiz itzaltzen ari da.
Orain ez dut ezer lortzen
nabil besteei begira
ez didate balio ta
aldatu beharko dira. (bis)

ORIXE SARIA

DONOSTIA (AÑORGA) (2009-03-14)

*Bertsolariak: J. Uranga, I. Izagirre. I. Esoain,
I. Gurrutxaga, U. Muñoa eta Mantxi.*

Gai-emailea: Unai Gaztelumendi.

Orixe Sariaren finala Antton Aiestaran Kultur Etxean jokatu zen, larunbat arratsaldearekin. Ohi bezala, finalean nork kantatuko zuen erabakitzeko, hiru kanporaketa egin ziren, afalosteko giroan.

I. Izagirre-I. Esoain.

Gaia: Zu, Iñigo, herriko apaiza zara. Jadanik bi alditan joan zara Ibairen etxera, hilzorian zegoela-eta estremauzioa edo azken igurtzia ematera. Gaur, tabernan egin duzue topo.

Neurria: Zortzikoa txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

I. Izagirre: Telefonoz deituta
 bazterrak aztora
 bi alditan galdu det
 zurekin denbora
 ta gaur hemen tabernan
 mozkortzen gustora
 irteerak kobratzen
 hasi beharko da! (bis)

I. Esoain: Tabernariai esan
 “Ekarri alkohola!”
 ia berdin-berdin zait
 jadanik kontrola.
 Ez dakit nola nagon
 hilda edo hola
 behintzat iruditzen zait
 zeruan nagola. (bis)

I. Izagirre: Ez dauka ez errexa
 mutilak hiltzea!
 Errosarioakin
 pasa nun trantzea.
 Ze ari zara esaten
 zeru ta *lechea*?
 Zure amak lurrean
 dauka gurutzea! (bis)

I. Esoain: Asko kosta al zaizu
 bitan etortzia?
 Gaixo dagoen batek
 adarra jotzia!
 Kriantzak ere badu
 bere garrantzia:
 hau det ezpainmentzako
 azken igurtzia. (bis)

I. Izagirre: Kriantza izeneko
 horrenbeste ardo!
 Ni zurekin nahikoa
 nazkatua nago.
 Bi alditan joan naiz
 ez zait kosta, ondo!
 Zu mezetan ez zinen
 bi aldiz izango? (bis)

I. Esoain: Ez naiz bi aldiz joan
noski mezetara
baina bihar gauean
joango naiz jada.
Tabernari kobratu
ezaidazu hara!
Kanbioak eta ni
bagoaz kajara. (bis)

I. Gurrutxaga

Gaia: Oraintxe kendu dizute begietako estalkia.

Neurria: Hamaseiko berdina, zortzi puntuz

Doinua: *Boligrafoa eskuan*

Pertsona bakoitzak dauka
jakina bere problema
eta akaso nirea
ez da izango arruntena.
Urteak pasatu ditut
ospitaleetan barrena
baina azken geltokira
iritsi da nire tren.
Zapi astuna izan da
orain kendu didatena
eta aurrean agertu
zait ikuste ez nuena.
Ez ote da ba izango
dagon egunik onena
itsu batentzat begiak
ireki dizkiotena?

Ze kolore dauka lurrak?
Nolakoa da zerua?
Nolakoa izango da
biltzen nauen ingurua?
Urte askotan izan da
hauxe nere helburua.
Argitu zait ikusmena
ta argitu zait burua.
Nahiz ta luzea izan den
azkenaldiko endredua
bakoitzak bereai ekin
hau da bide segurua.
Nola aldatuko ote da
aurreko bizimodua?
Mundua gela hau bada
zein ederra den mundua!

Nigatik esamesetan
aritu ohi zan jendea
aurreiritziek dute
egundoko boterea.
Baina urte luzeotan
egin nahi nuen nerea
itsua izanagatik
ez nintzen miserablea.
Bizi berri bat aurretik
aritzeko adorea
begiek eman didate
askontzako ohorea.
Bizi pozez bete naiz ta
egin nahi nuke bidea
usain bakoitzari jarri
behar diot kolorea.

BETERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

URNIETA (2009-03-28)

*Bertsolariak: I. Viñaspre, M. Agirre, O. Perea,
U. Alberdi, A. Lizarralde eta J. Labayen.*

Gai-emailea: A. Agirre.

Beterriko II. Bertsolari Txapelketaren finala. Arabako Otsoak eta Gipuzkoako Hontzak sailkatu ziren finalerako, aurretik egin ziren beste bi saiotan. Oianume jatetxea bete egin zen.

O. Perea

Lehen puntua emanda

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

A. Lizarralde: Gaztien txapelketan
 ederki zabilta!

O. Perea: Zuk al daukazu Ander
 gaztaroan giltza?
 Ispirituz gaztea
 dut nere bilitza
 oraindik lau gorpilen
 ganean gabilta!

A. Lizarralde: Hogeita hamar urtetik
pasatu zera zu...

O. Perea: Eta zuk inbidia
galanta daukazu!
Niri ez dit egiten ba
horrek enbarazu
hobe mukizuei
ez eitea kasu.

A. Lizarralde: Baina zu konserbatzen
zerana ederki

O. Perea: eskerrak ematea
dut nik erabaki.
Egurra nahiz ta eman
hemengo hainbati
bihotzean gordeko
zaituztet nik beti!

U. Alberdi

Gaia: Hiru hitz emango dizkizut, eta zuk erabaki abiapuntu bezala hartu,
elkarrengandik bereizi, lotu, zuretik kantatu, beste norbaiten paperean
aritu...Hauek dira hiru hitzak: maitasuna, gorrotoa eta askatasuna.

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Arratsalde on eta muxu bat*

Gaur hogei urte maitasun sutsuz
jardungo ziren apika
baina horixe gero aldatuz
joan daiteke zatika
beti ez baita ondo biluzten
maitasunan margarita.
Bikote baten batak bestea
hartu dezake harrika...
Ahots ozenez egin nahi nuke
gertatuaren kritika:
berriro ere odolana herri
bihurtu zaigu Gernika¹⁴. (bis)

Egun batean more kolorez
izan zuen betazala
beste batean hautsi zizkion
sudurra ta azkazala
atzamarkakin marraztu zion
hurrengo baten azala
ta emaztea bilakatu zen
bere senarran itzala
ta hedabideetan notizia bat
eman zuten mundiala:
pasatu arte hura omen zen
famili normal-normala. (bis)

Ta emazteak hau jasan zuen
urte askotan, luzaro
normaltasunez bilakatu zen
gizonezkoan esklabo.
Hori entzun ta gorrotoakin
goraino beteta nago
herri honetan eta besteetan
gertatzen dira oparo.
Nahiz eta beti aldrebes esan
eta ziur esan klaro
maitasunetik gorrotora da
pauso bat baino gehiago. (bis)

(14) Gernikan hilketara bat gertatu zen egun batzuk lehenago. Izaskun Jimenez Borja andrea hil zuen senarrak.

OSINALDE SARIA

GABIRIA (2009-04-25)

Bertsolariak: O. Barroso, M. Artola, M. Amuriza, M. Arzallus, A. Illaro eta J. Uria.

Gai-emailea: Jokin Murua.

Osinalde sariaren finala, aurten XXXVIII.a. Osinalde elkartea erabat beterik, eta ohi bezala giro ederra. Saio polita izan zen, oro har. Kopletan jarduteko Joseba Iztueta eta Iban Maiz trikitilarien laguntza izan zuten.

M. Amuriza-M. Arzallus

Gaia: Zuek ama-alabak zarete, Miren ama eta Maialen alaba. Amari ez zaio gehiegi gustatzen alaba nola janzten den. Orain ere izango du zerbait esateko.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Anai-arrebak hementxe nator*

M. Amuriza: A ze bakea hartuko nuen
 jaio balitz mutikoa!
 Trapu artean gora ta behera
 sesioa betikoa.
 Erosi eta erosi arren
 sekula ez da nahikoa...
 jantzita duzun gona motz horrek (bis)
 ematen du gerrikoa!

- M. Arzallus: Eta agian egongo zara
 nik noiz kenduko dudan zain
 nahiz errietan aritzen zaren
 ni ez naiz aldatzeko gai.
 Gona motz-motza ekarri dut nik
 eta zu ez zaude lasai.
 Ama garaiak aldatzen dira (bis)
 eta mutilak ere bai!
- M. Amuriza: Baina ez bota gizonaekoei
 janzkera horien kulpa!
 Amaigabea izango ote da
 gure etxeko burruka?
 Goizaldeetan gerria bistan
 ta sekula ez hoztuta
 gero etxean beti egoten da (bis)
 berogailua piztuta!
- M. Arzallus: Nahiz agerian dauzkadan beti
 gerria eta sabela
 hain zuzen horrek igotzen du-ta
 neska finaren nibela.
 Ama edonor jantzi liteke
 nahi bezala ta nahi dela
 ta zu zergatik janzten zara ba (bis)
 amona zaharrak bezela?
- M. Amuriza: Ez zaite hasi hitz gaiztoekin
 gaine hartzeko planean!
 Ni ez naiz janzten hain zaharkitu
 komeni ez zaidanean.
 Segi zazu bai erdi biluzik
 uda, negu zein gauean
 gogoratuko zara nirekin (bis)
 ama izaten zarenean!

M. Arzallus: Ama garaian aginduko dut
gogoaz eta ederto
baina urruti dago oraindik
eta ahaztuta hobeto.
Hain zuzen ere gogoaz daukat
uda behingoz etortzeko
kamiseta eta gona kendu (bis)
ta bikinitan jartzeko.

M. Artola-A. Illaro

Gaia: Zuk, Arrate, uste duzu bertso mundura aukera berdintasuna ez dela oraindik iritsi. Mikelek, berriz, baietz uste du, neskak eta mutilok aukera berdina ditugula.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

A. Illaro: Nahiz egia den bertsoz lau neska
elkartu gaituzten gaurko
zer ikasia badugu eta
zeozer egin beharko.
Mutilak zerbait esan ezkerro
barre egiten da edarto
ta neska berriz finegia da
zikinkerietarako. (bis)

M. Artola: Arrazoi dezu berdintasuna
falta izan da luzaro
baina aspaldian neska koadrila
bertsotan dabil oparo.
Gaur lau neska ta bi mutil hemen
ez al dago horren klaro?
Egia esan baztar honetan
ikaraturikan nago! (bis)

A.Illaro: Garai batean neskak etxean
 edukitzea zen lege
 ta irten gara ta egia da
 dena ikusten da hobe.
 Nahiz mahai gainean lau neska egon
 gaur bertsotan alafede!
 Berdintasuna lortu behar da
 publiko aurrean ere. (bis)

M. Artola: Arrazoi dezu igual ez dago
 eta guztia eginik
 gure eskuan hortaz badago
 oraindikan nahiko lanik
 baina gehiena lortua dago
 aizu laguna jadanik:
 berdintasuna gaurkoa bada
 gustora hartuko det nik! (bis)

A.Illaro: Garai batetik hona neskatxak
 agertu gara askotan
 ta aurrerapena nabaria da
 plazetan ta holakotan.
 Arrazoi duzu hara mutiko
 geratu ezkeru lotan
 agian bihar neskak bakarrik
 egongo gara bertsotan! (bis)

M. Artola: Igual atzera geratu gara
 gu mutilok oharkabe
 eta aurrera begiratzea
 izan liteke gaur klabe.
 Lehen'e esan det mutil premirik
 ez det ikusten hala're
 zeozen falta baldin badago
 Odei ta ni hemen gaude! (bis)

PLAZATIK GAZTETXERA

MUTRIKU (2009-06-13)

*Bertsolariak: E. Erremundegi, A. Elortegi,
E. Alkorta, H. Iruretagoiena,
B. Iguaran eta U. Gaztelumendi.*

Gai-emailea: Ana Etxaburu.

VIII. Plazatik Gaztetxera bertsolari txapelketaren finala Mutrikuko Gaztetxean izan zen. Gaueko hamaikak jota hasi zen saioa. Aretoa leporaino bete zen, eta bertsolariek bertsotan bueltatu zieten entzuleei hauengandik jasotako berotasuna, eta entzuleek animo eta txalo zaparrada luzeekin erantzun. Eman eta jaso, bertsolari zein entzule.

E. Erremundegi-U. Gaztelumendi

Gaia: Mutrikuko gazte asanbladako kideak zarete. Oinarrizko funtzionamenduan ez zarete ados jartzen. Erabakiak modu indibidualean hartzearen aldekoa da Ekhi. Unaik, aldiz, taldearen erabakia jartzen du norbanakoaren gainetik.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Hamaika aldiz daukazu lehendik*

E. Erremundegi: Gazte Asanbladan aspaldi dugu
gure asteroko jarduna
ta hola lortu dugu orain arte
gu denek lortu duguna.
Denek batera erabakitzea
hori da zuk nahi duzuna
baina bakoitzak nahi duen gisan
ez al da hori askatasuna?

U. Gaztelumendi: Hitz potolotan hasi zera ta
sartzen didazu ikara
zure aldetik ibiltzen zera
beti irri ta algara.
Erabakia denon artean
hemen adostu behar da
Gazte Asanbladai zerbaitegatik
deitzen zaio asanblada.

E. Erremundegi: Asanblada bat behar dugu bai
nik ere uste dut horrela
gaztetxe baten norbanakoak
bere hitza baduela.
Denak batera denak batera
a ze kontzeptu itzela!
Baina azkenean beti egiten da
zuk nahi duzun bezela.

U. Gaztelumendi: Zuk diozunez nere modura
egiten da dena hemen
azaldu nahi det nola guztia
adostu egin behar den.
Euskal Herrian adibidea
har dezakegu nabarmen:
dena banaka egin nahi degu
ta begira nola gauden.

E. Erremundegi: Asanblada bat demokrazia
nahi duzula zuk omen
bakoitzak bere hitza emanaz
erabakiak hartuz hemen.
Euskal Herria adibidea
bai Unai ona bederen
baina begira demokrazia
Unai hemen nolakoa den.

U. Gaztelumendi: Demokrazia azkenaldian
daukagu guri itxia
España aldean halako zerbait
digute erakutsia.
Ba guk adostu egin behar degu
batera herri guzia
ta erakutsiko diegu zer den
egizko demokrazia.



*Osinalde Saria
(Gabiria, 2009-04-25)*

Iturria: XDZ

LIZARDI SARIA

ZARAUTZ (2009-09-04)

*Bertsolariak: A. Rezola, U. Alberdi, A. Urbietta,
M. Amuriza, Xamoa eta U. Gaztelumendi.*

Gai-jartzailea: Motxian Bertso Eskola.

Gai-emailea: Saroi Jauregi.

Hogeita hamahirugarren Lizardi sariaren finala. Zinema pilotalekuan izan zen, gaueko hamarretan. Entzule asko eta saio polita. Ohi bezala, amaieran, Basarri bertsopaper lehiaketaren sariak banatu ziren.

U. Alberdi-Xamoa

Gaia: Zuek biok prostitutak zarete. Zu, Uxue, zure lau seme-alabei jaten emateko egin zinen prostituta; zu, Xamoa, berriz, hemezortzi urte bete aurretik ekarri zintuzten Errumaniatik, bizimodu hobea aginduta, eta prostituzioan sartu zintuzten.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

U. Alberdi: Erabakia hartu nuen nik
neguko ostegun baten
eta geroztik hor ibiltzen naiz
kalean barrua jaten.
“Utzi ezazu! Utzi ezazu!”
hain erreza da esaten!
Nahiago nire burua saldu
haiek saldu ez dezaten.

Xamoa: Eta ni berriz hemen naukate
ez paper eta ez etxe!
Pentsatze hutsak ekarri arren
horrenbeste *mala leche*
hemen gauza bat esan ta beste
bat egiten dute aise
engainatua bizi naiz neure
bezeroak bezalaxe.

U. Alberdi: Zein hitz errexa ta merkea den
batzutan duintasuna!
Ai, balekite nolakoa den
barruan dugun hutsuna!
Nik bihotzean gordetzen ditut
kariñoa, maitasuna
eta gonaren azpian berriz
umeen etorkizuna.

Xamoa: Zure eskutan dauzkazu noski
semeak eta alaba
ta desberdina izanagatik
nire antzekoa zara:
nik'e bihotza erdi libre dut
zuk esan duzun gisara
baino alperrik gorputza beste
norbaitena baldin bada.

U. Alberdi: Zortzi bezero pasatu dira
nire gelatik atoan
nekatu xamar ta akiturik
nahiz ta bukatu gaurkoan
bihar goizean esnatuko naiz
umore fresko askoan
irribarre bat jasotzen badut
etxera heldutakoan.

Xamoa: Gauza bat dira sentimentuak
ta beste bat ohorea
nik nirea dut nagusiaren
zapata zolan gordea.
Mundu berri bat opa zidaten
eta hau daukat ordea
mundu berri bat bai baino ez da
lehengoa baino hobea.

A. Rezola-U. Alberdi

Gaia: Basektomia egitera joan zarete ospitalera, eta zain zaudete itxarongelan. Atea zabaldu eta hurrengoa nor den galdetu du erizainak.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

A. Rezola: Honaino etorri naiz
ausardiz gainezka
baino a ze zalantza
beldur eta kezka!
Medikua hor dabil
“Hurrena?” galdezka
hurrengua ni banaiz
hurrengorik ez da! (bis)

U. Alberdi: Neri're graziarik
ez dit ba ematen
eta hementxe nago
nerbioak jaten!
Korapiloa egin
iturria eten...
Ea gizontasuna
kenduko didaten! (bis)

A. Rezola: Baino oraindik ezin
 degu entenditu
 gorputzian bi bizi
 nola ez kabitu?
 Ez al daukazu penik?
 Begitu! Begitu!
 Gure lagun txikiez
 nola despeditu? (bis)

U. Alberdi: Neria ja bildu da
 beraren baitara
 txikia espero behintzat
 hor dutela laga
 behintzat hori galtzea
 ere ez da traba
 jadanik badauzkat ta
 sei seme-alaba. (bis)

A. Rezola: Batek joan bihar eta
 ze erremedio
 lehenbiziko pausua
 zintzo demonio
 beldur gehio pasako
 bainuke dedio
 andriai “Ez det egin”
 esango banio! (bis)

U. Alberdi: Bai nik ere badaukat
 nahiko konpromisu
 ta zure egoeran
 ni nago berdintsu:
 ez egin ta etxera
 juteko naiz izu
 ze igual orduan berak
 ebakiko dizu! (bis)

KATUXULO BERTSOLARI GAZTEEN TXAPELKETA

OIARTZUN (2009-12-26)

*Bertsolariak: M. Arzallus, B. Gaztelumendi,
J. Iragorri, H. Casabal,
A. Martin eta A. Lizarralde.*

Gai-emailea: Iker Iraia.

Kataxulo txapelketaren hirugarren ekitaldia. Kataxulo gaztetxean izan zen, iluntzeko zazpian hasita.

M. Arzallus-B. Gaztelumendi

Gaia: Maialen gazte borrokalaria zara, ausarta; Beñat berriz, pentsalaria, jakintsua.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zazpi ahizparen gai den oihala*

M. Arzallus: Gaztea beti bizi izan da
 zaharragoen menpeko
 zure ideiak entzun ondoren
 Beñat harritu naiz seko
 esaten duzu: “Pentsatu eta
 egongo zara hobeto”
 pentsatzea ez al da alperrik
 gero deus ez egiteko?

- B. Gaztelumendi: Baina zergatik hasi ezertan
aterako bada grabe?
Ai oraindikan ezjakin zera
oraindikan hain nerabe!
Zu inguratzen zaitun denaren
kontra aritzen zerade
askotan zeren alde borrokan
ari zeran jakin gabe.
- M. Arzallus: Ba bai borrokan segitzen dut nik
nahiz ta ez dudan jakiten
zerri buruz ta horrexegatik
Beñat arrazoirik ez ken.
Alper-alperrik aritzen zara
buruari eragiten
total zaharrek ez baitizute
bate kasurik egiten.
- B. Gaztelumendi: Baino barrura begira zazu
ahaztu zazu ingurua
dauden borroka denetan ohi da
azaldu zure burua
eta hurrengo manifa ere
dezu zita segurua
baino pentsatu al dezu zertan
aldatu dezun mundua?
- M. Arzallus: Zurekin behintzat aldatzerikan
ez zazu asko espero
zure etxean gelditzen zara
egunero-egunero
zu hotz pentsatzen egoten zara
ta nik jarduten dut bero
gazte bikain bat sortuko gendun
biok alkartu ezkerro.

B. Gaztelumendi: Egia da bai hala hobe
litzakeela ondorena
nik bertsoz bete-betea daukat
nere kajoi almazena
ta zuk edozer egiten dezu
ahaztuta datorrena.
Ziega hotz baten urtuko zaizu
zure berotasun dena.

SAIOEN AURKIBIDEA

Data	Herria	Bertsolariak	or.
2009-01-06	Oiartzun	A. Egaña, M. Lujanbio, A. Arzallus eta I. Elortza.	63
2009-01-10	Asteasu	Mañukorta eta A. Larrañaga.	67
2009-01-18	Getaria	I. Elortza.	71
2009-01-18	Markina-Xemein (Barinaga)	S. Lizaso.	73
2009-01-24	Donostia	U. Iturriaga, A. Egaña, I. Zubeldia eta On. Enbeita.	75
2009-01-25	Leitza	A. Egaña, S. Colina, J. Soto eta S. Lizaso.	84
2009-01-31	Sara	A. Arzallus.	90
2009-02-20	Mutiloa	S. Lizaso, I. Murua, A. M. Peñagarikano eta A. Egaña.	92
2009-03-08	Berriz	A. Agirre, On. Enbeita eta E. Lagoma.	100
2009-03-19	Igorre	J. Maia eta A. Egaña.	104
2009-03-21	Elizondo	X. Silveira.	107
2009-03-28	Ataun	M. Arrillaga eta U. Egaña.	108
2009-04-03	Bergara	A. Arzallus, U. Iturriaga eta M. Lujanbio.	110
2009-04-04	Gasteiz	O. Perea.	114
2009-04-05	Zegama	A. Mendiluze, J.M. Irazu, A. Egaña eta A. Agirre.	115
2009-04-17	Zumaia	B. Gaztelumendi, A. Arzallus, M. Arzallus, A. Estiballes, S. Lizaso eta A. Egaña.	120
2009-04-25	Abadiño (Matiena)	S. Colina eta X. Paya.	124
2009-05-09	Bilbo	B. Gaztelumendi, S. Lizaso, S. Colina eta A. Egaña.	127
2009-05-16	Errenteria	J. Agirre eta J.L. Gorrotxategi.	132
2009-05-22	Bilbo	A. Illaro eta J. Uria.	134
2009-06-06	Donostia	X. Paya, I. Murua eta A. Arzallus	137
2009-06-14	Hernani	I. Zubeldia eta J. Agirre.	141
2009-06-19	Mutriku	U. Muñoz, A. Agirreazaldeg eta E. Eizagirre.	144
2009-06-26	Hernani	M. Lujanbio eta B. Gaztelumendi.	150
2009-06-23	Tolosa	A. Barandiaran eta B. Gorostidi.	153

2009-06-28	Dima	U. Alberdi, X. Paya eta A. Mendiluze.	156
2009-06-29	Lasarte-Oria	B. Gaztelumendi eta P. Etxeberria	160
2009-07-04	Usurbil	S. Colina, A. Egaña, M. Lujanbio, J. Maia, A. Arzallus eta X. Sukia.	163
2009-07-07	Lesaka	J. Soto.	168
2009-07-10	Iruñea	I. Elortza, X. Legarreta eta S. Colina.	170
2009-07-12	Lezama	U. Iturriaga, J. Maia, On. Enbeita eta X. Silveira	174
2009-07-16	Alegia	A. Agirre eta A. Sarriegi.	179
2009-07-20	Zornotza	A. M. Peñagarikano, J. Uranga eta F.Paia	183
2009-07-24	Aia	J. M. Irazu, A. M. Peñagarikano eta S. Lizaso.	187
2009-07-31	Altzo	I. Elortza.	191
2009-08-02	Forua	M. Lujanbio, X. Silveira, I. Elortza, A. Egaña eta U. Iturriaga.	193
2009-08-05	Gasteiz	As. Otamendi eta O. Perea.	197
2009-08-09	Berastegi	U. Alberdi, A.Barandiaran, U. Gaztelumendi eta I. Zubeldia	200
2009-08-15	Zizurkil	J. Agirre, A. Agirre, M. Lujanbio eta J.M Irazu.	205
2009-08-20	Bilbo	B. Ugartetxea, M. Artetxe, B. Gaztelumendi eta O. Bartra.	210
2009-08-22	Arrasate	A. Mendiluze eta A. Arzallus.	213
2009-08-29	Hondarribia	J. Maia, A.M. Peñagarikano, M. Lujanbio eta A. Sarriegi.	216
2009-09-04	Alkiza	M. Lujanbio.	219
2009-09-06	Elorrio	E. Lekue, M. Amuriza eta A. Estiballes.	221
2009-09-15	Lezo	S.Lizaso eta E. Lagoma.	225
2009-09-27	Lasarte-Oria	U. Muñoa, J. Azpillaga eta T. Garmendia.	228
2009-09-27	Irura	A. Mendiluze eta J. Martin.	232
2009-10-03	Iurreta	M. Amuriza, M. Arzallus eta J. Maia.	235
2009-10-10	Usurbil (Aginaga)	A. Arzallus, A.M. Peñagarikano, J. Oiartzabal eta S. Colina.	239
2009-10-25	Urruña	M. Artetxe eta S. Colina.	242

2009-10-25	Aulesti	M. Lujanbio, I. Ibarra eta I. Zubeldia.	245
2009-10-30	Irun	S. Lizaso, U. Alberdi, A. Egaña eta M. Lujanbio.	249
2009-12-05	Errenteria	A. Mendiluze eta Xamoa.	254
2009-12-08	Markina-Xemein	Unai Iturriaga eta M. Lujanbio.	257
2009-12-13	Barakaldo	M. Lujanbio.	260
2009-12-19	Zumarraga	I. Elortza eta I. Zubeldia.	261
2009-12-26	Ordizia	A. Sarriegi.	264
2009-12-26	Zumaia	E. Erremundegi.	267
2009-12-27	Ibarra	A. Egaña eta X. Silveira.	269
2009-12-29	Elgoibar	U. Alberdi eta M. Lujanbio	272
2009-12-30	Durango	M. Lujanbio eta A. Egaña	275

Bat-bateko sariketak

Data	herria	bertsolariak	or.
2009-02-21	Getxo	E. Erremundegi eta M. Arzallus,	281
2009-03-14	Donostia (Añorga)	I. Izagirre, I. Esoain eta I. Gurrutxaga.	285
2009-03-28	Urnieta	O. Perea eta U. Alberdi.	289
2009-04-25	Gabiria	M. Amuriza, M. Arzallus, M. Artola eta A. Illaro.	292
2009-06-13	Mutriku	E. Erremundegi eta U. Gaztelumendi.	296
2009-09-04	Zarautz	U. Alberdi, Xamoa eta A. Rezola.	299
2009-12-26	Oiartzun	M. Arzallus eta B. Gaztelumendi.	303

BERTSO HAUTATUAK

www.bertsozale.com

1.- 2009-01-06	Oiartzun	M. Lujanbio-A. Arzallus-I. Elortza
2.- 2009-01-24	Donostia	On. Enbeita-I. Zubeldia
3.- 2009-02-55	Leitza	A. Egaña-S. Colina
4.- 2009-02-20	Mutiloa	A. Egaña, A.M. Peñagarikano
5.- 2009-02-20	Mutiloa	A. Egaña
6.- 2009-03-08	Berriz	E. Lagoma-On. Enbeita
7.- 2009-04-05	Zegama	A. Mendiluze
8.- 2009-04-25	Abadiño (Matiena)	S. Colina-X. Paya
9.- 2009-05-09	Bilbo	S. Lizaso-B. Gaztelumendi
10.- 2009-05-22	Bilbo	A. Illaro-J. Uria
11.- 2009-06-06	Donostia	A. Arzallus
12.- 2006-06-19	Mutriku	A. Agirreazaldegia-E. Eizagirre
13.- 2009-06-26	Hernani	M. Lujanbio-B. Gaztelumendi
14.- 2009-07-12	Lezama	U. Iturriaga
15.- 2009-07-16	Alegia	A. Agirre
16.- 2009-07-20	Zornotza	A.M. Peñagarikano
17.- 2009-07-24	Aia	A. M. Peñagarikano-S. Lizaso
18.- 2009-09-15	Lezo	S.Lizaso-E. Lagoma
19.- 2009-09-27	Lasarte-Oria	U. Muñoa, J. Azpillaga-T. Garmendia
20.- 2009-10-25	Aulesti	I. Zubeldia
21.- 2009-10-30	Irun	M. Lujanbio-S. Lizaso
22.- 2009-12-08	Markina-Xemein	U. Iturriga-M. Lujanbio
23.- 2009-12-26	Ordizia	A. Sarriegi
24.- 2009-12-27	Ibarra	A. Egaña-X. Silveira
25.- 2009-12-29	Elgoibar	U. Alberdi-M. Lujanbio
26.- 2009-12-30	Durango	M. Lujanbio-A. Egaña
27.- 2009-09-04	Zarautz	A. Rezola-U. Alberdi

BERTSOLARIEN AURKIBIDEA

Agirre, A.	100(B), 118(B), 179(B), 180(BI), 205(BI)
Agirre, J.	132(BI), 141(BI), 205(BI)
Agirreazaldegia, A.	146(BI), 148(B)
Alberdi, U. ...	156(BI), 200(BI), 249(BI), 272(BI), 290(B), 299(BI), 301(BI)
Amuriza, M.	221(BI), 235(BI), 292(BI)
Arrillaga, M.	108(BI)
Artetxe, M.	210(GL), 242(BI)
Artola, M.	294(BI)
Arzallus, A.	64(BI), 90(B), 110(BI), 120(BI), 139(B), 163(BI), 165(BI), 213(BI), 239(BI)
Arzallus, M. ...	120(BI), 235(BI), 281(BI), 283(B), 292(BI), 303(BI)
Azpillaga, J.	229(BI)
Barandiaran, A.	153(BI), 200(BI)
Bartra, O.	212(GL)
Colina, S. ...	84(BI), 124(BI), 129(BI), 163(BI), 172(B), 239(BI), 242(BI)
Egaña, A. ...	63(B), 75(BI), 84(BI), 92(BI), 95(B), 96(BI), 104(H), 117(BI), 120(BI), 129(BI), 163(BI), 193(BI), 249(BI), 269(BI), 275(BI)
Egaña, U.	108(BI)
Eizagirre, E.	146(BI)
Elortza, I.	64(BI), 71(B), 170(BI), 191(B), 193(BI), 261(BI)
Enbeita, On.	78(BI), 101(BI), 175(BI)
Erremundegi, E.	267(BI), 281(BI), 296(BI)
Esoain, I.	285(BI)
Estiballes, A.	120(BI), 223(B)
Etxeberria, P.	160(BI)
Garmendia, T.	229(BI)
Gaztelumendi, B.	120(BI), 127(BI), 150(BI), 160(BI), 203(BI), 210(GL), 303(BI)
Gaztelumendi, U.	296(BI)
Gorostidi, B.	153(BI)
Gorrotxategi, J. L.	132(BI)
Gurrutxaga, I.	287(B)
Ibarra, I.	245(BI)
Illaro, A.	134(BI), 294(BI)
Irazu, J.M.	117(BI), 187(B), 207(BI)
Iturriaga, U.	75(BI), 110(BI), 174(B), 193(BI), 257(BI)
Izagirre, I.	285(BI)

Izagirre, I.285(BI)
Lagoma, E.101(BI), 225(BI)
Larrañaga, A.67(BI)
Legarreta, X.170(BI)
Lekue, E.221(BI)
Lizaso, S. 73(B), 87(BI), 96(BI), 120(BI), 127(BI), 189(BI), 225(BI), 249(BI), 251(BI)	
Lujanbio, M.64(BI), 113(B), 150(BI), 163(BI), 193(BI), 207(BI), 216(BI), 219(B), 245(BI), 249(BI), 251(BI), 257(BI), 260(H), 272(BI), 275(BI)
Maia, J.104(H), 163(BI), 175(BI), 216(BI), 237(B)
Mañukorta.67(BI)
Martin, J.232(BI)
Mendiluze, A.115(B), 158(B), 213(BI), 232(BI), 254(BI)
Muñoa, U.144(B), 228(H)
Murua, I.96(BI), 137(BI)
Oiartzabal, J.239(BI)
Otamendi, As.197(H)
Paia, F.185(BI)
Paya, X.124(BI), 137(BI), 156(BI)
Peñagarikano, A.M. .92(BI), 96(BI), 183(B), 189(BI), 216(BI), 239(BI)	
Perea, O.114(H), 197(H), 289(PE)
Rezola, A.301(BI)
Sarriegi, A.180(BI), 216(BI), 264(B)
Silveira, X.107(H), 177(B), 193(BI), 269(BI)
Soto, J.87(BI), 168(PE)
Sukia, X.163(BI), 165(BI)
Ugartetxea, B.210(GL)
Uranga, J.185(B)
Uria, J.134(BI)
Xamoa.132(B), 254(BI), 299(BI)
Zubeldia, I.78(BI), 141(BI), 203(BI), 247(BI), 261(BI)

IKURRAK:

(B): Gaia emanda bakarka egindako saioa.

(BI): Gaia emanda binaka -edo talde handiagoan- egindako saioa.

(P): Puntutan egindako saioa.

(PE): Lehen edo azken puntua emanda egindako saioa.

(H): Gainerako ariketak

(GL): Gai librean egindako saioa.

Izen eta izengoitien deskribapena

Zerrenda hau, liburuan agertzen diren izen laburdura eta izengoitiei dagokio.

Liburuan	Izen deiturak	Herria
Agirre, A.	Amaia Agirre Arrastoa	Villabona
Agirre, J.	Joxe Agirre Esnal	Azpeitia
Agirreazaladegi, A.	Ainhoa Agirreazaldegia Rekondo	Elgeta
Alberdi, U.	Uxue Alberdi Estibaritz	Elgoibar
Amuriza, M.	Miren Amuriza Plaza	Berriz
Arrillaga, M.	Mikel Arrillaga Bereziartua	Eibar
Artetxe, M.	Miren Artetxe Sarasola	Hendaia
Artola, M.	Mikel Artola Izagirre	Alegia
Arzallus, A.	Amets Arzallus Antia	Hendaia
Arzallus, M.	Maddalen Arzallus Antia	Hendaia
Azpillaga, J.	Jon Azpillaga Urrutia	Mutriku
Barandairan, A.	Aitzol Barandiaran Munduate	Ataun
Bartra, O.	Oihana Bartra Arenas	Bilbo
Colina, S.	Sustrai Colina Akordarrementeria	Urruña
Egaña, A.	Andoni Egaña Makazaga	Zarautz
Egaña, U.	Urko Egaña Calderon	Azpeitia
Eizagirre, I.	Estitxu Eizagirre Kerejeta	Hernani
Elortza, I.	Igor Elortza Aranoa	Durango
Enbeita, On.	Onintza Enbeita Maguregi	Muxika
Erremundegi, E.	Ekhi Erremundegi Beloki	Baiona
Esoain, I.	Ibai Esoain Arruti	Orio
Estiballes, A.	Arkaitz Estiballes Ormaetxea	Galdakao
Garmendia, T.	Txomin Garmendi Galartza	Berrobi
Gaztelumendi, B.	Beñat Gaztelumendi Arandia	Añorga (Donostia)
Gaztelumendi, U.	Unai Gaztelumendi Arandia	Añorga (Donostia)
Gorostidi, B.	Bixente Gorostidi Loidi	Amezketta

Gorrotxategi, J.L.	Jose Luis Gorrotxategi Zangitu	Azpeitia
Gurrutxaga, I.	Iñaki Gurrutxaga Zubimendi	Orio
Ibarra, I.	Iratxe Ibarra Foruria	Markina-Xemein
Illaro, A.	Arrate Illaro Etxebarria	Getxo
Irazu, J.M.	Jexux Mari Irazu Muñoa	Larraul
Iturriaga, U .	Unai Iturriaga Zuaza-Artaza	Durango
Izagirre, I.	Iñigo Izagirre Urteaga	Itziar (Deba)
Lagoma, E.	Erika Lagoma Pombar	Lesaka
Larrañaga, A.	Anjel Larrañaga Sodupe	Azpeitia
Legarreta, X.	Xabier Legarreta Etxarri	Arano
Lekue, E.	Etxahun Lekue Etxebarria	Larrabetzu
Lizaso, S.	Sebastian Lizaso Iraola	Azpeitia
Lujanbio, M.	Maialen Lujanbio Zugasti	Hernani
Maia, J.	Jon Maia Soria	Zumaia
Mañukorta.	Gregorio Larrañaga Mandiola	Markina-Xemein
Martin, J.	Jon Martin Etxebeste	Oiartzun
Mendiluze, A.	Aitor Mendiluze Gonzalez	Andoain
Muñoa, U.	Unai Muñoa Amundarain	Lasarte-Oria
Murua, I.	Iñaki Murua Jauregi	Gabiria
Otamendi, As.	Asier Otamendi Alkorta	Urretxu
Paia, F.	Fredi Paia Ruiz “Fredí”	Algorta (Getxo)
Paya, X.	Xabier Paya Ruiz	Algorta (Getxo)
Peñagarikano, A.M.	Anjel Mari Peñagarikano	Anoeta
Perea, O.	Oihane Perea Perez de Mendiola	Agurain
Rezola, A.	Agin Rezola Laburu	Astigarraga
Sarriegi, A.	Aitor Sarriegi Galparsoro	Beasain
Silveira, X.	Xabier Silveira Etxeberria	Lesaka
Soto, J.	Julio Soto Ezkurdia	Gorriti
Sukia, X.	Xabier Sukia Etxeberria	Orio
Ugartetxea, B.	Beñat Ugartetxea Ostolaza	Mallabia
Uranga, J.	Jokin Uranga Isuskiza	Azpeitia
Uria, J.	Jone Uria Albizuri	Getxo
Xamoa.	Arkaitz Oiartzabal Agirre	Oiartzun
Zubeldia, I.	Iker Zubeldia Akarain	Zegama

